

**Aleksandr Sergeievitx Pushkin**

# **Kapitainaren alaba**

**Euskaratzailea: Jose Morales Belda**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Jose Morales Belda.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1996

Jatorrizkoaren data: 1836

Aleksandr Pushkin euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=16>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1400>

# HITZAURREA

Aleksandr Sergeievitx Pushkin 1799ko maiatzaren 26an jaio zen Moskun, Errusiako noble-familiarik antzinakoenetako batean. Garai hartan nobleak frantsesez mintzatzen ziren elkarrekin, eta errusiera herri xehearekin hitz egiteko soilik erabiltzen zuten. Gustu txarrekoa zen goigizartean errusieraz egitea.

Pushkinek, aitonen semea izaki, irakasle frantsesak eta ingelesak izan zituen. Errusiera, nobleen familietan ohi zutenez, haurtzain errusiarrak irakatsi zion. Txiki-txikitatik piztu zitzaion literaturaren alderako grina eta, hamar urte zituela, idazteari ekin zion, frantsesez eta gogoko zituen autoreak imitatuz, hala nola Voltaire eta Rousseau.

1811n Tsarskoie Seloko lizeoan sartu zuten, urte horretan bertan Alexandro Lak nobleen semeentzat sortutako ikastegi aristokratikoan alegia.

1812an Napoleonek Errusia inbaditu zuen. Frantziaren aurkako gerrak errusiarren abertza-

letasuna ernatu zuen eta, horrek eraginda, Pushkin frantsesa baztertu eta errusieraz idazten hasi zen.

1817an lizeoko ikasketak amaitu eta funtzionario sartu zen Atzerri Ministerioan, Petersburgen.

Napoleon Errusiatik egotzi ondoren, Errusiako armadak Europa askatzen lagundu zuen. Ofizial asko ideia liberalek «kutsatuta» itzuli ziren Europatik eta, intelektual aurrerazaleekin batera, Errusiako errejimen autokratikoa iraultzeko ahaleginetan hasi ziren. Pushkinek gogor kritikatzeko zuen Errusiako egoera, eta bere idazlanetan eztenkada zorrotzez zirikatzen zituen agintariak. Ezkutuko erakundeetan parte hartu ez bazuen ere, haren epigramek eta poemek iraultzaileen borroka-nahia kilikatzen zuten, eta agintarien gogoia, berriz, atsekabetzen.

Berrizaleen eta zahartzaleen arteko borroka erromantikoen eta klasikoaren arteko gatazka izan zuen ispilu literaturan. Pushkinek, nola ez, erromantikoen aldera jo zuen eta, klasizismoa baztertua, heterodoxiaren bidetik joan zen.

Pushkinen bertso satirikoak eta epigrama zorrotzak tximista baino bizkorrago zabaltzen ziren, ahoz aho eta eskuz esku, hala Petersburgen nola Moskun. Poema haietan bildutako ideia liberalek biziki suminduta, Alexandro I.ak idazlea atxilotzeko agindu zuen. Garaiko idazlerik itzaltsuenen erreguei amore emanaz, Siberiara bidaltzeko asmoa bazter utzi eta Kaukasora erbesteratu zuen.

1820an, erbestera joan baino egun batzuk lehenago, *Ruslan eta Liudmila* poema amaitu zuen. Klasizismoaren molde zurrinak hautsi zituen aurreneko aldiz, eta obra horrek irakurleen eta kritikarien erabateko onespena ekarri zion.

Garai hartan, poema erromantikoak idatzi zituen batik bat, hala nola *Kaukasoko gatibua*, *Gavriliada*, *Anaia bandiduak* eta *Bakhtxisaraiko iturria*.

1823an bere obrarik onenetako bat idazten hasi zen: *Jevgeni Onegin* hitz neurtuzko eleberria.

1824an, Odesan erbesteraturik zegoela, istilu ugari izan zituen hango agintariekin. Pushki-

nek barra-barra zabaltzen zituen haien kontrako epigramak, eta gobernadoreak Moskura idatzi zuen esanez «librepentsalari zentzagaitz eta arriskutsua» zela. Horren ondorioz, Mikhailovskoiera, amak Pskov probintzian zeukan etxaguntzara bidali zuten. Handik irtetea debekatu eta funtzionarioen sailetik egotzi zuten. Bi urte eman zituen Mikhailovskoiien, zaintzapean, bakarturik eta aitak berak gutunak ezkutuan ikuskatzen zizkiola. Errusiako historia ikertzen hasi zen.

1825ean Alexandro I.a hil zen ustekabean. Abenduaren 14an, armadak Nikolas I.a tsar berriari leialtasun-zina egin behar zion egunean alegia, ofizial iraultzaileak (*dekabristak*) San Petersburgen matxinatu ziren Konstituzioa eta Legebiltzarra eskatzeko. Baina altxamenduak porrot egin zuen eta tsarrak batere gupidarik gabe zigortu zituen matxinatuak. Pushkinek, amaren etxaguntzatik irten ezinik, ez zuen parte hartzerik izan, baina berak idatzitako poemak aurkitu zituzten dekabristen paperen artean.

1826an, giroa lasaitu zenean, tsar berriak barkamena eman zion Pushkini, ez ordea hutsaren truke: San Petersburgen zein Moskun bizi

zitekeen, baina bidaia guztien berri jakinarazi behar zuen aldez aurretik, eta tsarrak berak zentsuratuko zizkion idazlan guztiak.

*Boris Godunov* drama historikoa amaitu zuen. Botereari eta herriari buruzko gogoeta historikoa da, Shakespeareren eragin nabarmenekoak. *Poltava* poema historiko handia eta poema liriko asko idatzi zituen.

1827an *Siberiako meatzeen sakonean* idatzi zuen, Siberiana bidalitako dekabristen omenezko poema. Prosazko aurreneko obra sortu zuen: *Pedro Handiaren mairua* (1827). Delako mairu hori Pushkinen asaba dugu, amaldeko birraitona hain zuzen ere; Abisiniako beltza zen, tsarrari esklabo gisa saldua eta denboraren poderioz Pedro I.a *Handiaren* uste osoko gizona bilakatu zena.

1830eko abuztuan Bolodinora, aitaren herrira joan zen. Bertan zegoela, izurrite latza jabetu zen inguru hartaz eta hiru hilabete egin behar izan zituen han, herritik mugitu ezinik. Bolodino-ko udazkena Pushkinen aldirik oparoena eta emankorra izan zen. Lan ikaragarria egin zuen. Poema lirikorik onenak garai horretakoak

dira. Denetarik idatzi zuen: elegiak, baladak eta sonetoak; *Ivan Petrovitx Belkin zenaren kontakizunak* izenburupean bildutako bost narrazio labur, zeinetan, Errusiako literaturan aurreneko aldiz, herritar arruntak baitziren protagonista; *Goriukhino herrixkaren historia* (Errusiako landari buruzko errelato satirikoa); *Kolomnako etxea* poema komikoa; lau drama (*Zaldun zekena*, *Mozart eta Salieri*, *Harrizko gonbidatua* eta *Jaiia izurritearen erdian*). Obra horiek guztiak Errusiako literaturako harribitxi paregabeak dira.

1831n Natalia Gontxarovarekin, San Petersburgeko emakumerik ederrenetako batekin ezkondu zen. Errusiako historia aztertzeke gogok eraginda, Atzerri Ministerioan berriro sartu eta artxibo ofizialak arakatzeko baimena lortu zuen. *Jevgeni Onegin* amaitu zuen. *Brontzezko zalduna* (Pedro I.a Handiari buruzko poema) eta *Damako pika* (aurreneko eleberri psikologikoa Errusiako literaturan) plazaratu zituen.

1834an *Pugatxoven matxinadaren historia* idatzi zuen. Tsarraren Ganbarako Handiki izendatu zuten. Izendapena iraingarria zen Pushkinen adinerako eta gizarte-mailarako. Izan ere,



karrera hasi berria zuten gaztetxo nobleei ematen zieten titulu hori. Iraindurik sentitzeaz gain, Pushkinek aise igarri zuten emaztea ikusteko grinak bultzatu zuela tsarra titulu hori ematera, horrek Gorteko jai guztietara joatera behartzen baitzuen. Harrezkeroztik Pushkinek istilu ugari izan zituen gorte-gizonekin. Arinbide bakarra zuen: landara joatea, Mikhailovskoieko etxaguntzara. Tarte horietan idatzi zuen, 1836an, *Kapitainaren alaba. Garaikidea* aldizkaria sortu eta bertan argitaratu zituen bere azken obrak.

Guztien iritziz Errusiako poetarik onena izan arren, etsaiek ez zioten barkatzen ez lumaren zorrotza ez gizarte-bizitzan erakusten zien destaina. 1836ko abenduan, izenpetu gabeko gutun bat jaso zuten: emazteak Georges d'Antès ofizial frantsesarekin engainatzen omen zuela. Egun batzuk geroago, 1837ko urtarrilaren 27an, Aleksandr Pushkinek duelua izan zuten Georges d'Antèsekin. Arauzko sei urratsak eman baino lehen tiro egin zuten frantsesak, Pushkin ustekabean harrapatuz. Bi egun geroago hil zen, izugarriko agonia jasan ondoren. Askoren iritziz, emaztearen fideltasuna zalantzan jartzen zuten

gutun izenpetu gabeak, Georges d'Antèsekiko harremanen gaineko zurrumurruak eta duelua bera agintariek Pushkin hiltzeko antolatutako azpikeria izan ziren. Izan ere, gobernuak sarritan heltzen zion zeharbide horri gogoko ez zuen jendea hiltzeko.

Pushkin, Errusiak inoiz eman duen poetarik onena izateaz gain, errusierazko narratibaren sortzailea dugu. Poesiari dagokionez, oinarri sendoa aurkitu zuen XVIII. mendeko poeta errusiarren lanetan. Prosa arloan, ordea, Errusian ez zegoen inolako tradizioz eta hutsetik sortu behar izan zuen prosazko literatur hizkuntza. Pushkinen aurretik bi prosalari garrantzitsu besterik ez zen izan: Radistxev (1749-1802) eta Karamzin (1766-1826). Baina ordurako haien prosa zaharkituta zegoen. Errusiera kultura arkaismoz eta klizez jositako hizkuntza zurruna zen. XIX. mendeko 20ko hamarkadan, beraz, dena egiteko zegoen prosaren arloan. Pushkinek horren kontzientzia hartu eta lanari ekin zion. Bi zutabe nagusi jarri zizkion errusierazko narratibaren eraikinari: batetik, Europako hizkuntzetan nagusi ziren zehaztasuna, laburtasuna eta

zorroztasuna, eta bestetik, berriz, herritarrek erabiltzen zuten hizkera bizi eta aberatsa. Baina, hizkuntza bera berritzeaz gain, eleberriaren eta ipuinaren teknika garatu beharra zegoen. Halatan, esan liteke Pushkinen prosa guztia esperimentu handi baten modukoa dela: nola idatzi behar den erakutsi nahi du. Horregatik, jenero ugari jorratu zituen: nobela historikoa, eleberri psikologikoa, menturazko nobela, ipuin groteskoa, errelato satirikoa, bidai liburuak, artikuluak, gutunak...

*Kapitainaren alaba* saio horietako bat dugu, denetan bikainena askoren iritziz. Pushkinek bere teoria guztiak gauzatu zituen eleberri honetan: nobelaren egitura argia da, idazleak alferrikako itzulingururik gabe heltzen dio kontakizunaren hariari, pertsonaiak tramaren menpean daude eta idazkera neurritsua eta zehatza da.

Griniov gazteari soldadutzan gertatutakoak kontatzen dizkigu Pushkinek liburu honetan. Menturazko eleberri historikoa da, Pugatxoven matxinadaren garaian girotua. 1773an Jemelian Ivanovitx Pugatxovek (1742-1775) Don ibaiko kosakoak eta nekazariak matxinatu zituen Kata-

lina II.aren aurka. Bashkirek, kirgizek, kalmukok, ihes egindako jopuek eta Uraletako meatzeta-  
lara lanera bidalitako nekazariak ere bat egin  
zuten Pugatxovekin. Urte batzuk lehenago  
(1762an) Katalina liaren beraren aginduz, burua  
moztu zioten Pedro III.a tsarrari (Katalinaren  
senarra). Pugatxovek lau haizetara aldarrikatu  
zuen Pedro III.a zela eta, horrenbestez, berari  
zegokiola Errusiako tronua. Azkenean, Katalina  
II.aren armadak matxinada zapaldu zuen. Puga-  
txov preso hartu, kaiola baten barruan Moskura  
eraman, jendaurrean burua moztu, eta laurden-  
katu egin zuten. Gobernuak gupidarik gabe  
zigortu zituen Pugatxoven jarraitzaileak eta  
matxinadaren arrasto guztiak ezabatzen saiatu  
zen. Urte askotan Errusian tabu izan zen Puga-  
txoven izena aipatzea.

1834an Pushkinek *Pugatxoven matxinadaren historia* idatzi zuen. Eleberri historiko zorrotza eta gordina da, errealitatea batere bigungarririk gabe azaltzen duena. *Kapitainaren alaba* eleberrian ere Pugatxoven matxinada dugu gai nagusi. Liburu honetan, ordea, errealismoa baztertu

gabe, Pushkinek lirismo handiagoaz tratatzen du  
Pugatxov.

**Jose Morales Belda**

# **Kapitainaren alaba**

*Zaindu ohorea gaztarotik.*  
Esaera zaharra

# I. atala

## GUARDIAKO SARJENTUA

- *Guardiako kapitain izan liteke bihar.*
- *Ez zaio komeni! Zerbitza dezala armadan.*
- *Ondo esanda dago! Gorriak ikus ditzala puska batean...*
- ... *Baina nor du aita?*

Kniajnin

Nire aitak, Andrei Petrovitx Griniovek, München kondearen agindupean zerbitzatu zuen gazte-denboran, eta 17\*\* urtean erretiroa hartu zuen komandante lehena zelarik. Harrezkero bere herrian bizi izan zen, Simbirsk eskualdean, eta Avdotia Vasilievna Ju. neska gaztearekin, bertako aitonen seme behartsu baten alabarekin ezkondu zen. Bederatzi neska-mutil izan ginen etxean. Anai-arreba guztiak txiki-txikitan hil zitzaizkidan.

Artean amak sabelean ninderamala, izena emanda nengoen sarjentu gisa Semionovski



errejimenduan, B. printzeari esker, guardiako komandante eta gure ahaide handia baitzen. Guztiek espero zutenaz bestera ama neska batez erditu balitz, aitak zegokionari jakinaraziko ziokeen sarjentu jaiogabearen heriotzaren berri, eta besterik gabe amaituko zatekeen auzia. Lizentzia eman zidaten ikasketak burutu arte. Garai hartan gure heziketa ez zen egungoa bezalakoa. Bost urte nituela, Savelitx zaldizainaren ardurapean jarri ninduten, erakusten zuen jokamolde zentzuduna saritzeko nire haurtzain izendatu baitzuten. Berak zainduta, hamabi urte bete nituenerako banekien errusieraz idazten eta irakurtzen, eta gauza nintzen taxuzko iritzia emateko erbi-zakurren ezaugarrien gainean. Garai hartan aitak frantses bat alokatu zuen niretzat: monsieur Beaupré. Moskutik bidali ziguten urtebeterako ardo eta oliba-olio horniarekin batera. Savelitxek oso gogo txarrez hartu zuen haren etorrera. «Jainkoari eskerrak —esan zuen erremuskadaka bere golkorako—, umea garbi, orraztuta eta ondo janarituta zegok, nik uste. Zergatik gastatu dirua, inolako premiarik gabe,

*musié* hori alokatzen?, gure jendea gai ez balitz bezala!»

Sorterrian Beaupré ile-apaintzaile izan zen, hurrena Prusian soldadu, eta gero Errusiara etorri zen *pour être outchitel*, hitz horren esanahia oso ondo ulertu gabe ere. Gizon jatorra zen, baina aldakorra eta ezinago limuria. Haren argalune nagusia sexu ederrekoenganako irritsa zen; sarri askotan zartakoak jasotzen zituen zirrien ordain, eta gero egunak eta egunak ematen zituen auhenka horregatik. Gainera, (berak zioen moduan) ez zen *botilaren etsai*, alegia (errusieraz esaten den moduan) mozkor porrokatua zen. Baina nola gure etxean ardoa bazkaritan soilik zerbitzatzen zuten, eta kopatxo bana bakarrik, eta nola, gainera, irakasleari gehienetan ez zioten ematen, nire Beaupré berehala ohitu zen Errusiako pattarrera eta, areago, sorterriko ardoa baino gogokoago izatera ere iritsi zen, ardoa baino askoz onuragarriagoa baitzen urdailerako. Berehala aditu genuen elkar, eta kontratuaren arabera *frantsesa, alemana eta ikaskizun guztiak* irakastera behartuta bazegoen ere, nahiago izan zuen ahalik azkarren errusieraz

artez edo moldez mintzatzeko ikasi nirekin; eta harrezkeroztik nork bere zereginei ekiten zien. Azal eta mami ginen. Ez nuen bestelako maisurik nahi. Baina luze gabe patuak elkarrengandik bereizi gintuen, eta hona hemen nola gertatu zen:

Behinola, Palashka ikuzlea —neskatxa lodi eta naparbantzua— eta Akulka betzain begibakarra, batek daki nola biek elkar hartuta, nire amaren aurrera azaldu ziren eta, oinetara apalduz, gogo ahulekoak izaki oker egin zutela aitortu zioten, eta kexuka agertu nola *musié* horrek xarmatu egin zituen artean eskarmentu gabeak zirela baliatuz. Amak ez zuen atsegin gauza horiek txantxetan hartzea, eta kexuka joan zen aitarengana. Honen erantzunak ez zuen luze jo. Bertantxe agindu zuen frantses doilorkume hura ekar diezaioten. Jakinarazi zioten *musié* nirekin zela, eskola ematen. Aitak nire gelara jo zuen. Une horretan Beaupré ohean lo zegoen, errugaberik errugabeena baino lasaiago. Ni, berriz, lanean ari nintzen. Jakin beharra dago geografi mapa bat ekarria zutela Moskutik niretzat. Horman esekita zegoen, ezertarako ere

erabiltzen ez nuela, eta aspalditik liluratua nindukan paperaren zabalak eta onak. Halatan, kometa bat egitea erabaki nuen eta, Beaupré lo zegoela aprobetxatuz, lanari ekin nion. Aita sartu zenean, espartzuzko buztana itsasten ari nintzaion Esperantza Oneko lurmuturrari. Nire geografi ariketa zertan zen ikusirik, aitak ederto berotu zizkidan belarriak. Gero, Beauprérengana inguratu, batere begiramenik gabe esnatu, eta kargu hartzen hasi zitzaion itsumustuan. Beaupré, asaldaturik, hanka gainean jartzen saiatu zen, baina ezin izan zuen: frantses dohakabea mozkor-mozkor eginda zegoen. Hantxe jaso zuen bere oker guztien zigorra. Aitak idunekotik helduta ohetik altxatu, ateko bidea erakutsi, eta egun horretan bertan etxetik egotzi zuen, Save-litxen pozerako. Hor amaitu zen nire heziketa.

Nitaz inor arduratzen ez zela bizi nintzen, usoak hegaldarazten eta jopuen semeekin astoketan jolasten. Bitarte hartan hamasei urte bete nituen. Orduan, aldatu egin zen nire patua.

Behin batez, udazkenean, ama ezti-gozokia prestatzen ari zen egongelan, eta ni, ezpainak milikatuz, esnegain apartsuari begira nengoen.

Aita, leiho alboan eserita, Gortearen Urtekaria irakurtzen ari zen, urtero jasotzen baikenuen etxean. Liburu horrek eragin handia izaten zuen berarengan: bi aldiz irakurri ohi zuen, interes biziarekin beti, eta irakurketak harrigarriro sumintzen zuen. Ama, buruz baitzekizkien aitararen aztura eta ohitura guztiak, zorioneko Liburu hura ahalik eta urrunen ezkutatzen saiatzen zen beti, eta horri esker, batzuetan, Gortearen Urtekariak hilabeteak ematen zituen aitaren begien bistan erori gabe. Baina halabeharrez aurkitzen zuenean, orduak eta orduak egoten zen esku artetik askatu gabe. Beraz, aita Gortearen Urtekaria irakurtzen ari zen, noizean behin sorbaldak goratu eta ahopetik errepikatzen zuela: «Teniente jenerala!... Nire konpainian sarjentu zen! ... Errusiako bi ordenatako zaldun! ... Eta garai batean bera eta biok...» Azkenean aita urtekaria dibanaren gainera bota eta gogoetetan murgildu zen, eta horrek ez zuen ezer onik iragartzen.

Bat-batean, amari esan zion: «Avdotia Vasilievna, zenbat urte ditu Petrushak?»

— Hamazazpi beteko ditu laster —erantzun zion amak—. Gure Petrusha izeba Nastasia Gera-

simovnak begia galdu zuen urte berean jaio zen, eta gainera, urte hartan...

«Ondo da —eten zion aitak—, soldadutzara bidaltzeko ordua da. Amaitu zaio neskameen geletan gora eta behera ibiltzea eta usategietara igotzea».

Luze gabe berarengandik bereiziko nindute-lakoak horren ustekabean harrapatu zuen ama, non koilarea lapiko barrura erortzen utzi eta aurpegia malkoz bete baitzitzaion. Aitzitik, zail da nire poza deskribatzen. Nire irudimenean zerbitzua bat eginik zegoen askatasunarekin eta Petersburgeko bizitzako plazerekin. Guardiako sarjentu ikusi nuen neure burua, eta nire iritziz horixe zen gizakiak izan zezakeen zorionik handiena.

Aitari ez zitzaion gustatzen ez bere asmoak aldatzea, ez haien betetzea atzeratzea. Bertantxe erabaki zuen noiz alde egingo nuen. Bezperan, aitak jakinarazi zidan gutun bat emango zidala gudalburu izango nuenarentzat, eta luma eta papera eskatu zituen.

— Andrei Petrovitx —esan zion amak—, B. printzeari nire partetik goraintziak emateaz ez

ahaztu; esaiozu Petrusha bere babespean hartzea espero dudala.

— Burugabekeria handiagorik! —erantzun zion aitak bekokia zimurturik—. Zer dela-eta idatziko diot B. printzeari?

— Ez duzu ba oraintxe bertan esan Petrusharen gualburuari idatziko diozula?

— Bai, eta zer?

— Ba zera, B. printzea izango da Petrusharen gualburua. Petrusha Semionovski errejimenduan izena emanda dago.

— Izena emanda! Eta niri zer axola dit izena emanda egoteak? Petrusha ez da Petersburgera joango. Zer ikasiko luke Petersburgen zerbitzatzuz gero?, dirua xahutzen eta parrandan ibiltzen? Ez, zerbitza dezala armadan, jardun dezala zeregin gogaikarrietan, usna dezala sutautsa, soldadu izango da, eta ez alproja hutsa. Guardian izena emanda dagoela! Non dauka nortasun-agiria? Ekar ezazu hona...

Amak nire nortasun-agiria aurkitu zuen, arta handiz gordeta baitzeukan bere kutxatilan, bataioan jantzi zidaten alkandorarekin batera, eta, eskua dardarka zuela, aitari eman zion.

Aitak arretaz irakurri zuen, aurrean ipini mahai ganean eta gutuna idazteari ekin zion.

Jakin-minez erretzen nengoen: nora bidaliko ote ninduen, Petersburgera ez bazen? Luma asti-ro samar mugitzen zen aitaren eskuan eta nik ez nion begirik kentzen. Azkenean, amaitu zuen gutuna, sartu pakete batean nortasun-agiriarekin batera, jarri zigilua, kendu betaurrekoak eta, hurbiltzeko agindu ondoren, hala esan zidan: «Hemen daukak gutun hau Andrei Karlovitx R. rentzat. Nire adiskidea duk, aspaldiko laguna. Orenburgera joango haiz beraren agindupean zerbitzatzera».

Halatan, lur jo zuten nire amets liluragarri guztiek! Petersburgeko bizimodu alaiaren ordeztu, leku urrun eta galdu bateko gogaitasuna neukan zain. Zerbitzua, lehentxeago horren gogo beroz buruan nerabilena, zorigaitz izugarria iruditu zitzaidan. Baina ez zegoen eztabaidan hasterik. Biharamun goizean, kubitka ekarri zuten atalondora; barruan ipini zituzten maleta, kaiza txiki bat te-ontziekin eta bilgo batzuk opil eta pastelek, etxeko ardura samurraren azkenengo aztarnak. Gurasoek bedeinkatu egin ninduten.



Aitak esan zidan: «Agur, Piotr. Leialtasun-zina nori egin, berori zintzo zerbitzatu; buruzagien aginduak bete; ez saiatu haien mesedeak lortzen; lan eske ez ibili; aitzakiarik ez jarri zerbitzuko zereginei ihes egiteko; eta gogoan izan esatera zaharrak dioena: zaindu jantzia erosi berrititik, eta ohorea gaztarotik». Amak, negar batean, osasuna zaintzeko agindu zidan niri, eta haurraz arduratzeko Savelitxi. Erbi-larruzko tulup luze bat jantzi zidaten, eta azeri-larruzko beroki bat horren gainetik. Savelitxen aldamenean eseri kibitkan, eta abian jarri nintzen, negar-malkotan.

Gau hartan bertan Simbirskera iritsi nintzen. Egun osoa eman behar nuen han, premiazko gauzak erosteko. Savelitx arduratu zen horretaz, eta ni ostatuan geratu nintzen. Savelitx goizean goiz joan zen erosketak egitera. Leihotik kalexka zikinari begiratzeaz aspertuta, gelarik gela ibiltzen hasi nintzen. Billar-gelan sartutakoan, hogeita hamabost urte inguruko jaun garai bat ikusi nuen, bibote beltz eta luzekoa, txabusinaz jantzia, takoa eskuan eta pipa hortz artean. Jokoa ari zen billar-gelako morroiarekin. Honek, irabazten zuenean, kopa bete vodka edaten zuen,

eta galtzen zuenean, berriz, lau oinean jarri behar izaten zuen billar-mahaiaren azpian. Hantxe geratu nintzen, jokoari begira. Zenbat eta gehiago luzatu partida, hainbat eta sarriagotan ibili behar izaten zuen morroiak lau oinean, harik eta azkenean billar-mahaiaren azpian geratu zen arte. Jaunak esaldi gordin batzuk zuzendu zizkion, hileta-otoitza esaten ari zelako itxura eginenez, eta partida bat jokatzeari proposatu zidan. Nik ezezkoa eman nion, joko horretarako gauza ez nintzela eta. Hori, nonbait, bitxia iruditu zitzaion. Erruki-irudiz begiratu zidan; hala ere, hizketan hasi ginen. Jakin nuen Ivan Ivanovitx Zurin zuela izena, husarren \*\* errejimenduko kapitaina zela eta erreklutak biltzera etorria zela Simbirskera, eta gela bat hartua zuela ostatuan. Zurinek bazkaltzera gonbidatu ninduen, aukeran zegoena erdibanatuz, soldaduen gisara. Atseginenez onartu nion gonbitea. Mahaira eseri ginen. Zurinek erruz edaten zuen, eta edatekoa eskaintzen zidan niri ere, esanez zerbitzura ohitu beharra nuela; armadako pasadizoak kontatu zizkidan, eta ni, haiek entzunik, barrez lehertzeko zorian egon nintzen, eta mahai hartatik altxatu

ginenerako adiskide minak ginen. Orduan, billarrean jokatzeko eskaini zidan bere burua. «Hori —esan zidan— ezinbestekoa duk guretzat militarrentzat. Jardunean ari garenean, esaterako, herrixka batera heldu, eta zertan eman behar duk denbora? Izan ere, kontua ez duk beti juduak jipoitzen ibiltzea. Nahi baduk eta ez baduk, ostatura joan eta billarrean jokatzeari ekingo diok; baina horretarako ezinbestekoa duk jokatzeko jakitea!» Erabat etsita geratu nintzen eta, lehia bizia erakutsiz, ikasteari ekin nion. Zurinek, nire saioen arrakasta berehalakoak txundituta, adone ematen zidan oihu ozenez, eta, eskola batzuk eman eta gero, dirua jokatzeko proposatu zidan, txanpon xehe bat bakarrik, ez irabazteko, ezpada hutsaren truke ez jokatzearren soilik, hori, haren hitzetan, denik eta ohiturarik zikoitzena baita. Ados etorri nintzen horretan ere. Zurinek pontxe bat eskatu zuen eta dastatzera limurtu ninduen, errepikatuaz zerbitzura ohitu beharra nuela; izan ere, pontxerik gabe ez dago armada gisakorik! Haren esana egin nuen. Bitartean, aurrera zihoan jokoa. Zenbat eta zurrutada gehiago egin edalontziari, orduan eta

ausartago jokatzan nuen. Nire boleak jauzi egiten zuten behin eta berriro mahai-ertzaren gainetik; berotzen ari nintzen, errieta egiten nion morroia-ri, bere gogara zenbatzen baitzuen, Jainkoak daki nola; geroago eta apustu handiagoak egiten nituen; hitz batean: askatasuna erdietsi berri duen mutikoaren antzera portatzen ari nintzen. Bitartean, ohartu gabe joan zen denbora. Zurinek erlojuari begiratu, takoa utzi, eta ehun errublo galduak nituela jakinarazi zidan. Apur bat larritu ninduen horrek. Savelitxek zeukan nire dirua. Barkatzeko eskatzen hasi nintzen, baina Zurinek hala eten zidan jarduna: «Tira! Mesedez, ez kezkatu. Itxaron zezakeat, eta bitartean goazen Arinushkaren etxera».

Zer egingo zaio! Hasi bezain eragabeki amaitu nuen eguna. Arinushkaren etxean afaldu genuen. Zurinek behin eta berriro betetzen zidan edalontzia, errepikatuz ezinbesteko nuela zerbitzura ohitzea. Mahaitik altxatu nintzenean, ozta-ozta eusten nion gorputzari hanken gainean; gauerdian ostatura eraman ninduen Zurinek.

Savelitx gure zain zegoen atarian. Aieneka hasi zen zerbitzuari agertzen nion atxikimendua-  
ren zantzu nabarmenak ikusita. «Zer gertatu  
zaizu, jauna? —esan zidan ahots errukarriz—. Non harrapatu duzu tamaina horretako mozko-  
rra? Ene Jainkoa! Bizitza osoan ez duzu horrela-  
ko bekaturik egin!» «Isilik egon, zaharkiloa hala-  
koa! —erantzun nion, mihia motelduta—. Inondik  
ere, mozkortuta zaude, zoaz lotara... eta eraman  
nazazu ohera».

Biharamunean, buruko minez esnatu nintzen,  
bezperako gertaerez hala-hola gogoratzen nin-  
tzela. Savelitxek eten zituen nire gogoetak, kika-  
ra bete te ekarri baitzidan gelara. «Goiz, Piotr  
Andreitx —esan zidan, buruari eraginez—, goiz  
hasi zara parrandan ibiltzen. Noren irudiko atera  
zara? Ez aita ez aitona ez dira izan mozkortiak;  
eta ama, berriz, zer esanik ez: bizitza osoan  
kvasa beste edaririk ez du probatu. Nor da,  
beraz, honen guztionen erruduna?, *musié* mala-  
partatu hori. Antipievna-*rengana* jotzen zuen txi-  
tean-pitean: «*Madam, je vu pri. vodkiu*». Harra-  
patu orain *je vu pri* delako hori! Begien bistan  
dago zein ikasbide polita eman dizun sasikume

horrek. Eta horrelako gizon fedegabe bat hartu behar genuen irakasle, etxeko jaunak bere jendearekin nahikoa ez balu bezala!»

Lotsatuta nengoen. Bizkarra eman eta hala esan nion: «Alde hemendik, Savelitx, ez dut terik nahi». Baina errieta egiten hasten zenean, zail zen Savelitx isilarazten. «Horra, Piotr Andreitx, ikusi zer dakarren mozkorraldiak. Astun duzu burua, eta jateko gogorik ez. Gizon edaleak ez du ezertarako balio... Edan ezazu pepino-gatzuna eztiarekin; eta, ajea kentzeko, basoerdi pattar da hoberena. Ez duzu nahi?»

Une horretan, morroi bat sartu zen eta 1.1. Zurinen ohar bat eman zidan. Zabaldu, eta lerro hauek irakurri nituen:

«Piotr Andreievitx maitea, mesedez, atzo irabazi nizkizun ehun errubloak bidali nire morroiarekin batera. Diru-premia larrian nago.

Beti zure esku  
*Ivan Zurin*»

Ez zegoen ezer egiterik. Itxura axolagabea hartu, Savelitxengana jiratu —bera baitzen *nire*

*diruaren, aldagarrien eta arazoan arduraduna*—, eta mutilari ehun errublo emateko agindu nion. «Hara! Zergatik?», galdetu zuen Savelitxek harri eta zur eginik. «Zor dizkiot», erantzun nion ahal bezain hotz. «Zor? —ihardetsi zuen Savelitxek, gero eta harrituago—. Baina, jauna, noiztik zor diozu dirurik gizon horri? Auzi hau lauso samarra da. Zure nahia gora-behera, jauna, nik ez dizut diru hori emango».

Neure artean pentsatu nuen zirt edo zarteko une horretan agure setatsua estu lotu ezean, etorkizunean nekez lortuko nuela neure burua beraren itzalpetik askatzea, eta, harrotasunez so eginik, hala esan nion: «Ni zure nagusia naiz, eta zu nire zerbitzaria. Dirua nirea da. Jokoan galdu dut gogoak eman didalako. Hona nire aholkua: azkarrarena egiteari utzi eta bete itzazu nire aginduak».

Nire hitzek hain utzi zuten Savelitx txunditu-ta, non eskuak harriduraz jaso eta aho zabalik geratu baitzen. «Zertan zaude hor geldirik?», garrasi egin nion haserre. Savelitx negarrez hasi zen. «Piotr Andreitx, nire jauna —jaregin zuen ahotsa dardarka zuela—, ez nazazula tristuraz

hil. Nire bihotzeko kuttuna! Aintzat hartu agure zahar honen esanak: idatzi lapur horri esanez txantxetan ari zinela, guk ez daukagula horrenbeste dirurik aldean. Ehun errublo! Jainko maittea! Esaiozu gurasoek oso zorrotz debekatu dizutela ezein jokotan aritzea, intxaur-jokoan izan ezik...» «Aski da, gezur gehiagorik ez! — eten nion lazki—. Ekar ezazu hona dirua; bestela, kale gorrian utziko zaitut».

Savelitx barru-barruko atsekabez begiratu eta nire zorra ordaintzeko diruaren bila joan zen. Pena ematen zidan agure gizajoak; baina askatasuna erdietsi nahi nuen, eta ordurako umegorria ez nintzela erakutsi. Bidali genion dirua Zuri-ni. Savelitxek berehalakoan atera ninduen ostatu zorigaiztoko hartatik. Zaldiak prest zeudelako albistearekin inguratu zitzaidan. Kontzientziako harrak hozka eta neure kabutan damaturik alde egin nuen Simbirsketik, neure irakaslea agurtu gabe eta berriro ikusiko ez nuela sinetsita.



## II. atala GIDARIA

*Nire sorterria, lur maitea,  
sorterri ezagungabea!  
Ez naiz neure kabuz oinez etorri,  
ez nau zaldi on batek gainean ekarri:  
gaztea naiz, eta jatorra,  
kemenak ekarri nau, bihotzeko garrak,  
eta tabernako mozkorrak.*

Antzinako kanta

Bidean egin nituen gogoetak ez ziren oso atseginak izan. Orduko prezioak kontuan izanik, jokoan galdutako diru-kopurua ez zen nolana hiko. Neure baitan ezinbestean onartu behar izan nuen Simbirskeko tabernan jokabide ergela erakutsi nuela, eta errudun sentitzen nintzen Save-litxen aurrean. Horrek guztiak oinazetu egiten ninduen. Agurea kopetilun eserita zihoan erlaitzean, niri bizkarra emanez, eta isilik, noizean behinkako urrumak beste hotsik ateratzen ez

zuela. Kosta ahala kosta adiskidetu nahi nuen berarekin, baina ez nekien nondik hasi. Azkenean, esan nion: «Tira, tira, Savelitx! Nahikoa da, bakezkoak egin ditzagun, nirea da erru guztia; konturatu naiz neu naizela erruduna. Atzokoa bihurrikeria hutsa izan zen, bidegabeki iraindu zintudan. Hitz ematen dizut aurrerantzean zentzudunagoa izango naizela eta zure esanak egingo ditudala. Tira, ez haserretu, bakezkoak egin ditzagun».

— Ai, Piotr Andreitx, nire jauna! —erantzun zidan hasperen sakona eginez—. Neure buruarekin nago haserre; nirea da erru guztia. Nolatan utzi zintudan bakarrik ostatuan? Zer egin dut? Haragiak tentatu ninduen: ezagutzen dut hango serora bat, eta bisitalditxo bat egin behar niola bururatu zitzaidan. Eta hara: sari bila joan eta neke berriak aurkitu. Zoritxarra zoritxarraren gainean!... Nola agertuko naiz orain nagusien aurrera? Zer esango dute semea edanean eta jokoan aritzen dela jakiten dutenean?

Savelitx errukarriaren bihotza arintzeko, hitz eman nion aurrerantzean ez nuela ezta kopek bat bera ere ukituko beraren baimenik gabe.

Lasaitu egin zen arian-arian, baina, hala eta guztiz, noizetik noizera, buruari ezker-eskuin eraginez, erremuskadaka errepikatzen zuen bere artean: «Ehun errublo! Ez da hori gero ahuntza-ren gauerdiko eztula!»

Neure bidaiaren jomugara hurbiltzen ari nintzen. Inguruan basamortu goibela ageri zen, muinoak eta amildegia han-hemenka sakabaturik. Elurrez estalita zegoen dena. Sartzen ari zen eguzkia. Kibitka bide mehar batetik zihoan, edo, zehatzago esateko, nekazarien lerek utzitako arrastoetatik. Bat-batean, kotxezaina alde batera begiratzen hasi zen alditik aldira, eta azkenean, txanoa erantzita, nigana jiratu eta hala esan zidan:

— Jauna, ez duzu atzera itzultzeko agindu behar?

— Zergatik?

— Eguraldi txarra dakar: haizetxo mehea jasotzen ari du, ikusi nola harrotzen duen elur erori berria.

— Hori ez da kezkatzekoa!

— Ez al duzu ikusten hango hori? (Kotxezainak ekialdea seinalatu zidan zigorraz).

— Ez dut ezer ikusten, estepa zuria eta zeru oskarbia izan ezik.

— Han, han: hodeitxo hura.

Begiratu, eta hodeitxo zuri bat ikusi nuen zeru-ertzean, lehentxeago urruneko muino txikia iruditu zitzaidana. Kotxezainak azaldu zidan hodeitxo horrek bisutsa iragartzen zuela.

Entzunak nituen hango elur-ekaitzei buruzko kontuak, eta banekien behin baino gehiagotan karabana osoak estaltzen zituztela elur azpian. Savelitxek, kotxezainaren iritziarekin bat etorriz, atzera itzultzeko eskatu zidan. Baina haizea ez zitzaidan gogorra iruditu; kontu egin nuen garaiz iritsiko ginela hurrengo posta-geltokira, eta ari-nago joateko agindu nuen.

Kotxezainak abiada bizkortu zuen; baina etengabe begiratzen zuen ekialdera. Azkar zihozen zaldiak. Bitartean, haizeak gero eta gogorrago jotzen zuen. Hodeitxoa hodeitzar zuri bihurtu zen; astun altxatu, hazi eta arian-arian estali zuen zerua. Elur mehea hasi zuen eta, bat-batean, maluta lodiak botatzeari ekin zion. Uluka zetorren haizea; bisutsa altxatu zen. Berehalaxe, zeru iluna elur-itsasoarekin nahasi zen. Dena

desagertu zen begien bistatik. «Hara, jauna —esan zidan kotxezainak oihuka—, hau ezbeharra: elur-ekaitza!»

Kibitkako leihatilatik begiratu nuen: kanpoan dena zen ilunpe eta zirimola. Haizeak horren itxura haserrearekin jotzen zuen, non izaki biziduna baitzirudien; elurrak Savelitx eta biok estaltzen gintuen; zaldiak pausoan zihoazen, eta, handik gutxira, ibiltzeari utzi zioten. «Zergatik gelditu zara?», galdetu nion, ezinegonik, kotxezainari. «Eta nora joatea nahi duzu? —erantzun zidan, erlaintzetik jaisten zen bitartean—, ez dago asmatzerik nondik jo behar dugun: bidea ez da ikusten, eta ilun dago inguru guztian». Errieta egiten hasi nintzaion. Savelitxek kotxezainaren alde egin zuen. «Lehen ez diozu jaramonik egin nahi izan —esan zidan, haserre—; ostatura itzuli behar genuen, nahi beste te edan, eguna argitu arte lo egin eta, ekaitza baretutakoan, bideari ekin berriro. Zer dela eta horren presa handia? Badirudi ezkontza batera zoazela!» Arrazoi zuen Savelitxek. Baina ez zegoen ezer egiterik. Elurra mara-mara ari zuen. Pilatuz zihoan kibitkaren alboan. Zaldiak

geldirik zeuden, burua makurtuta, eta noizean behin dar-dar egiten zuten. Kotxezaina haien inguruan zebilen, besterik ezin egin eta basta txukuntzen. Savelitx purrustadaka ari zen; nik, alderdi guztietara begiratu nuen, bidearen edo etxeren baten arrastorik begiztatuko ote nuen, baina ezin izan nuen ezer bereizi, inguruko bisuttsaren zurrumbilo uherra izan ezik... Bat-batean, zerbait beltza ikusi nuen. «Aizu, kotxezaina! —oihu egin nuen—, begira: zer da itzal beltz hori?» Kotxezainak arretaz begiratu zuen. «Jainkoak daki, jauna —esan zuen, bere lekuan esertzeaz batera—, orga ez du ematen, zuhaitza ere ez, eta badirudi mugitu egiten dela. Segur aski, edo otsoa edo gizakia da».

Harantz jotzeko agindu nion eta, bat-batean, gauza beltz hura gugana hurbiltzen hasi zen. Bi minutu geroago, gizaki baten parera iritsi ginen.

— Aizu, lagun! —hots egin zion kotxezainak—. Esadazu, badakizu non dagoen bidea?

— Bidea hementxe bertan dago; nik lur irmoa daukat oin azpian —erantzun zuen bidaztiak—, baina zertarako balio digu?

— Entzun, gizona —esan nion—, ezagutzen duzu inguru hau? Gauza izango zinateke aterperen batera eramateko, gaua bertan egin dezagun?

— Ezagutzen dut inguru hau —erantzun zuen bidaztiak—. Jainkoari eskerrak, sarri askotan zeharkatu dut alderik alde, oinez zein zaldi gainean. Baina ikusi nolako eguraldia daukagun: berebizikoa bidea galtzeko. Hobe da bertan geratu eta itxarotea; agian, ekaitza baretu eta zerua argituko du: orduan, bidea aurkituko dugu izarren laguntzaz.

Adore eman zidan haren odol hotzak. Neure burua Jainkoaren nahiaren menpe utzita gaua esteparen erdian ematera erabakita nengoela, bidaztiak, bat-batean, trebeki erlaitzera igo eta kotxezainari esan zion: «Hara, Jainkoari eskerrak, etxeren bat baduk hemendik hurbil; jo eskuinetara eta segi aurrera».

— Eta zergatik joan behar dut eskuinetara? — galdetu zion kotxezainak, gaitzitura—. Non ikusten duzu bidea? Noski, kotxea ez da zurea, eta erraza da inoren zaldiak nekaraztea.

Kotxezaina zuzen zegoela iruditu zitzaidan. «Izan ere —esan nuen—, zergatik uste duzu hemendik hurbil badela etxeren bat?» «Ba, haizea alderdi horretatik datorrelako —erantzun zidan bidaztiak—; ke-usaina aditzen dut, dudarik gabe herrixkaren bat dago inguru horretan». Txundituta utzi ninduten haren zolitasunak eta usaimen zorrotzak. Abian jartzeko agindu nion kotxezainari. Zaldiak nekez mugitzen ziren elur sakonean. Kibitka astiro zihoan, noiz elur-piletara igoaz, noiz sakonuneetan sartuz, alde batera eta bestera zabuka. Itsasontzia zirudien itsaso zakarrean nabigatzen. Savelitx aieneka zihoan, joka eta joka nire saihetsen kontra. Leihoko oiha-la jaitsi, berokian bildu, eta lotan geratu nintzen ekaitzaren doinuak urrumaturik eta ibiltze geldiak kulunkatuta.

Amets egin nuen. Sekula ez zait ahaztuko amets hura eta, oraindik ere, zerbait profetikoa antzematen diot neure bizitzako gertaera bitxiekin alderatzen dudan bakoitzean. Barkamena eskatu behar diot irakurleari: segur aski, esperientziak berak erakutsi dio gizakia zein erraz lerratzen den superstiziora, nahiz eta askotariko



argudioak erabiltzen dituen sineskeriak arbuia-  
tzeko.

Alegiazkoak egiazkoa menperatzen duen eta loaldiaren hasierako ikuspen lausoetan errealitatea ametsekin nahasten den egoera horretan nituen hala sentimenak nola arima. Iruditu zitzaidan elur-ekaitzak bortizki jotzen zuela oraindik eta gu noraezean genbiltzala elurrak estalitako lautada inor gabea... Tupustean, atea ikusi eta gure etxaldeko larrain nagusian sartu nintzen. Aurrena, beldurrak jota pentsatu nuen aita biziki haserretuko zela nirekin, zeren, gurasoen teilapearen babesera halabeharrez itzulia banintzen ere, berariaz desobeditu niola uste izango baitzuen. Estu eta larri, jauzi batez jaitsi nintzen kibitkatik, eta ikusi nuen ama nire zain zegoela atarian eta haren itxurak sakoneko nahigabea adierazten zuela. «Zaratarik ez atera —esan zidan—, aita gaixorik zegok, hilzorian, eta azken agurra egin nahi dik». Ikarak hartuta, amaren atzetik joan nintzen logelara. Argi ahula zegoen eta aurpegiera tristeko jende-multzo batek inguratzen zuen ohea. Poliki hurbildu nintzen; amak ohe-errezelak jaso eta hala esan zuen: «Andrei

Petrovitx, Petrusha etorri da; etxera itzuli da gai-xorik zaudela jakin duenean; bedeinka ezazu». Belauniko jarri, eta gaixoarengan finkatu nituen begiak. Hara!, aitaren ordeztu mujik bizar-beltz bat ikusi nuen ohean etzanda, alaitasunez niri begira. Nahasirik, amarenganantz jiratu eta hala esan nion: «Zer esan nahi du honek? Hau ez da aita. Zer dela-eta eskatu behar diot bedeinkapena mujik bati?» «Berdin zioke, Petrusha —erantzun zidan amak—, hire aitabitxia duk; muin egin eskuan eta bedeinkatzeko esan...» Ez nintzen bat etorri. Orduan, mujika jauzi batez altxatu zen ohetik, bizkar atzetik aizkora atera eta hor hasi zen jo eta jo bazterrik bazter. Korrika egin nahi nuen... baina ezin; hilotzez bete zen gela; gorpuetan behaztopatzen nintzen eta labain egiten nuen odol-putzuak zapaltzean... Mujik ikaragarriak samurki deitzen zidan, hala esanez: «Ez izan beldur, hurbil hadi nire bedeinkapena hartzera...» Izua eta nahasmendua jabetu ziren nitaz... Eta une horretan, esnatu egin nintzen. Zaldiak geldirik zeuden; Savelitx besotik tirakari zitzaidan, hala zioela: «Irten zaitez, jauna: iritsi gara».

— Nora iritsi gara? —galdetu nion, begiak igurtziz.

— Ostatura. Jainkoaren laguntzaz, murruren kontra jo dugu zuzen-zuzenean. Irten zaitez, jauna, zoaz lehenbailehen berotzera.

Kibitkatik jaitsi nintzen. Ekaitza ari zuen artean, baina indar gutxiagoz jotzen zuen. Leize-zulorik ilunenean baino ilunago zegoen kanpoan. Ugazaba gure zain zegoen atean, longainaren barrenen azpian argiontzari eusten ziola, eta gela txiki baina nahikoa garbi batera eraman ninduen. Zuzi batek argitzen zuen. Fusila eta txano kosako garai bat zeuden horman esekita.

Ugazaba Jaik ibaiko kosakoa hirurogei urte inguruko gizasemea zen, artean sasoikoa eta adoretua. Savelitxek kaiza ekarri zidan eta sua eskatu zuen tea prestatzeko. Inoiz ez nion edari horri orduan bezain premiazko iritzi. Ugazaba bere zereginetara joan zen.

— Non da gidaria? —galdetu nion Savelitxi.

«Hemen nauzu, jaun ohoragarria», erantzun zidan ahots batek goitik. Sabai aldera begiratu eta bizar beltz bat eta begi distiratsu bi ikusi nituen. «Zer, adiskidea, izoztuta?» «Nolatan ez

naiz ba izoztuta egongo oihal zakarrezko beroki mehe honekin? Zamar ederra neukan, baina, zergatik ezkutatuko dizut egia?, bahian eman nion atzo tabernari bati: ez zuen ematen horren hotz handia egingo zuenik». Une hartan, ugazabak sartu zen, samovarra borborka zekarrela. Kikara bete te eskaini nion gidariari; sabaitik jaitsi zen. Haren itxura berezi samarra iruditu zitzaidan: berrogei bat urteko mujika zen, goibehetainekoa, argala eta bizkar-zabala. Ile-xerlo urdinak zituen bizar beltzean; etengabe mugitzen zituen begi handi biziak. Haren aurpegiera nahikoa atsegina zen, baina maltzurra. Ilea biribil moztuta zeukan; oihal zakarrezko beroki maiztua eta galtza bonbatxo tatariarrak zituen soinean. Kikara tea luzatu nion; dastatu eta bekainak okertu zituen. «Jaun ohoragarria, egidazu mesede handi bat: baso bete vodka ekartzeko agindu, tea ez da edari gisakoa guretzat kosakoontzat». Gogo onez bete nuen haren nahia. Ugazabak edalontzia eta litro eta erdiko botila hartu zituen arastatik, gidariarengana hurbildu eta aurpegira begiratu zion: «Hara! —esan zion—, osterera ere inguru hauetan! Nondik ekarri

hau Jainkoak oraingoan?» Gidariak keinu adierazgarria egin zidan eta esaera zahar batez erantzun zion: «Soroan ibili nauk hegan eta kalamu-hazi gozoak mokokatu ditiat han; atso zaharra harrika hasi zaidak, baina huts egin dik. Eta zer moduz zuenak?»

— Gureak! —erantzun zion ugazabak, alegiazko elkarrizketari segida emanetz—. Elizako kanpaiak bezperetarako deika hasi zituan, baina popearen emazteak isiltzeko agindu zian: popea kanpoan zuan eta deabruak, berriz, kanposantuan.

«Ixo, adiskidea —ihardetsi zuen nire lagun ibiltariak—, euri lanbroa zekarrek eta perretxikoak erruz haziko dituk; eta perretxikoak badaude, izango diagu non bildu. Eta orain (keinua egin zidan berriro) bizkar atzean ezkuta ezak aizkora, basozainak hemen zabilzak eta. Osasuna, jaun ohoragarria!» Hori esandakoan, edalontzia hartu, aitaren egin, eta dzangada batez hustu zuen. Gero, buru-makurtua egin zidan eta sabai aldera itzuli zen.

Orduan ez nuen inondik inora ulertu lapurren arteko elkarrizketa hura; baina gerora jakin nuen

Jaikeko kosakoen armadako kontuez ari zirela, garai hartan menperatu berria baitzen 1772. urteko matxinadaren ondoren. Savelitxek, itxuraz, oso atsekabeturik entzuten zuen. Errezeloz begiratzen zien, tarteka ugazabari eta tarteka gidariari. Ostatua —edo, hango hizkuntzan deitzen dioten bezala, *umeta*— lekutan zegoen, esteparen erdian, herrixka orotatik urrun, eta lapur-gordeleku baten antz handia zeukan. Baina ez zegoen ezer egiterik. Bideari ekitean pentsatze hutsa ere zentzugabekeria zatekeen. Biziki jostatzen ninduen Savelitxen urduritasunak. Bitartean, gaua igarotzeko prestatu eta jarleku batean etzan nintzen. Savelitxek berontziaren gainean leku hartzea erabaki zuen, eta ugazaba, berriz, lurrean etzan zen. Luze gabe, izba osoa zurrungaka hasi zen, eta nik harria baino lo gogorragoa hartu nuen.

Biharamun goizean, berandu samar esnatu nintzen, eta ikusi nuen ekaitza baretua zela. Eguzki distiratsua zegoen. Elurak bere soineko itsugarriaz jantzirik zeukan estepa amaigabea. Zaldiak tresnaturik zeuden. Zorrak ordaindu nizkion ugazabari, eta horren alokairu merkea

eskatu zigun, non Savelitxek berak ere ez baitzuen tutik esan: ohi ez bezala, ez zen merke-zuhurrean hasi, eta bezperako mesfidantza erabat aienatu zitzaion burutik. Gidariari deitu nion, laguntza eskertu eta berrogeita hamar kopek emateko agindu nion Savelitxi, eskupeko gisa. Savelitxek bekozko iluna jarri zuen. «Berrogeita hamar kopek eskupeko! —esan zuen—. Zergatik? Ostaturaino ekartzeko mesedea egin diozulako? Nahi duzun bezala, jauna, baina ez daukagu diru askorik aldean. Mundu guztiari eskupekoak ematen hasiz gero, luze gabe zuri egokitu-ko zaizu goseak amorratzen egotea». Ez neukan Savelitxekin eztabaidatzerik. Dirua, hala hitz emana nion eta, haren eskumendean zegoen erabat. Hala ere, amorrua ematen zidan gizon hura saritu gabe alde egiteak, zeren, inolako ezbeharretik salbatu ez baninduen ere, gutxienez, oso egoera gogaikarritik atera baininduen. «Ondo da —esan nuen neure burua menperatuz—, ez baduzu dirua ukitu nahi, emaiozu nire jantzietako bat. Arinegi jantzita doa. Emaiozu erbi-larruzko tulupa».

— Jainkoarren, Piotr Andreitx maitea! —esan zidan Savelitxek—. Zertarako behar du zure erbi-larruzko tulupa? Zakur horrek vodka erosteko salduko du edozein tabernatan.

— Aizu, zaharra, zuri bost axola vodka erosteko salduko dudan ala ez —esan zion nire ibildanak—. Zure nagusiak bere berokia oparitu nahi dit: hori da jaunaren nahia, eta morroiak txintik atera gabe obeditu behar du.

— Ez zara Jainkoaren beldur, lapurra halakoa! —erantzun zion Savelitxek, doinu haserrez—. Ikusi duzu oraindik ezagueran sartu gabeko haurra dela, eta atsegin zaizu lapurreta egitea haren lañotasunaz baliaturik. Zertarako nahi duzu zuk jaunaren tulupa? Sartu ere ez zaizu egingo zeure sorbalda zikinetan.

— Azkarrarena ez egin gero —esan nion haurtzainari—, ekar ezazu tulupa oraintxe bertan.

— Nagusi jauna! —esan zidan Savelitxek intzirika—. Erbi-larruzko tulupa berri-berria da! Nori eta mozkor ziztrin bati eman behar diozu jantzi garesti hori?



Hala eta guztiz, agertu zen erbi-larruzko tulu-  
pa. Mujikak berehala ekin zion probatzeari. Nik  
estu neukan ordurako eta, izan ere, txiki sama-  
rra zen gidariarentzat. Baina nola edo hala janz-  
teko modua aurkitu zuen, josturak zarrastaturik.  
Savelitx ozta-ozta ez zen uluka hasi harien kirriz-  
ka entzun zuenean. Gidaria izugarri pozik zego-  
en nire opariarekin. Kibitkaraino lagundu eta  
hala esan zidan, kilimusi handia eginez: «Eske-  
rrik asko, jaun ohoragarria! Jainkoak sarituko  
ahal du zure ontasuna. Ez dut sekula ahaztuko  
egintza on hau». Bere aldetik joan zen. Nik  
aurrera jo nuen, Savelitxen haserreari jaramonik  
egin gabe, eta berehala ahaztu nituen bezpera-  
ko elur-erauntsia, gidaria eta erbi-larruzko tulu-  
pa.

Orenburgera heldutakoan, zuzenean jo nuen  
jeneralarengana. Gizaseme garai baina zaharta-  
sunak jadanik makurtua ikusi nuen aurrean.  
Haren ilea luzea eta zuri-zuria zen. Uniforme  
zahar margulak Ana Joanovnaren garaiko gerra-  
gizonak ekartzen zituen gogora, eta ahoskerak,  
berriz, alemaniarren doinuaren kutsu nabaria  
zeukan. Gutuna eman nion. Aitaren izena ikusi,

eta begiratu arina egotzi zidan: «Ene Jainkoa! — esan zuen—. Badirudi oraindik orain Andrei Petrovitx zure adin berekoa zela, eta hara nola-ko seme-puska daukan jadanik! Ai ene! Denbora, denbora!» Gutuna zabaldu, eta irakurtzen hasi zen, ahotsa goratu gabe eta noizean behin bere iruzkinak tartekatzen zituela. «Andrei Karlovitx jaun txit agurgarria, uste osoa dut latin goren horrek»... Zer dela eta hainbeste zeremonia? Uf! Ez al dio lotsarik ematen? Jakina: diziplina jarri behar da ooren gainetik, baina gisakoa al da horrela idaztea *Kamerad* zahar bati?... «jaun goren horrek ez zuela ahaztuko»... jum... «eta... orduan... kapitain jeneral zendua... eta nola... Mün... kanpainan... eta gainera... Karolinka». Arraioa, *bruder!*, oraindik gogoan ditu antzinako gure bihurrikeriak? «Baina gatozen harira... Nire seme txoriburu hau bidaltzen dizut»... jum... «belar motzean eduki»... Zer ote da belar motzean edukitzea? Inondik ere, errusierazko esamolderen bat... Zer esan nahi du «belar motzean eduki» horrek? —errepikatu zuen, niri begira.

— Zera esan nahi du —erantzun nion, ahalik eta itxurarik lañoena harturik—: samur tratatzea, latzegia ez izatea, askatasun handia ematea, belar motzean edukitzea.

— Jum, ulertzen dut... «eta ez eman askatasun handirik»... ez, argi dago belar motzean edukitzeak ez duela hori esan nahi... «Honekin batera... nortasun-agiria»... Non dago? Ah, hemen... «Idatzi Semionovskira»... Ondo da, ondo da: dena egingo da... «Utz iezadazu zeremoniarik gabe besarkatzen eta... zure aspaldiko laguna eta adiskidea», hara!, azkenean asmatu du... eta abar eta abar... Tira, mutila —esan zuen gutuna irakurtzen amaitu ondoren eta nire nortasun-agiria alde batera utzita—, dena egingo dugu: ofizial joango zara \*\*\* errejimendura, eta, denborarik gal ez dezazun, bihar bertan abiatuko zara Bielogorskaia gotorlekura. Mironov kapitainaren agindupean egongo zara; gizon ona eta prestua da. Benetako zerbitzua zer den ikusiko duzu han, diziplina ikasiko duzu. Orenburgen ez dago zeregin askorik, eta aisia kaltegarria da jende gaztearentzat. Baina gaur, ongi etorria egin nahi dizut: zatoz nire etxera bazkari-legea egitera.

«Okerretik okerragora nabilek! —egin nuen heure artean—, zertarako balio izan dit artean amaren sabelean nengoela sarjentu gradua edukitzeak? Nora eraman nau horrek? \*\*\* errejimendura eta gotorleku urrun batera Kirgizia-Kaisatzeko estepen muturrean!...» Andrei Karlovitxen etxean bazkaldu nuen, berarekin eta beraren edekan zaharrarekin. Alemaniarren zuhurtasun zorrotzak erreinatzen zuen hango mahaian, eta uste dut bere jangela hutsean noizean behin soberako gonbidatu bat ikusteak eragiten zion ikara izan zela, neurri batean, horren presa handiz ni goarnizio urrun hartara bidaltzera mugitu zuen arrazoia. Biharamunean, jeneralari agur egin eta heure jomugara abiatu nintzen.

### III. atala

# GOTORLEKUA

*Gotorlekuan bizi gara,  
jateko ogia, edateko ura;  
etsai ankerrak badatoz  
gozokirik eskatzeko asmoz,  
metraila-opil ugari  
emango diegu janari.*

Soldadu-kanta

*Antzinako jendea da, lagun maitea.  
Adinez txikia*

Bielogorskaia gotorlekua Orenburgetik berrogei verstara zegoen. Bidea Jaiken ertz malkartsutik zihoan. Ibaia ez zegoen artean izoztuta, eta uhin berunkarak beltz eta triste hausten ziren elurak zuriz jantzitako ibaiertz beti-berdinetan, zeinen atzean Kirgiziako estepak hedatzen baitziren. Pentsakor nindoan, gogoeta gehienbat goibeletan murgilduta. Goarnizioko bizitza ez

zitzaidan oso erakargarria iruditzen. Laster buruzagi izango nuen Mironov kapitaina irudikatzen saiatu nintzen, eta kontu egin nuen gizon latza izango zela, agure erretxina, zerbitzua beste ardurarik ez zuena eta beti prest egongo zena edozein huskeriagatik atxilotu eta ogi eta ur hutseko barauan jartzeko. Bitartean, iluntzen hasi zuen. Nahiko arin gindoazen. «Gotorlekutik urrun gaude?», galdetu nion kotxezainari. «Ez, ez gaude urrun —erantzun zidan—, hortxe ikusten da jadanik». Alderdi guztietara begiratu nuen, bastioi beldurgarriak, dorreak eta harresia non azalduko; baina enbor-hesi batek inguratu-tako herrixka besterik ez nuen ikusi. Alde batean hiruzpalau belar-meta zeuden, elurrak erdi estalita; beste aldean, errota okertu bat, zuhaitz-azalezko hegalk nagiki apalduta. «Non da gotorlekua?», galdetu nuen harrituta. «Hortxe bertan», erantzun zidan kotxezainak, herrixka seinalatzen zidala, eta, hitz horiek esateaz batera, kale artean sartu ginen. Burdinurtuzko kanoi zahar bat ikusi nuen sarrerako atean; kaleak estuak eta bihurriak ziren; izbak, berriz, zapalak eta lastoz estaliak gehienak. Komandantearengana

eramateko agindu nuen, eta, handik gutxira, kibitka zurezko etxetxo baten aurrean gelditu zen. Leku garai batean eraikita zegoen, zurezko elizatik hurbil.

Ez zen inor irten harrera egitera. Ataurrera inguratu eta ezkaratzeko atea zabaldu nuen. Elbarri zahar bat, mahai gainean eserita, adabaki urdina josten ari zitzaion ukondoan uniforme berde bati. Bertan nintzela jakinarazteko agindu nion. «Sar zaitez, adiskidea —erantzun zidan elbarriak—, zeure etxean zaude». Antzinako erara jarritako gela garbi eta txukun batean sartu nintzen. Zoko batean ontzietarako armarua zegoen; horman esekita, ofizial-diploma bat, kristal eta guzti bere markoaren barruan; leihoetik hurbil antzinako xilografia batzuk ikusi nituen: Küstrin eta Otxakov gotorlekuen hartzea erakusten zuten, baita beste gai batzuk ere, hala nola emaztegaiaren hautaketa eta katuaren ehorzketa. Leiho alboan atso zahar bat zegoen eserita, kotoizko mantala soinean eta zapia buruan. Ofizial-uniformez jantzitako aguretxo begibakar batek eskutik eskura hedaturik zeukan mataza harilkatzen ari zen. «Zer nahi duzu,

jauna?», galdetu zidan bere zeregina bertan behera utzi gabe. Erantzun nion zerbitzurako iritsi berria nintzela eta kapitain jaunaren aurrera azaldu beharra nuela; eta, hori esaten ari nintzela, aguretxo begibakarrarenganantz jiratu nintzen, komandantea bera zelakoan; baina ugazabandreak eten egin zidan buruz ikasita neraman erretolika hura. «Ivan Kuzmitx ez dago etxean —esan zidan—, aita Gerasimi bisita egitera joan da; baina berdin dio, jauna, haren emaztea nauzu. Ongi etorri. Mesedez, eser zaitez». Neskameari deitu eta kosakoen sarjentuaren bila joateko agindu zion. Aguretxoak jakin-minez begiratu zidan bere begi bakarrarekin. «Barkaidazu ausarkeria —esan zidan—, baina... zein errejimendutan zerbitzatu duzu orain arte?» Jakin-mina nahikotu nion. «Barkaidazu ausarkeria —ekin zion berriro—, baina... zergatik utzi duzu guardia goarnizio honetara etortzeko?» Erantzun nion horixe izan zela agintarien nahia. «Segur aski, guardiako ofizial batek gisako ez dituen egintzak izango dira tartean», jarraitu zuen galde-ontzi aseezinak. «Utziozu lelokeriak esateari —errieta egin zion kapitainaren emaz-



teak—, ez al duzu ikusten mutil gazte hau bideak nekatuta dagoela; ez dago zure galderei erantzuteko... (jaso itzazu eskuak gorago...). Eta zu, adiskidea —gaineratu zuen niganantz jiratuta—, ez tristatu urruneko bazter galdu honetara bidali zaituztelako. Ez zara ez lehena eta ez azkena. Bertoko bizimodura moldatzen zarenean, gustatu egingo zaizu. Aleksei Ivanitx Shvabrin, esaterako, orain dela bost urte ekarri zuten hona gizon bat hil zuelako. Jainkoak daki zein deabruk tentatu zuen; entzun, gogorik baduzu, zer gertatu zen: hiritik irten eta aldirietara joan zen teniente batekin, nork bere sablea atera eta borrokan hasi ziren biak; Aleksei Ivanitxek tenientea hil zuen, eta bi lekukoren aurrean gainera! Zer deritzozu? Bekatu egin, eta gainera txarto».

Une hartan, sarjentua sartu zen. Kosako gazte eta lerdena zen. «Maximitx! —esan zion kapitainaren emazteak—, bila ezazu bizitegiren bat ofizial jaunarentzat, baina leku garbi eta txukuna aurkitu gero!» «Zure esanetara, Vasilisa Jegorovna —erantzun zuen sarjentuak—. Ondo baderitzozu, Ivan Polejaieven etxera eramango

dut jaun ohoragarri hau». «Ergelkeriarik ez, Maximix —esan zion kapitainaren emazteak—, Polejaievenean estu samar daude; gainera, nire laguna da, eta beti gogoan izaten du geuk agintzen dugula hemen. Eraman ofizial jauna... zein dira zure izena eta patronimikoa, adiskidea? Piotr Andreitx?... Eraman Piotr Andreitx jauna Semion Kuzoven etxera. Lehengoan alproja horrek soroan sartu zidan zaldia. Eta zer, Maximix, ondo doa dena?»

— Jainkoari eskerrak, lasai dago dena —erantzun zuen kosakoak—, bainu-etxean Prokhorov kabua Ustinia Negulinarekin liskartu da pegar bete ur bero zela eta ez zela, besterik ez.

— Ivan Ignatix! —esan zion kapitainaren emazteak aguretxo begibakarrari—. Argitu Prokhoroven eta Ustiniaren arteko auzi hori, ea nork duen arrazoia eta nork errua. Baina biak zigortu. Tira, Maximix, zoaz Jainkoarekin. Piotr Andreitx, Maximixek zeure bizitegira eramango zaitu.

Agur egin nien. Kosakoen sarjentuak ibaiaren ertz garaian, gotorlekuaren muturrean bertan zegoen izba batera eramanez ninduen. Semion Kuzoven familiak izbaren erdia hartzen zuen, eta

gainerakoa niri utzi zidaten. Izbak gela bakarra zeukan, nahikoa txukuna, holtz batek bitan banatua. Savelitx gure gauzak antolatzen hasi zen; ni, berriz, leihatila estutik begira jarri nintzen. Nire aurrean estepa tristea hedatzen zen. Alde batean, txabola-multzoa zegoen; oilo batzuk hara-hona zebiltzan kolean. Atso zahar bat, treska eskuan zuela etxeko ataurrean zutik, deika ari zitzaien txerriei, eta hauek adiskidetsu erantzuten zioten kurrinka eginez. Hara nolako lekura bidalia ninduten gaztaroa igarotzera! Tristurak hartu ninduen; leihatilatik aldendu, eta afaldu gabe oheratu nintzen, Savelitxen erre guak aintzat hartu gabe, nahigabeturik errepikatzen baitzidan: «Nagusi jauna, arren, jan ezazu zerbait! Zer esango du andereak semea gaixotzen bazaio?»

Biharamun goizean, janzten hasi berria nintzela, atea ireki zen eta goibehe ertaineko ofizial gazte bat sartu zen. Haren aurpegia beltzarana eta ikaragarri itsusia zen, baina bizitasun handikoa. «Barkatu —esan zidan frantsesez— batere zeremoniarik gabe zure ezaupidea egitera azaldu izana. Atzo jakin nuen iritsi berria zinela, eta

azkenean giza aurpegi bat ikusteko irrika hain biziki jabetu zen nitaz, non ezin izan baitiot etortzeko gogoari eutsi. Ulertuko duzu berton denboraldi bat eman ondoren». Igarri nion dueluaren kariaz guardiatik iraitzitako ofiziala zela. Elkar aditu genuen berehala. Shvabrin ez zen inondik ere ergela. Haren hizketa zorrotza eta interesgarria zen. Oso era barregarrian deskribatu zizkidan komandantearen familia, lagunak eta nolako tokira eramana ninduen patuak. Gogotik barre egiten ari nintzela, komandantearen etxeko ezkaratzean uniformeak konpontzen ari zen elbarriak gelan sartu eta, Vasilisa Jegorovnaren izenean, beronen etxean bazkaltzera gonbidatu ninduen. Shvabrinek bere burua eskaini zuen nirekin joateko.

Komandantearen etxera hurbiltzen ari ginela, hogeit hamar elbarri ikusi genituen plazatxo batean, ile-korda luzeekin eta hiru puntako kapelekin. Lerrokaturik zeuden elkarren aldamean, komandantea aurrean zutela. Agure kementsu eta garaia zen, etxeko txanoaz eta Txinako txabusinaz jantzia. Ikusi gintuenean, gugana hurbildu zen, hitz samur batzuk esan ziz-

kidan eta aginduak emateari ekin zion berriro. Han gelditu ginen trebatze-ariketak ikusteko asmoz, baina komandanteak Vasilisa Jegorovna-rengana joateko eskatu zigun, bera geroxeago joango zela hitz emanez. «Gainera —erantsi zuen—, hemen ez duzue zer ikustekorik».

Vasilisa Jegorovnak konplimendurik gabe eta xeratsu hartu gintuen, eta betidanik ezagutuko banindu bezala tratatu ninduen. Elbarria eta Palashka mahaia ipintzen ari ziren. «Gogotik ekin die gaur nire Ivan Kuzmitxek trebatze-ariketari! —esan zuen komandantearen emazteak—. Palashka, esan jaunari bazkaltzera etortzeko. Eta non da Masha?» Orduan, hamazortzi urte inguruko neska bat sartu zen, aurpegi biribil eta azal zurigorrikoa. Ilea, leuna eta gaztaina kolore argikoa, atzerantz orraztuta zeukan. Belarriak agerian geratzen zitzaizkion, eta bazirudien sutan zituela. Lehen begiratuan ez zitzaidan oso erakargarria iruditu. Errezeloz begiratzen nion: Shvabrinek egindako deskribapenaren arabera, Masha, kapitainaren alaba alegia, tuntun hutsa zen. Maria Ivanovna zoko batean eseri eta josten hasi zen. Bitarte hartan, barazki-zopa zerbitzatu

zuten. Vasilisa Jegorovnak, senarra artean iritsi gabea zela ikusirik, berriro bidali zuen Palashka haren bila. «Esaiozu jaunari gonbidatuak zain daudela eta zopa hoztu egingo dela; Jainkoari eskerrak, ariketek ez diote ihes egingo; izango du denbora eztarria urratu arte nahi beste oihu egiteko». Handik gutxira agertu zen kapitaina, aguretxo begibakarra lagun zuela. «Hau bai hau, gizona! —esan zion emazteak—. Aspaldi da bazkaria prest dagoela, deika eta deika aritu naiz eta zu etorri ez». «Vasilisa Jegorovna —erantzun zion Ivan Kuzmitxek—, badakizu lanpetuta nengoela soldadutxoei irakasten». «Tira, tira! —ihardetsi zuen emazteak—. Irakasbide ederra eman-go diezu zuk soldaduei: haiei bost axola die zerbitzuak, eta zuk, berriz, zertan ari zaren ere ez dakizu. Hobe zenuke etxean geratu Jainkoari otoitz egiten. Gonbidatu maiteok, eser zaitezte, mesedez».

Bazkaltzera eseri ginen. Vasilisa Jegorovna ez zen unetxo batez ere isildu eta galderaz josi ninduen: nor nituen gurasoak, bizirik al zeuden, non bizi ziren eta ea diru asko zeukaten. Aita hirurehun nekazariren jabe zela entzutean, jaregin

zuen: «arin esaten da gero, izan ere bada jende aberatsik munduan. Ba guk, adiskidea, Palashka neskatoa beste miraberik ez daukagu, eta, Jainkoari eskerrak, hala-hola bada ere, moldatu egingen gara. Ez behar bakarra daukagu: Masha; neska ezkontzeko sasoian dago, eta zer ezkon-sari emango diogu? Orrazia, erratza eta hiru kopekeko txanpon bat (Jainkoak barka diezadala!) bainu-etxerako. Gauza ona litzateke gizon jator bat aurkitzea; bestela neskazahar geratuko da bizitza osorako». Begiratu bota nion Maria Ivanovnari; gorri-gorri jarri zen eta negar-malko batzuk isuri zituen platerera. Pena eman zidan, eta berehalakoan aldatu nuen mintzagaia. «Entzuna dut —esan nuen, harira ez bazetorren ere—, bashkirek gotorlekuari erasotzeko asmoa dutela». «Eta non entzun duzu hori, adiskidea?», galdetu zidan Ivan Kuzmitxek. «Hala esan zidaten Orenburgen», erantzun nion. «Lelokeriak! —esan zuen komandanteak—. Guk aspalditik ez dugu horrelakorik entzun. Bashkirak koldarrak dira, eta kirgizak, berriz, zentzatuta ditugu. Segur aski ez dira hona inguratzen ausartuko, baina sudurra agertzen badute astindu ederra

emango diet, eta bakea izango dugu hamar bat urterako». «Eta zuri ez dizu beldurrik ematen — jarraitu nuen, kapitainaren emazteari begira— gotorlekuan bizitzeak horrenbeste arriskuz inguratuta?» «Ohituta nago, adiskidea —erantzun zidan—. Badira hogeitun urte errejimentetik hona bidali gintuztela, eta Jainkoak badaki norainoko beldurra nien hasieran jainkogabe madarikatu horiei! Sinetsiezadazu, adiskidea, haien kata-motz-laruzko txanoak antzeman bezain laster, haien ulu ozenak aditze hutsarekin, gelditu egiten zitzaidan bihotza! Baina orain guztiz ohituta nago, eta lekutik mugitu ere ez naiz egiten gaizkile horiek gotorlekuaren inguruan dabiltzala esaten didatenean».

— Vasilisa Jegorovna oso emakume ausarta da —ohartarazi zuen Shvabrinek arrandiro—. Ivan Kuzmitxek egiazta dezake hori.

— Bai, zuzen zaude —esan zuen Ivan Kuzmitxek—, ez da emakume beldurtia.

— Eta Maria Ivanovna? —galdetu nuen—. Zu bezain ausarta da?

— Masha ausarta? —erantzun zidan haren amak—. Ez, Masha oso beldurtia da. Oraindik



ezin ditu entzun ere egin armen tiro-hotsak: dar-  
daraz hasten da. Orain dela bi urte, nire egu-  
nean, gure kanoiarekin tiro egitea bururatu  
zitzaion Ivan Kuzmitxi, eta bera, nire laztana,  
hainbeste ikaratu zen, non ozta-ozta ez zitzaigun  
beste mundura joan. Harrezkeroztik ez dugu tiro  
egiten kanoi madarikatu horrekin.

Mahaitik altxatu ginen. Kapitaina eta emaz-  
tea lotara joan ziren; nik Shvabrinen etxera jo  
nuen eta berarekin eman nuen arratsaren gaine-  
rako.

# IV atala

## DUELUA

*Tira, zoaz eta jar zaitez zeure tokian,  
ikusiko duzu nola gorputza zulatzen dizudan.*

Kniajnin

Aste batzuk joan ziren, eta Bielogorskaia gotorlekuko bizitza, eramangarria ez-ezik, atsegina ere bilakatu zen niretzat. Komandantearen etxean, senitartekoa banintz bezala tratatzen ninduten. Senar-emazteak guztiz agurgarriak ziren. Ivan Kuzmitx —soldadu baten semea izatetik ofizial izatera iritsia— gizon ezikasía eta landugabea zen, baina zintzo-zintzoa eta on hutsa. Arduragabea izaki, emazteak nahierara maneiitzen zuen. Vasilisa Jegorovna etxeko zereginez bezainbeste arduratzen zen zerbitzuko gora-beherez, eta etxea balu bezala gobernatzen zuen gotorlekua. Maria Ivanovnak laster gainditu zuen niganako beldurra. Lagun egin

ginen. Neska zentzuduna eta sentibera zela antzeman nion. Ohartu gabe, atxiki egin nintzaion familia jator hari, baita Ivan Ignatitx goarnizioko teniente begibakarrari ere. Shvabrinek haren lepotik asmatua zuen gisakoak ez ziren harremanak zituela Vasilisa Jegorovnarekin. Egiaren antz-izpirik ere ez zuen kontu horrek, baina Shvabrini berdin zion.

Ofizial egin ninduten. Zerbitzua ez zen zama astuna niretzat. Zorioneko gotorleku hartan ez zegoen ez ikuskapenik, ez trebatze-ariketarik, ez zaintze-lanik. Noizean behin, gogoak hala ematen zionean, komandanteak soldaduak trebatzen zituen, baina artean ez zuen lortu guztiek jakitea non zuten eskuina eta non ezkerra, nahiz eta haietako askok, ez okertzeko, gurutzearen seinalea egin jiratu behar zuten bakoitzean. Shvabrinen etxean frantsesezko liburu batzuk zeuden. Irakurtzeari ekin nion, eta literaturarako zaletasuna sortu zitzaidan. Goizean, irakurri eta itzulpengintzan trebatzen nintzen, eta poemak idazten nituen noizean behin. Ia beti, komandantearen etxean bazkaltzen nuen, eta bertan eman ohi nuen egunaren gainerakoa. Batzuetan,

gauean, aita Gerasim azaltzen zen emaztearekin. Akulina Pamfilovna zuen izena eta inguruko nonzeberririk handiena zen. A.I. Shvabrinekin, noski, egunero elkartzten nintzen; baina gero eta gogaikarriago irizten nion haren solasari. Ez nituen batere gogoko komandantearen familia-  
ren lepotik etengabe egiten zituen txantxak eta, batez ere, Maria Ivanovnari buruzko iruzkin mingarriak. Gotorlekuan ez zegoen beste lagunarterik, baina ez nuen bestelakorik nahi.

Iragarpenak gora-behera, bashkirak ez ziren matxinatu. Lasaitasuna zen nagusi gotorlekua-  
ren inguruan. Baina, ustekabean, lagun arteko istilu batek hautsi zuen bakea.

Lehentxeago esan dudanez, literaturan aritzen nintzen. Nire saioak onak ziren garai horretarako, eta Aleksei Petrovitx Sumarokovek sutsuki goraipatu zituen zenbait urte geroago. Behinola, gogobeterik utzi ninduen abesti labur bat idaztea lortu nuen. Gauza jakina da autoreek, batzuetan, aholku eske doazelako itxurak eginez entzuleengana jotzen dutela haien oniritziaren bila. Halatan, abestitxoa kopiatu, eta Shvabrini eraman nion, gotorleku osoan bera

nuen-eta poeta baten lana balioesteko gauza zen bakarra. Aitzinsolas labur baten ondoren, koadernoak sakelatik atera eta bertso hauek irakurri nizkion:

*Maitasunaren ideia burutik baztertuz  
eta, ai!, Masha saihestuz  
saiatzen naiz neure ederra ahazten,  
eta aske naizela dut amesten.*

*Baina haren begiek gatibu naukate,  
nahigabez arima betetzen didate,  
ikusten baditut, dirdirka, aurrean  
bihotza lehertzen zait barnean.*

*Badakizu nire zoritxarra zein den,  
erruki zaitez, Masha, arren,  
badakizu, Masha, zure gatibu naizela,  
arindu, mesedez, nire zori krudela.*

— Zer deritzozu? —galdetu nion Shvabrini, eta gorespenaren zain geratu nintzen, ezinbestean ordaindu behar zidan saria bailitzan. Baina Shvabrinek, bihozbera jokatu ohi bazuen ere,

argi eta garbi adierazi zidan nire abestia txarra zela, eta biziki atsekabetu ninduen horrek.

— Zergatik? —galdetu nion, atsekabea barnean gordeaz.

— Ba —erantzun zidan—, bertso horiek Vasili Kirilitx Trediakovski nire irakasleak egiten zituenen parekoak direlako, eta biziki gogorazten dizkidatelako berak idatzitako amodiozko koplatak.

Orduan, koaderno hartu, eta bertso eta hitz guztiak banan-banan aztertzen hasi zen gupidarik gabe, modurik mingarrienean nire lepotik trufa eginez. Ezin izan nuen jasan. Koaderno eskutik kendu, eta esan nion ez nizkiola inoiz neure idazlanak erakutsiko berriro. Shvabrin barrez lehertu zen mehatxu horren aurrean. «Ikusiko dugu ea zeure hitzari eusteko gai zaren —esan zidan—. Ivan Kuzmitxek bazkaldu aurretik pitxerdi bete vodka nola, halaxe behar dituzte poetek entzuleak. Eta nor da zeure maitasun sutua eta bihotzeko oinazeak aitortzen dizkionzun Masha hori? Maria Ivanovna ote?»

— Zuri bost axola Masha hori nor den —erantzun nion, bekozko iluna jarrita—. Ez ditut ezertarako behar ez zure iritziak eta ez zure aieruak.

— Horratx! Hona poeta buruiritzia eta maitale apala! —ekin zion berriro Shvabrinek, nigan gero eta sumin biziagoa piztuz—. Entzun adiskidene baten aholkua: neska lortu nahi baduzu, utziozu abestiak idazteari.

— Zer esan nahi duzu, jauna? Azal iezadazu, mesedez.

— Atsegin handiz. Ilunabarrean Masha Mironova zugana inguratzea nahi baduzu, poesia samurrak idatzi beharrean, hobe zenuke belarritako pareta opari egitea, hori esan nahi dut.

Borborka hasi zitzaidan odola.

— Eta zergatik darabilzu uste hori Maria Ivanovnaren gainean? —galdetu nion, gaitzidurari barnean nekez eusten niola.

— Arituaren arituaz haren ohituren berri daki-dalako —erantzun zidan infernuko irribarre maltzurra osaturik.

— Gezurretan ari zara, gizatxarra halakoa! — oihi egin nion amorruez—. Gezurretan ari zara modurik lotsagabeenean.

Aurpegia mudatu zitzaion Shvabrini.

— Hori ez dizut inondik inora onartuko! — esan zidan, besoa estutuz—. Garbitu egin behar-ko duzu irain hau.

— Bai horixe, nahi duzunean! —erantzun nion pozarren. Bertantxe zati-zati eginda uzteko prest nengoen une hartan.

Ivan Ignatixengana jo nuen zuzenean. Orratza eskuan zerabilela aurkitu nuen: komandan-tearen emaztearen mandatuz, perretxikoak kor-datzen ari zen negurako lehortzen jartzeko. «Ah, Piotr Andreitx! —esan zuen ni ikustean—. Ongi etorri! Zer dela-eta hemendik? Barkaidazu ausarkeria, baina... zerk ekarri zaitu?» Labur azaldu nion Aleksei Ivanitxekin izandako liskar-raren nondik norakoa, eta dueluan nire laguntzai-lea izan zedin eskatu nion. Ivan Ignatixek arre-taz entzun zidan, begi bakarra zabal-zabalik zuela. «Zer esan nahi duzu? —galdetu zidan—, Aleksei Ivanitx hiltzeko asmoa duzula eta ni horren lekuko izatea nahi duzula? Barkaidazu ausarkeria, baina... hori da kontua?»

— Horixe bera.



— Tira, tira, Piotr Andreitx! Horrelakorik bururatzea ere! Sesioa izan duzu Aleksei Ivanitxekin? Hori ez da beste munduko ezbeharra! Irainen zama berehala arintzen diren horietakoa da. Berak iraintzen bazaitu, zuk hitz gordinez erantzun; muturra berotzen badizu, eman zartako bat belarrian, edo bi, edo hiru; eta gero, elkarrengandik aldendu, guk adiskidetuko zaituztegu berriro. Barka ezazu ausarkeria, baina esadazu, mesedez, bidezkoa iruditzen zaizu lagun hurkoari bizia kentzea? Eta gaitz erdi zuk bera hilko bazenu: Jainkoak gorde dezala Aleksei Ivanitx; egia esan, nik ere ez dut oso begiko. Baina, eta berak zu garbitzen bazaitu? Zer gertatuko litzateke orduan? Barkaidazu ausarkeria, baina... nor uste duzu geratuko litzatekeela galtzaile?

Teniente zentzudunaren argudioek ez ninduten bigundu. Tinko eutsi nion neure asmoari. «Nahi duzun bezala —esan zuen Ivan Ignatitxek—, egizu gogoak ematen dizuna. Baina nik zergatik izan behar dut horren lekuko? Zer dela eta? Barkaidazu ausarkeria, baina horren gauza bitxia al da bi gizon borrokan ikustea? Jainkoari

eskerrak, suediarren eta turkiarren aurka borrokatu naiz, eta denetarik ikusi dut».

Senperrenak egin nituen laguntzailearen egitekoa zertan zen azaltzeko, baina Ivan Ignatitx ez zen nire argibideak ulertzeko gauza. «Egizu nahi duzuna —esan zidan—. Baina auzi honetan nahasten banauzu, beharbada, Ivan Kuzmitxengana joko dut eta, zerbitzuko legea beteaz, jakinaraziko diot estatuaren interesen aurkako ekin-tza prestatzen ari direla isilka gotorlekuan, eta berak, beharrezko baderitzo, neurri egokiak hartuko ditu...»

Beldurrak hartu ninduen, eta komandanteari ezertxo ere ez esateko eskatzen hasi nintzaion Ivan Ignatitxi; nekez jarri nuen neure aldera; azkenean, hitz eman zidan, eta bakean uztea erabaki nuen.

Ohi nuenez, komandantearen etxean igaro nuen arratsaldea. Pozik eta kezka gabe agertzen ahalegindu nintzen, susmorik ez pizteko eta galdera gogaikarriak saihesteko; baina egia esan, falta nuen egoera horretan inoiz izan diren guztiek ia beti harrotasunez aldarrikatzen duten odol hotza. Arratsalde hartan, sentikor eta

samurtasunera makurtuta nengoen. Maria Ivanovna ohi baino atseginago nuen. Ikusten nuen azkeneko aldia izan zitekeelako ideiak zerbait bereziki hunkigarria eransten zion neure begietarako. Luze gabe, Shvabrin azaldu zen. Bazter batera eraman eta Ivan Ignatitxekin izandako elkarrizketaren berri eman nion. «Zertarako behar ditugu laguntzaileak? —zakartu zitzaidan—. Moldatuko gara haiek gabe ere». Duelua gotorleku alboko belar-meten atzean egitea erabaki genuen. Bertan elkartuko ginen biharamunean, goizeko zazpitan. Nonbait, horren adiskidetsu mintzatzen ari ginen elkarrekin, non, pozak eraginda, mihia askatu baitzitzaion Ivan Ignatitxi. «Oso ondo, bazen garaia —esan zidan, gogobeterik—, bake txarra gerra ona baino hobea da, osasuna ohorearen gainetik jarri behar da».

— Zer, zer, Ivan Ignatitx? —esan zuen komandantearen emazteak, gelako bazter batean kartetan ari baitzen—. Ez dizut entzun.

Ivan Ignatitx, egiten nizkion haserrezko keinuei erreparatuta eta agindutakoaz oroituta,

aztoraturik geratu zen, zer erantzun ez zekiela. Shvabrinek lagundu egin zion.

— Ivan Ignatitxek —esan zuen— bere onespena agertu digu adiskidetu egin garelako.

— Norekin etsaitu zara ba, jauna?

— Eztabaida gogor samarra izan dut Piotr Andreitxekin.

— Zer dela eta?

— Huskeria handi bat dela eta, Vasilisa Jegorovna: abestitxo bat.

— Arranopola!, nolatan liteke abestitxo batengatik inorekin etsaitzea?... eta nola gertatu da?

— Ba, honela: arestian Piotr Andreitxek abesti bat idatzi du; gaur nire aurrean irakurri du eta nik neure abestirik gogokoena kantatzeari ekin diot:

*Kapitainaren alaba,  
gauerdian ez atara...*

Eztabaida piztu da. Piotr Andreitx biziki haserretu da; baina azkenean, onartu egin du norbe-

rak gogoko duena kantatzeko eskubidea duela. Eta horrela amaitu da istilua.

Neure senetik ateratzeko zorian egon nintzen Shvabrinen lotsagabekeria ikusita; baina, nik izan ezik, inork ez zituen haren zirikada ozpinak ulertu; behinik behin, inork ez zien arretarik jarri. Abestitxotik poetetara lerratu zen elkarrizketa, eta komandanteak ohartarazi zigun poeta guztiak lizunak eta mozkor porrokatuak direla, eta adiskidetasunez adierazi zidan hobe nukeela bertsogintza bertan behera uztea, zerbitzuaren kontrako jarduera izateaz gain gauza onik ez zekarrelako.

Jasanezina zitzaidan Shvabrin han izatea. Luze gabe, agur egin nien komandanteari eta beronen familiari. Etxera heldutakoan, sablea arretaz aztertu, punta probatu, eta lotara joan nintzen, Savelitxi goizeko zazpiak jo baino lehen esnatzeko aginduta.

Biharamunean, hitzartutako orduan, belar-meten atzean nengoan aurkariaren zain. Handik gutxira azaldu zen bera ere. «Baliteke ustekabean harrapatzea —esan zidan—, azkar ibili behar dugu». Uniformeak erantzi eta, mahuka

hutsik, sableak biluztu genituen. Une hartan, bat-batean, Ivan Ignatitx agertu zen belar-metabaten atzetik, bost bat elbarri lagun zituela. Komandantearen etxera laguntzeko eskatu zigun. Haserre obeditu genion; soldaduz inguratuta, gotorlekura jo genuen Ivan Ignatitxen atzetik. Garaile-antzean zihoan taldearen buru, ibileran hantuste nabarmena zerabilela.

Komandantearen etxean sartu ginen. Ivan Ignatitxek atea ireki eta oso arrandiro aldarrikatu zuen: «Hona hemen!» Vasilisa Jegorovnak egin zigun harrera. «Ai ene, jaunak! Egundo horrelakorik! Zer gertatu da? Zer dela eta? Baina, nolatan liteke gure gotorlekuan bi lagunek elkar hiltzeko burutapena izatea? Ivan Kuzmitx, preso har itzazu oraintxe bertan! Piotr Andreitx! Aleksei Ivanitx!, ekarri zeuen sableak, ekarri, ekarri! Palashka, eraman sable hauek trastelekura. Piotr Andreitx!, ez nuen zugandik horrelakorik espero. Ez dizu lotsarik ematen? Ulertzekoa da Aleksei Ivanitxek horrelako gauzak egitea: gizon bat hiltzeagatik bota zuten guardiatik, eta, gainera, ez du Jainko Jaunagan

sinesten; baina zu bestelakoa zinelakoan nengoen, ala zuk ere bide horretatik jo duzu?»

Ivan Kuzmitx guztiz bat zetorren emaztearekin, eta hala zioen: «Entzun ondo, Vasilisa Jegorovnak arrazoi du. Armadako araudiak argi eta garbi debekatzen ditu dueluak». Bitartean, Palashkak gure sableak hartu eta trastelekura eramán zituen. Ezin izan nion barre egiteko gogoari eutsi. Shvabrin, aldiz, beti bezain harro ageri zen. «Zor dizudan errespetu guztiarekin —esan zion, odol hotzez, Vasilisa Jegorovnari—, ezin dut ohartarazi gabe utzi bidegabeki hartu duzula zeure gain gu epaitzeko lana. Utzi zeregin hori Ivan Kuzmitxen esku, berari dagokio eta». «Ai, jauna! —ihardetsi zuen komandantearen emazteak—, senar-emazteak ez al dira ba arima eta gorputz bat? Ivan Kuzmitx! Zeren zain zaude? Giltzapean sartu oraintxe bertan bi ergel hauek, gela banatan eta ogia eta ur hutsa beste jan-edanik gabe, ea behingoz zentzutzen diren. Eta gero, aita Gerasimek penitentzia ezarriko die, otoitz eginez Jainkoari barkamena eskatu eta damua agertuko dute guztien aurrean».

Ivan Kuzmitxek ez zekien zer erabaki hartu. Maria Ivanovna ikaragarri zurbil zegoen. Apurka-apurka, baretu egin zen ekaitza; komandantearen emazteak, lasaiturik, elkarri musu ematera behartu gintuen. Palashkak sableak ekarri zizkigun. Itxuraz adiskidetuta irten ginen komandantearen etxetik. Ivan Ivanitxek atzetik jarraitu zigun. «Ez dizu lotsarik ematen? —esan nion haserre—, horrelakorik egingo ez zenuela hitz eman zenidan arren, komandantearen aurrean salatu nauzu». «Jainkoa lekuko, nik ez diot ezer esan Ivan Kuzmitxi —erantzun zuen—. Vasilisa Jegorovnak atera dit kontua. Berak antolatu du dena komandanteak ezer jakin gabe. Dena dela, Jainkoari eskerrak, ondo amaitu da». Hori esandakoan, etxera itzuli zen, eta Shvabrin eta biok bakarrik geratu ginen. «Gure auzia ezin da horrela bukatu», esan nion. «Jakina —erantzun zidan Shvabrinek—, odolez garbitu behar duzu zeure ozarkeria; baina orain, segur aski, ez digute begirik kenduko. Egun batzuk eman beharko ditugu plantak eginez. Ikusi arte!» Eta elkarrengandik bereizi ginen ezer gertatu ez balitz bezala.



Komandantearen etxera itzuli nintzen eta, ohi nuenez, Maria Ivanovnaren aldamenean eseri nintzen. Ivan Kuzmitx ez zegoen etxean; Vasilisa Jegorovna lanpetuta zebilen etxeko zereginetan. Gu biok solasean ari ginen ahapeka. Maria Ivanovnak samurtasunez kargu hartu zidan Shvabrinekin izandako istiluak guztiei eragin zien kezka-rengatik. «Sor eta lot geratu nintzen —esan zidan—, sableekin borroka egiteko asmotan zeundetela esan zidatenean. Bai arraroak gizonezkoak! Segur aski aste baten buruan guztiz ahaztuta edukiko luketen hitz batengatik, prest daude elkar hiltzeko eta, bizia ez-ezik, kontzientzia eta ingurukoen zoriona ere sakrifikatzen... Baina ziur nago liskarra ez zenuela zuk eragin. Ziur nago Aleksei Ivanitx izan dela erruduna».

— Eta zergatik uste duzu hori, Maria Ivanovna?

— Ba... zirizale hutsa delako! Ez dut begiko Aleksei Ivanitx, ezin dut eraman; eta, harritzekoa badirudi ere, ez litzaidake batere gustatuko berak ere horren gogaikarri iriztea niri, ikaragarri kezkatuko ninduke horrek.

— Eta zer uste duzu, Maria Ivanovna?, gogoko zaitu, bai ala ez?

Maria Ivanovna isildu eta lotsagorritu egin zen.

— Badirudi... —esan zidan—, zera... gogoko nauelakoan nago.

— Eta zergatik zaude uste horretan?

— Behin, berarekin ezkontzeko eskatu zidalak.

— Ezkontzeko! Berarekin ezkontzeko eskatu zizun? Noiz?

— Joan den urtean. Zu etorri baino bi hilabete lehenago.

— Eta zuk, ezezkoa eman zenion?

— Zerorrek ikus dezakezu. Aleksei Ivanitx, noski, gizon argia da, eta familia onekoa, eta baditu ondasunak; baina ezkontzan mundu guztiaren aurrean musu eman beharko niokeela pentsatu nuenean... Hori, inola ere ez! Ezta munduko zorion guztiaren truke ere!

Maria Ivanovnaren hitzek begiak ireki eta gauza asko argitu zizkidaten. Orduan ulertu nuen zergatik aritzen zen Shvabrin horren temati beraren kontrako esamesak zabaltzen. Inondik

ere, jabetua zen begi onez hartzan genuela elkar, eta elkarrengandik bereizten saiatzen zen. Gure arteko liskarra eragin zuten hitzak are zitalagoak iruditu zitzaizkidan ikusi nuenean ez zirela adarjotze gordin eta zantar hutsa izan, berriaz botatako gezur-laidoa baizik. Mihi-gaizto lotsagabea zigortzeko irrika biziagotu egin zitzaidan barnean, eta egon ezinik geratu nintzen abagune egokiaren zain.

Ez nuen luze itxaron beharrik izan. Biharamunean, etxean eserita nengoela elegia bat idatzi nahirik, luma marraskatzen errimaren bila, halako batean, Shvabrinek gelako leihoa jo zuen. Luma gorde, sablea hartu eta berarengana atera nintzen. «Zergatik geroko utzi? —esan zidan Shvabrinek—, ez daukagu inor zelatan. Goazen ibaira. Han ez digute enbarazurik egingo». Isilik abiatu ginen. Bide-zidor piko batetik jaitsi ondoren, ibaiertzean bertan gelditu eta sableak biluztu genituen. Shvabrin ni baino trebeagoa zen; ni, berriz, sendoagoa eta ausartagoa. Monsieur Beauprék, garai batean soldadu izan baitzen, esgrima-eskola batzuk eman zizkidan, eta ederki baliatu zitzaizkidan abagune hartan. Shvabri-

nek ez zuen uste horren aurkari arriskutsua aurkituko zuenik. Puska luzea eman genuen elkarzauritu ezinik; azkenean, Shvabrini indarrak ahitzen ari zitzaizkiola antzemanik, su eta gar ekin nion erasoari eta uretan sarrarazi nuen ia. Batbatean, neure izena entzun nuen, norbaitek ozenki esana. Atzera begiratu eta Savelitx ikusi nuen. Korrika zetorren niganantz ibaiertzaren goi aldeko bidetik... Bitartean, ziztada mingarria sentitu nuen bularrean, eskuineko besaburuaren azpian; erori eta konortea galdu nuen.

# V atala

## MAITASUNA

*Aizu, neskatila, neska polit hori!  
gaztea zara oraindik, ez ezkondu;  
galdetu, neska, aitari eta amari,  
aitari, amari eta familia osoari;  
zentzuz jokatu, neska, ez izan leloa,  
lehenago bildu ezkonsari eder askoa.*

Herri-kanta

*Hobea aurkitzen baduzu, nitaz ahaztuko zara.  
Txarragoa aurkitzen baduzu, nitaz oroituko zara.*

Herri-kanta

Neure senera itzuli nintzenean, burua nahasi-rik egon nintzen puska batean, zer gertatu zitzai-  
dan gogoratu ezinik. Ohean etzanda nengoen  
gela ezezagun batean, eta ahulezia handia  
sumatzen nuen gorputz osoan. Nire aurrean  
Savelitx zegoen, eskuan kandela zeukala. Nor-  
bait kontu handiz kentzen ari zen bularra eta  
besaburua biltzen zizkidaten lotailuak. Apurka-

apurka, ideiak argitu zitzaizkidan. Dueluaz oroi-tu, eta zaurituta nengoela ohartu nintzen. Une hartan, atea ireki zen. «Zer moduz?», galdetu zuen xuxurlaka dardarizoa eragin zidan ahots batek. «Ez da aldaketarik izan —erantzun zuen Savelitxek intzirika—, bost egun darama korde-rik gabe». Jiratu egin nahi izan nuen, baina ezin. «Non nago? Nor da hor?», esan nuen ahalegi-nea. Maria Ivanovna ohera hurbildu eta niga-nantz makurtu zen. «Zer moduz zaude?», galde-tu zidan. «Jainkoari eskerrak! —erantzun nion ahots ahulez—. Zu zara, Maria Ivanovna? Esada-zu...» Ez nuen jarraitzeko indarrik izan, eta isildu egin nintzen. Savelitxek hasperen egin zuen. Pozak aurpegia argitu zion. «Bere senera itzuli da! Bere senera itzuli da! —errepikatzen zuen—. Bejondeizula, jauna! Ai ene, Piotr Andreitx, hau ikaraldia eman didazuna! Bost egun!, arin esa-ten da gero...» Maria Ivanovnak hitz-jarioa eten zion. «Ez asko hitz egin berarekin, Savelitx —esan zion—. Ahul dago oraindik». Gelatik irten eta, zaratarik atera gabe, erdi irekita utzi zuen atea. Borborka neukan burua. Beraz, komandan-tearen etxean nengoen, Maria Ivanovna ni ikus-

tera etorria zen. Hainbat galdera egin nahi nizkion Savelitxi, baina zaharrak ezker-eskuin eragin buruari eta belarriak estali zituen. Haserre, begiak itxi eta lo pisu batek hartu ninduen berehala.

Esnatu nintzenean, Savelitxi deitu nion, baina bera barik Maria Ivanovna ikusi nuen aurrean; haren aingeru-ahotsak agurtu egin ninduen. Ez naiz gauza une hartan nitaz jabetu zen sentimenduaren gozoa azaltzeko. Hartu eskua eta beronen kontra estutu nintzen, samurtasunezko malkoak isuriz. Mashak ez zuen eskua askatu... eta, bat-batean, beraren ezpain txikiek azaletik ukitu zidaten masaila, eta haien musu sutsu eta freskoa sentitu nuen. Sua piztu zitzaidan barnean. «Maria Ivanovna maitea, ene bihotzeko laztana —esan nion—, izan zaitez nire emaztea, onar ezazu ni zoriontsu egitea». Bere baitara itzuli zen. «Jainkoaren izenean!, lasai zaitez —esan zidan, eskua askatu ondoren—. Arriskuan zaude oraindik: baliteke zauria zabaltzea. Zaindu zeure burua, mesedez, egizu hori nigatik». Eta hori esandakoan, joan egin zen, ni pozez zorutzen utzita. Zoriontasunak berpiztu

egin ninduen. Nirea izango zen!, maite ninduen! Pentsamendu horrek goitik behera bete zizkidan barne-muinak.

Harrezkeroztik, hobera egin nuen arian-arian. Gotorlekuan medikurik ez zenez, errejimenduko bizargilea arduratzen zen nitaz, eta, Jainkoari eskerrak, ez zuen azkarrarena egiteko asmorik erakutsi. Gaztetasunak eta naturak azkar suspertzen lagundu zidaten. Komandantearen familia osoak zaintzen ninduen. Maria Ivanovna ez zen nigandik aldentzen. Esan beharrik ez dago abagune egokia aurkitu bezain laster lehengoan etendako maitasun-adierazpenari ekin niola berriro, eta Maria Ivanovnak aurrekoan baino patxada handiagoz entzun zidan. Batere itzulingururik gabe aitortu zidan bihotza nigana errenditurik zuela, eta esan zidan bera zoriontsua izateak oso poztuko zituela gurasoak. «Baina pentsa ezazu ondo, maitea —gaineratu zuen—, zure gurasoek ez dute eragozpenik ipiniko?»

Pentsakor geratu nintzen. Ez nuen inolako zalantzarik amaren samurtasunaz, baina aitaren izaera eta pentsabidea zertan ziren banekienez, kontu egin nuen nire maitasunak ez zuela gehie-



gi hunkituko eta mutil gazte baten nahikeriatzat joko zuela. Argi eta garbi adierazi nion Maria Ivanovnari hori guztia, eta, hala ere, aitari idaztera deliberatu nintzen, ahalik eta hitzik ederrenez, ezkontzeko onespena eskatuz. Gutuna erakutsi nion Maria Ivanovnari, eta hain iritzi zion eragin-kor eta hunkigarri, non ez baitzuen dudarik egin eskariaren arrakastaz eta, hala gaztetasunaren nota maitasunaren uste osoarekin, bere bihotz samurraren sentimenduetara eman zen inolako trabarik gabe.

Neure eriondoaren aurreneko egunetan, onezkoak egin nituen Shvabrinekin. Ivan Kuzmitxek, duelua zela-eta erantzuki eginez, hala esan zidan: «Entzun, Piotr Andreitx!, preso hartu beharko zintuzket, baina zigor latza jasan duzu hori gabe ere. Aleksei Ivanitx, ordea, okindegian sartu dut, ondo zainduta, eta sablea, berriz, Vasilisa Jegorovnak dauka giltzapean gordeta. Hausnartu eta damu har dezala». Zoriontsuegia nintzen bihotzean inoren alderako etsaitasun sentimendurik gordetzeko. Erreguka hasi nintzen Shvabrini zigorra ken ziezaioten, eta komandanteak, gizon bihozbera baitzen, emaz-

tearekin ados jarrita, askatzea erabaki zuen. Shvabrin nigana etorri zen; sakoneko arrangura agertu zidan gure artean gertatutakoagatik; errudun bakarra bera zela aitortu eta iragana ahazteko eskatu zidan. Jatorriz aihertsua ez nintzenez, gogo onez barkatu nizkion bai liskarra eta bai zauria. Bere buruarenganako estimua minduta daukan eta maitasunean porrot egin duen gizonaren etsipena ikusi nuen Shvabrinek egindako irainean, eta bihotz-bihotzez barkatu nion guztia aurkari dohakabeari.

Agudo sendatu nintzen eta neure bizitegira aldatzeko aukera izan nuen. Urduri nengoen bidalitako gutunaren erantzuna noiz iritsiko zain, esperantzarik izaten ausartu gabe eta aieru goibelak uxatzen saiatuz. Vasilisa Jegorovnari eta beraren senarrari artean ezer esan gabea nintzen; baina banekien nire proposamenak ez zituela harrituko. Ez Maria Ivanovna ez ni ez ginen ahalegintzen haiei gure sentimenduak ezkutatzen, eta haien onespina gauza seguru-tzat jotzen genuen alde zurretik.

Azkenik, goiz batean, Savelitx nire gelara etorri zen, eskuan gutun bat zekarrela. Dardaraz

hartu nuen. Helbidea aitaren eskuak idatzia zen. Horrek gertu jarri ninduen garrantzi handiko zer-baitetarako, zeren gutunak amak idatzi ohi bai-tzizkidan, eta aitak amaieran lerro labur batzuk erantsi besterik ez. Denbora luzea eman nuen gutunazalari zigilua kendu gabe. Behin eta berri-ro irakurri nuen idazpuru luzea: «Nire seme Piotr Andreievitx Grinioventzat. Orenburgeko probin-tzia, Bielogorskaia gotorlekua». Ahaleginak egin nituen idazkeratik igartzeko aita nolako aldar-tean zegoen gutuna idatzi zuenean. Noizbait, ire-kitzera deliberatu nintzen, eta hasierako lerroet-atik bertatik jabetu nintzen dena pikotara joana zela. Hona zer zioen gutunak:

*«Nire seme Piotr! Hilaren 15ean jaso genuen zure gutuna, zeinean Maria Ivanovnarekin, Miro-noven alabarekin ezkontzeko onespina eta bai-mena eskatzen baitzenizkigun. Bada, ez dut ino-lako asmorik ez onespenik eta ez baimenik ema-teko. Eta ez hori bakarrik: gainera, ofizial-gra-duaren jabe zaren arren umegorri baten antzera jokatu duzunez, zentzagarri on baten premian zaudela erabaki dut, zeren erakutsi baituzu*

oraindik ez zarela duin sorterrria defendatzeko eta ez zu lako alprojekin dueluetan dantzatzeko eman dizuten sablea eramateko. Oraintxe bertan idatziko diot Andrei Karlovitxi, Bielogorskaia gotorlekutik atera eta leku urrunagoren batera bidal zaitzan eskatuz, ea bertan horren txoriburua izateari uzten diozun. Zure ama tristuraz gaixotu zen dueluan borrokatu eta zaurituta atera zinela jakin zuenean, eta orain ohean datza. Zer egin behar dut zurekin? Otoiz egiten diot Jainkoari zuzen zaitezten, baina ez naiz ausartzen haren onberatasun mugagabeen uste handirik jartzen.

*Zure aita, A. G.»*

Gutun hori irakurtzeak era askotako sentipenak eragin zizkidan. Aitak barra-barra erabilitako esakune ankerrek biziki mindu ninduten. Maria Ivanovna aipatzean erakutsitako erdeinua eragabea bezain bidegabea iruditu zitzaidan. Bielogorskaia gotorlekutik beste nonbaitera aldatuko nindutelakoak ikaratu egin ninduen. Baina, ororen gainetik, ama gaixorik zegoelako albisteak eragin zidan atsekaberik handiena. Oso haserre

nengoen Savelitxekin, ez bainuen dudarik egin berak esanda jakin zutela gurasoek duelauren berri. Neure gela estuan barrena hara eta hona nenbilela, haren aurrean gelditu eta hala esan nion mehatxuzko begirada bota ondoren: «Zure erruz zauritu ninduten eta hilabete eman dut hiltzeko zorian; baina, argi dago hori ez dela nahikoa izan zuretzat: heriotzara eraman nahi duzu nire ama ere». Savelitx tximistak jota bezala geratu zen. «Jainkoarren, jauna —esan zidan, negar—zotinka hasteko zorian—, zergatik diozu hori? Nire erruz zauritu zintuztela! Jainkoak badaki neure bularraz Aleksei Ivanitxen sabletik babesteko nindoala korrika zugarantz! Zahartasun madarikatuak eragotzi zidan. Eta zer egin diot nik zure amari?» «Zer egin diozun? —erantzun nion— Nork eman dizu ni salatzeke agindua?, zelatariarena egiteko jarri zaituzte nire alboan?» «Nik?, nik zu salatu? —erantzun zuen Savelitxek, malkoak zerizkiola—. Ene Jainko zeruetakoa! Hartu, irakurri zer idatzi didan nagusi jaunak, ikusi nola salatu zaitudan». Orduan, gutun bat atera zuen sakelatik, eta honako han irakurri nuen:

*«Zure jokabidea guztiz lotsagarria da, zakur zaharra halakoa. Nire agindu zorrotzak gorabehera, ez didazu neure seme Piotr Andreievi-txen albisterik eman, eta pertsona arrotzen bidez jakin behar izan dut haren bihurrikerien berri. Horrela betetzen dituzu zeure eginbeharrak eta nagusi jaunaren nahiak? Zakur zahar hori, txerriak bazkatzera bidaliko zaitut egia ezkutatzeagatik eta mutilarekin horren samurra izateagatik. Gutun hau jaso bezain laster, idatziz jakinaraziko didazu zer moduz dabilen orain osasunez —hobera egin duela idatzi didate—; gainera, zehatz-mehatz azalduko didazu non zauritu zuten eta ea ondo sendatu duten».*

Argi zegoen Savelitxek egia esan zidala eta bidegabeki mindu nuela neure kargu hartzeekin eta susmo txarrekin. Barkamena eskatu nion; baina zaharra atsekabeak jota zegoen. «Hona nora iritsi naizen —errepikatzen zuen—, hona zer-nolako esker ona irabazi dudan nagusien aldetik! Zakur zaharra naiz, txerriak bazkatzeko bestetarako ez dut balio; eta, gainera, zure zau-

riaren erruduna omen naiz! Ez, Piotr Andreitx jauna! Ni ez, *musié* malapartatu honi da guztia-  
ren erruduna: berak irakatsi zizun burduntzi  
horiek dantzatzen eta oinei polito eragiten, jira-  
bira eta jauzi horiekin zeure burua gizon gaizto-  
en eraginetik babestu ahal izango bazenu beza-  
la! Ordu txarrean bururatu zitzaien nagusi jaun-  
andreei dirua *musié* hori alokatzen xahutzea!

Baina, orduan, nork hartu zuen bere gain  
aitari nire portaeraren nondik norakoa azaltzeko  
nekea? Jeneralak? Baina hura, antza, ez zen  
gehiegi arduratzen nitaz; eta Ivan Kuzmitxek ez  
zion premiako iritziko dueluaren berri jakinaraz-  
teari. Galduta nenbilen aieruen matazan. Shva-  
brinen aldera zuzendu nituen susmoak. Berak  
bakarrik atera zezakeen onuraren bat egoera  
hartatik, zeren, ni salatuz gero, zitekeena bai-  
tzen gotorlekutik urruntzea eta komandantearen  
famiariakiko lotura haustea. Maria Ivanovnaren-  
gana jo nuen hori guztia azaltzera. Atalondoan  
egin zidan harrera. «Zer gertatu zaizu? —galde-  
tu zidan—. Zurbil—zurbil zaude!» «Gureak egin  
du!», erantzun nion, aitaren gutuna emateaz  
batera. Bera jarri zen zurbil orduan. Irakurritako-

an, gutuna itzuli zidan, eskua ikaraka zuela, eta ahots dardaratiz esan zidan: «Garbi dago patuak ez duela nire alde jo... Zure gurasoek ez naute familian nahi. Bete dadila Jainkoaren borondatea! Jainkoak inork baino hobeto daki zer den onena guretzat. Ez dago ezer egiterik, Piotr Andreitx; zoriona opa dizut...» «Ez, gure artekoa ezin da honela amaitu! —oihu egin nion, eskutik oratuta neukala—. Maite nauzu; edozertarako prest nago. Goazen berehala zure gurasoengana, jende xumea da, ez dira bihotz gogorreko handiputzak... Onespena emango digute, ezkonduko gara... eta gero, denborarekin, ziur nago nire aita bigunduko dugula; ama gure alde izango dugu beti; aitak barkatu egingo dit...» «Ez, Piotr Andreitx — erantzun zuen Mashak—, gurasoen onespenik gabe ez naiz zurekin ezkonduko. Haien onespenik gabe ez zara zoriontsua izango. Onar dezagun Jainkoaren nahia. Bejondeizula, Piotr Andreitx; beste emaztegairen bat aurkitzen baduzu, besteren batez maitemintzen bazara... otoitz egingo dut zuen alde...» Orduan, negarrez hasi eta nire albotik alde egin zuen; haren atzetik joan nahi izan nuen gelara, baina ohartu nin-



tzen ez nintzela neure burua menperatzeko gai izango, eta etxera itzuli nintzen.

Eserita nengoen, gogoeta sakonetan murgilduta, bat-batean Savelitxek nire pentsamenduen haria eten zuenean. «Hartu, jauna —esan zidan, idazlerroz estu-estu betetako paper-orri bat luzatuz—, ikusi nolako salataria naizen eta nola saiatu naizen aitaren eta semearen arteko harremanak okertzen». Papera hartu nion eskuetik: jasotakoari erantzunez Savelitxek aitari idatzitako gutuna zen. Honakoa zioen hitzez hitz:

*«Andrei Petrovitx jauna,  
gure aita errukitsu hori!*

*Jaso dut berorren idazki adeitsua, zeinean berorrek bere esklabo honen alderako haserrea erakutsi baitu, lotsagarri iritzi dio-eta nagusi jaunaren aginduak ez betetzeari; baina ni ez naiz zakur zaharra, berorren lehen zerbitzaria baizik; hutsik egin gabe bete ditut beti nagusi jaunaren aginduak, berorren zerbitzuan aritu naiz ardura handiz bizitza osoan eta horretan urdindu zaizkit buruko ileak. Piotr Andreitx zauritu zutela jakinaz ez banion, alferrikako ikaraldirik ez eragitea-*

rren izan zen, eta orain, gure ama Avdotia Vasilievna anderea ikaraldiaren ondorioz gaixotu egin dela jakin dudalarik, otoitz egingo diot Jainkoari berehala senda dadin. Bestetik, Piotr Andreitx bularrean zauritu zuten, eskuineko besaburuaren azpian, hezuraren alboan bertan, eta zauriak hazbete eta erdi zeukan sakonean. Komandantearen etxean eduki genuen ohean etzanda; kontu handiz eraman genuen hara, eta Stepan Paramonovek, bertoko bizargileak sendatu zuen. Orain, Jainkoari eskerrak, Piotr Andreitx osasuntsu dago eta albiste onak besterik ezin dizkiot eman berari buruz. Diotenez, armadako buruak oso pozik daude berarekin; eta Vasilisa Jegorovnaren etxean bertako semea balitz bezala tratatzen dute. Oraindik mutil gaztea izaki, arestian gertatutako ezbeharrak ez da gaitzestekoa: zaldia lau hankaren gainean ibiltzen da eta, hala ere, oztopo egiten du. Eta, azkenik, berorrek egoki iritzi dio txerriak bazkatzera bidaliko nauela idazteari. Hori dut, beraz, nagusi jaunaren nahia. Har beza esklabo honen agurrik otzanena.

Berorren zerbitzari leiala,

Arkhip Savelitx»

Zahar onberaren gutuna irakurtzean, barre-gurari ezin eutsi eta, irribarre egin nuen behin baino gehiagotan. Ez nuen adorerik aitari erantzuteko; eta Savelitxen gutuna nahikoa iruditu zitzaidan ama lasaitzeko.

Harrezkeroztik, erabat aldatu zen nire egoera. Maria Ivanovnak ia ez zidan hitzik esaten eta bitarteko guztiak baliatzen zituen ni saihesteko. Begitan hartu nuen komandantearen etxea. Apurka-apurka, neure bizitegian bakarrik egotera ohitu nintzen. Hasieran, Vasilisa Jegorovnak errieta egiten zidan horregatik; baina, nire seta ikusirik, bakean utzi ninduen. Ivan Kuzmitx zerbitzuaren zereginiek beharturik soilik ikusten nuen. Shvabrinekin gutxitan eta gogoz kontra elkartzen nintzen, batez ere kontuan izanik niganako ikusiezin ezkutua antzematen mola, eta horrek nire susmoak sendotzen zituen. Bizitza hori jasan ezina bihurtu zen niretzat. Bakardadeak eta zereginik ezak hauspotutako gogoetaldi ilunean hondoratu nintzen. Bakardadean, maitasunak are su biziagoaz erretzen ninduen barrutik, eta gero eta zama astunagoa zen niretzat. Galdu

egin nuen idazteko eta literatura irakurtzeko zaletasuna. Gogoia erori zitzaidan. Beldurrak nengoen ez ote nintzen erotuko edo galdukeriaren bidean sartuko. Eta orduan, nire bizitza osoan eragin handia izango zuten ustekabeko gertaera batzuek astinaldi indartsu eta onuragarria eman zioten nire arimari.

# VI. atala

## PUGATXOV

*Entzun ezazue, neska-mutil gazteok,  
guk, zaharrok, kontatuko dizueguna.*

Kanta

Lekuko izan nintzen gertaera harrigarriak kontatzeari ekin aurretik, hitz gutxitan azalduko dizuet zertan zen Orenburgeko probintziako egoera 1773. urtearen amaieran.

Herri asko bizi ziren probintzia zabal eta aberats horretan, erdi basatiak denak eta aspaldi gabe makurtuak Errusiako tsarren aginpidera. Herri haien zabartasuna, krudeltasuna, gizarteko legeen arabera bizitzeko ohiturarik eza eta sarritako matxinadak zirela eta, gobernuak, noizbait eskumendera ekarriko bazituen, atsedetik gabe zaintzera behartuta zegoen. Gotorlekuak eraiki zituzten ondo aukeratutako lekuetan eta, batik batik, kosakoak jarri zituzten han bizitzen, haiek

baitziren Jaik ibaiaren ertzetako lurren jabeak antzina-antzinatik. Baina, lurralde hartako bakea eta segurtasuna zaintzeko ardura eman bazieten ere, luzaro gabe, Jaieko kosakoak beraiek menpeko bihurri eta arriskutsu bihurtu ziren gobernuarentzat. 1772. urtean matxinada izan zen kosakoen herriburuan. Traubenberg jeneralak armadan diziplina ezartzeko hartutako neurri zorrotzek eragin zuten altxamendua. Horren ondoren, kosakoek basakeria izugarritz Traubenberg hil eta nahierara aldatu zituzten tokiko agintariak. Azkenik, gobernuak jazarraldia su eta ke zapaldu eta zigor latzak ezarri zituen.

Hori guztia, ni Bielogorskaia gotorlekura iritsi baino apur bat lehenago gertatu zen. Ordurako, lasai zegoen dena, edo hala ematen zuen behintzat. Agintariak arinegi sinetsi zuten matxino maltzur haiek erakutsitako damua benetakoa zela; baina itxura hutsa besterik ez zen, gorrotoak barrenak jaten zizkien eta bazterrak berriro nahasteko aukera egokiaren zain zeuden.

Baina hel diezaiodan berriro neure kontaketaren hariari.

Arratsalde batean (1773. urteko urriaren hasiera zen) bakarrik nengoen etxean, udazkeneko haizearen ulua entzuten eta ilargiaren aurretik agudo igarotzen ziren hodeiei begira leihotik. Halako batean, mandatari bat etorri zen komandantea deika nuela esatera. Berehala joan nintzen. Komandantearen etxean Shvabrin, Ivan Ignatitx eta kosakoen sarjentua aurkitu nituen. Gelan ez zeuden ez Vasilisa Jegorovna, ez Maria Ivanovna. Itxura kezkatua zuela agurtu ninduen komandanteak. Ateak itxi, eta eserarazi egin gintuen, denok kosakoen sarjentua izan ezik, zutik geratu baitzen ate alboan. Sakelatik paper bat atera, eta hala esan zigun: «Ofizial jaunak, garrantzi handiko berri bat helarazi digute! Entzun zer idatzi dien jeneralak». Betaurrekoak ipini eta honakoa irakurri zigun:

*«Mironov kapitaina,*

*Bielogorskaia gotorlekuko komandantea. Isilpekoa.*

*Idazki honen bidez jakinarazten dizut Jemeljan Pugatxovek, Don ibaiko kosako fede-galdu horrek, zaintzapetik ihes egin digula eta, ezin*

*barkatuzko mutiritasuna erakutsiz Pedro IIIa enperadore zenduaren izena harturik, gaizkile-saila bildu, Jaiken ertzetako herrixkak matxinatu eta dagoeneko hainbat gotorleku menpean hartu eta suntsitu egin dituela. Lapurretan aritzen da eta hildakoz josita uzten ditu bazter guztiak. Horregatik, kapitain jauna, gutun hau jasotzen duzunean, har itzazu beharrezko neurriak gaizkile eta iruzurti horri aurre egiteko eta, ahal izanez gero, erabat birrintzeko zeure ardurapean daukazu gotorleku horretara inguratzen bada».*

— Beharrezko neurriak hartu! —esan zuen komandanteak betaurrekoak kendutakoan eta papera tolesten zuen bitartean—. Arin esaten da gero. Dirudienez, gaizkile honi oso ahaltsua da; eta gu ehun eta hogeita hamar lagun besterik ez gara, kosakoak kontuan hartu gabe, noski, ez dago-eta haietaz fidatzerik, eta ez naiz zutaz ari, Maximitx. (Kosakoen sarjentuak erdi irribarre egin zuen). Dena dela, ofizial jaunak, ihesbiderik ez dago! Prest egon, begiraleak ipini eta gaueko zaingoa antolatu; eraso egiten badigute, area itxi eta irtenarazi soldaduak. Maximitx, begirik



ez kendu zeure kosakoei. Kanoia ikuskatu eta ondo garbitu. Eta, batez ere, zuhur jokatu, isilean gorde hau guztia, gotorlekuko inork ez dezala behar baino lehenago honen berri jakin.

Aginduak eman ondoren, Ivan Kuzmitxek etxera joaten utzi zigun. Shvabrinekin batera irten nintzen, entzun berri genuenari buruz mintzatzen. «Zer uste duzu?, nola amaituko da hau guztia?», galdetu nion. «Jainkoak daki! —erantzun zuen—, ikusiko dugu. Oraingo ez dut ezer kezka garririk ikusi, ez bada...» Pentsakor geratu zen eta, bestela bezala, txistuka ekin zion Frantziako aria bati.

Alabaina, gure zuhurtasun guztia gora-behera, Pugatxoven agerpenaren albiste bazterrik bazter zabaldu zen gotorlekuan. Ivan Kuzmitxek, emazteari begirune handia bazion ere, sekula ez ziokeen zerbitzuaren inguruko sekreturik salatuko. Jeneralaren gutuna jaso zuenean, nahiko trebeki aldendu zuen Vasilisa Jegorovna etxetik, esanik aita Gerasimek albiste harrigarriak jaso zituela Orenburgetik eta oso zorrotz atxikirik zituela isilpean. Vasilisa Jegorovnak popearen emazteari bisita egitera joateko gogo bizia era-

kutsi zuen berehala eta, Ivan Kuzmitxen aholkuari jarraiki, Masha eraman zuen berekin, baka-  
rrik ez aspertzeko.

Ivan Kuzmitxek, etxean jaun eta jabe geratu zelarik, bertara agudo biltzeko agindu zigun. Palashka, berriz, trastelekuan sartu zuen gure elkarrizketa entzuterik izan ez zezan.

Vasilisa Jegorovna popearen emazteari txintik atera gabe itzuli zen etxera, eta berehala jakin zuen nola, bera kanpoan zela, Ivan Kuzmitxek ofizialak bildu zituen eta nola, bitartean, Palashka giltzapean eduki zuen. Atzipetu egin zuela igarrita, galderaz josi zuen senarra. Baina Ivan Kuzmitx erasorako prest zegoen. Batere aztoratu gabe, kemenez beteta erantzun zion emazte jakingurari: «Entzun, kontua da gotorlekuko emakumeei labeak lastoz piztea bururatu zaiela, eta horrek ezbehar handia eragin dezakeenez, agindu zorrotza eman dut emakumeei labeak lastoz ez pizteko eta, horren ordean, egur lehorra eta haizeak zuhaitzetatik erauzitako abar-  
rak erabil ditzaten». «Eta horretarako giltzapean sartu behar izan duzu Palashka? —galdetu zion emazteak—. Horregatik egon da neskame

gajoa trastelekuan giltzapetuta gu itzuli arte?» Ivan Kuzmitx ez zegoen prest horrelako galdera bati erantzuteko eta, nahasirik, oso azalpen ulergaitza murduskatu zuen. Vasilisa Jegorovnak argi ikusi zuen senarra azpijokoan ari zitzaiola, baina, ezertxo ere lortuko ez zuela oharturik, galderak egiteari utzi eta Akulina Pamfilovnak horren modu berezian prestatzen zituen pepino gaziez mintzatzen hasi zen. Vasilisa Jegorovnak esna eman zuen gau osoa, ezin asmaturik senarrak zer ote zerabilen buruan berak ezin jakin zezakeenik.

Biharamunean, mezatatik zetorrela, Ivan Ignatitx ikusi zuen. Kanoi alboan zegoen, haurrek barrura botatako piltzarrak, harri-kozkorrek, ezpalak, kurkuluxak eta mota guztietako zaborrak ateratzen. «Zer esan nahi ote dute gerrarako prestamen hauek? —pentsatu zuen komandantearen emazteak—, kirgizek erasoko digutela uste al dute? Baina zer dela-eta ezkutatu behar zidan Ivan Kuzmitxek horrelako huskeria bat?» Halatan, Ivan Ignatitxi deitu zion, emakume-jakin-mina horren era jasanezinean zirika-

tzen zion sekretu hura agertarazteko erabaki sendoa hartuta.

Vasilisa Jegorovnak hainbat oharpen egin zizkion etxeko zereginen gainean, hala nola epai-leak auzibidea hastean azaleko galderak egiten dituen auzipetuaren arreta barreiatzeko. Gero, puska batean isilik egon ondoren, hasperen sakona egin eta hala esan zuen, buruari eraginez: «Ene Jainko maitea! Hara zer-nolako albistea! Zer ekarriko digu honek?»

— Lasai, emakumea! —erantzun zuen Ivan Ignatitxek—. Jainkoa onbera da: nahikoa soldadu badugu, bolbora asko, eta garbi-garbi utzi dut kanoia. Agian, gauza izango gara Pugatxovi aurre egiteko. Jainkoak laguntzen badigu, onik aterako gara ataka gaizto honetatik!

— Eta nor da Pugatxov hori? —galdetu zuen komandantearen emazteak.

Ivan Ignatitx orduantxe konturatu zen mihia arinegi dantzatu zuela, eta ezpainak josi zituen. Baina berandu zen. Vasilisa Jegorovnak dena aitortzera behartu zuen, isilean gordeko zuela hitz emanda.

Vasilisa Jegorovnak hitza bete zuen eta ez zion inori tutik ere esan, popearen emaztear izan ezik, eta hori behia estepan zeukalako eta bazi-tekeelako gaizkileek lapurtzea.

Luze gabe, guztien ahotan zebilen Pugatxov. Mota guztietako zurrumurruak zabaldu ziren. Komandanteak inguruko herrixka eta gotorleketan gertatzen ari zen guztiaren gaineko argibide zehatzak biltzera bidali zuen kosakoen sarjentua. Bi egun geroago itzuli zen eta, komandanteari adierazitakoaren arabera, su asko ikusi zituen estepan, gotorlekutik hirurogei bat vers-tara, eta, bashkirek esan ziotenez, indar misteriotsu bat hurbiltzen ari zen. Baina ezin izan zuen argibide zehatzagorik eman, ez baitzen urrunago joaten ausartu.

Gotorlekuan, ohi ez bezalako artegatasuna sumatzen hasi zen kosakoen artean; taldeka biltzen ziren kaleetan, ahapeka hitz egiten zuten elkarrekin eta agudo sakabanatzen ziren inguruan dragoi bat edo goarnizioko soldaduren bat ikusi bezain laster. Zelatariak sartu zituzten haien artean. Julaik, kalmuko bataiatu batek, garrantzi handiko kontuak salatu zizkion koman-

danteari. Julairen esanetan, kosakoen sarjentua gezurretan aritu zen: itzultzean, kosako maltzurak lagunei kontatu zien matxinoekin egon zela eta buruzagiaren beraren aurrera agertu zela, eta honek, eskuan muin egiten utzi ondoren, luzaz aritu zela berarekin hizketan. Komandanteak bertantxe agindu zuen sarjentua preso har zezaten, eta Julai ipini zuen haren tokian. Kosakoek biziki suminduta hartu zuten albistea. Marmarrean aritzen ziren ahotsa apaldu gabe, eta Ivan Ignatitxek —berak bete baitzuen komandantearen agindua— bere belarriekin entzun zituen hitz hauek: «Ederra hartuko duk, goarnizioko arratoi zikin horrek!» Presoa egun horretan bertan galdekatzeko asmoa zuen komandanteak; baina sarjentua ihes egina zen, segur aski adiskideek lagunduta.

Beste gertakari batek areago larritu zuen komandantea. Bashkir bat harrapatu zuten matxinoen aldeko orriekin. Hori ikusirik, osterare ofizialekin biltzea deliberatu zuen komandanteak eta, horretarako, berriro aldendu nahi izan zuen Vasilisa Jegorovna etxetik, aise sinesteko moduko aitzakiaren bat asmatuta. Baina,

gizon tolesgabe eta egiatia zenez, aurrekoan hartutako bide berbera atzera erabiltzea besterik ez zitzaion bururatu.

Aizu, Vasilisa Jegorovna —esan zuen eztarria argitu ondoren—, diotenez, aita Gerasimek albiste harrigarriak jaso ditu...» «Gezurrik ez, Ivan Kuzmitx —eten zion emazteak—, oraingoan ez didazu ziri hori sartuko. Ondo asko dakit ofizialak bildu nahi dituzula ni gabe Jemelian Pugatxovi buruz hitz egiteko!» Ivan Kuzmitxek zabal-zabal jarri zituen begiak. «Tira, emakumea —esan zuen—, dagoeneko guztiaren berri dakizunez, gera zaitezke; zure aurrean hitz egingo dugu». «Hobe horrela —erantzun zion emazteak—, amarrurik gabe; bidali norbait ofizialen bila».

Berriro bildu ginen. Emaztea aurrean zuela, Ivan Kuzmitxek Pugatxoven agiria irakurri zigun. Ozta-ozta idazten zekien kosako eskolagabe batek idatzia zen. Bertan, gaizkileak, laster gure gotorlekuari erasotzeko asmoa zuela jakinarazi, kosako eta soldaduei beraren sailera biltzeko dei egin, eta aurka ez egiteko eskatzen zien gudalburuei, bestela hil egingo zituela mehatxatuz. Agiria esaldi zakar baina oldartsuekin idatzita

zegoen eta eragin arriskutsua izan zezakeen jende arruntaren buruan.

Gizatxarra halakoa! —atera zitzaion komandantearen emazteari—. Guri horrelakorik eskatzen ausartzea ere! Zer eta berarengana joan eta geure bandera beraren oinetara bota dezagun! Sasikume alaena! Ez al daki dagoeneko berrogei urte daramagula zerbitzuan eta, Jainkoari eskerrak, denetarik ikusi dugula. Ba al da inon gaizkile baten esanetara makurtzeko prest legokeen ofizialik?»

— Ez luke egon beharko —erantzun zuen Ivan Kuzmitxek—. Baina, diotenez, gaizkile hori gotorleku ugariz jabetu da jadanik.

— Dena dela, argi dago indar handia duela —ohartarazi zuen Shvabrinek.

— Oraintxe jakingo dugu zenbaterainoko indarra duen —esan zuen komandanteak—. Vasilisa Jegorovna, emadazu aletegiko giltza. Ivan Ignatix, zoaz bashkiraren bila eta zigorra ekartzeko agindu Julairi.

— Egon, Ivan Kuzmitx! —esan zuen komandantearen emazteak bere lekutik altxatzeaz batera—. Aurrena, uztazu Masha etxetik atera-



tzen. Beste nonbaitera eramango dut, ikaratu egingo da-eta garrasiak entzuten baditu. Eta ni ere, egia esan, ez naiz batere torturazale. Ondo izan.

Antzina, tortura horren sakon errotuta zegoen justiziaren jardunbidean, non ohitura hori ezereztu zuen onginahizko dekretuak luzaroan ez baitzuen inolako eraginik izan. Uste zutenez, krimena aitortzea ezinbesteko baldintza zen gaizkilea inongo ezbairik gabe erruduntzat jotzeko. Funsgabea izateaz gain, pentsaera horrek bete-betean jotzen du zuzenbidezko zentzu onaren aurka, zeren auzipetuaren ukoa haren errugabetasunaren froga gisa onartzen ez bada, are gutxiago har baitaiteke aitorpena erruduntasunaren frogatzat. Gaur egun ere suertatu zait entzutea nola, epaile zaharrek, ohitura basati hori debekatu izana deitoratzen duten. Gure garaian inork ez zuen zalantzan jartzen torturaren beharra, ez epaileek, ez auzipetuek. Halatan, komandantearen erabakiak ez zuen gutariko inor harritu, ezta asaldatu ere. Horrenbestez, Ivan Ignatix bashkiraren bila joan zen, giltzapean baitzegoen komandantearen emaztearen

aletegian, eta, handik gutxira, etxeko gela nagusira ekarri zuten presoak. Komandanteak bere burua aurkezteko agindu zion.

Bashkirak nekez zeharkatu zuen alartzea (oin-bilurrez lotuta zegoen), eta, txano luzea erantzita, ate alboan gelditu zen. Begiratu, eta zirgirit egin nuen. Sekula ez dut ahaztuko gizon hura. Hirurogeita hamar urtetik gorakoa ematen zuen. Ez zeukan ez sudurrik, ez belarririk. Ile-izpirik ez buruan; bizarraren ordean ile-xerlo urdinak nabarmentzen zitzaizkion han-hemenka. Moztaka zen, zimela eta konkorra; baina begi meharretatik sua zerion oraindik. «Hara! —jaregin zuen komandanteak, marka izugarri haietatik 1741. urteko altxamenduaren ostean zigortutako matxinoetako bat ezaguturik—. Dirudienez, behin baino gehiagotan erori zara gure harrapagailuan, otso zahar hori. Leun-leun utzi dizute kaskoa, gure aurka bihurritzen zaren aurreneko aldia ez delako seinale. Hurbildu gehiago; esadazu, nork bidali zaitu?»

Bashkir zaharra isil-isilik geratu zen komandanteari begira, erabateko ergeltasunak jota balego bezala. «Zergatik ez duzu erantzuten? —

jarraitu zuen komandanteak—, ez zara gauza errusieraz hitzik ere ulertzeko ala? Julai, galdeio-zu zeuen hizkuntzan ea nork bidali duen gotorlekura».

Julaik Ivan Kuzmitxen galdera errepikatu zuen tatarieraz. Baina bashkira bekoz beko begira geratu zitzaion, lehengo aurpegiera berberarekin eta hitzik erantzun gabe.

— *Jakshi!* —esan zuen komandanteak—. Berehalaxe hasiko zara berbetan. Mutilak!, kendu soineko marradun barregarri hori eta ondo berotu bizkarra. Julai, gogoz astindu gero!

Bi elbarri bashkira biluzten hasi ziren. Errukariaren aurpegiak larritasuna erakusten zuen. Alde guztietara begiratzen zuen, haur batzuek harrapatutako basapiztiak egingo lukeen bezala. Elbarrietako batek presoaren besoei heldu, bere lepoaren inguruan uztartu, eta sorbalden gainean jaso zuen zaharra. Julaik zigorra hartu eta airean eragin zion. Orduan, bashkira, auhenka hasi zen ahots ahul eta arrankariz, eta, buruari ezker-eskuin eragiten ziola, zabal-zabal ireki zuen ahoa, zeinean mihiaren ordezt haragi-puska laburra higitzen baitzen.

Gogoratzen dudanean hori nire garaian gertatu dela eta Alexandro enperadorearen erreinaldi gizalegezkoan bizitzera iritsi naizela, harriturik geratzen naiz, ezinbestean, irakaskuntzak nolako ondorio onak ekarri dituen eta gizatasunaren arauak zein azkar hedatu diren ikustean. Gazte hori!, nire izkribu hau zure eskuetan erortzen bada, gogoan izan aldaketarik onuragarriak eta sendoenak ohiturak hobetzearen ondorioz gertatzen direla, eta ez bortxazko ekintzen eraginez.

Sor eta lor gelditu ginen denok. «Tira —esan zuen komandanteak—, argi dago honengandik ez dugula ezer lortuko. Julai, eraman bashkira aletegira. Eta guk, jaunak, oraindik badugu zertaz hitz egina».

Gure egoera aztertzeari ekin genion. Bat-batean, Vasilisa Jegorovna sartu zen gelan, arnastuka eta, itxuraz, oso kezkatuta.

— Zer gertatu da? —galdetu zion komandanteak harriturik.

— Hau ez beharra, jaunak! —erantzun zuen Vasilisa Jegorovnak—. Gaur goizean Nijneozernaia gotorlekua hartu dute. Aita Gerasimen

morroia handik itzuli da oraintxe bertan. Nola hartu duten ikusi du. Komandantea eta ofizial guztiak urkatu dituzte. Preso hartu dituzte soldadu guztiak. Inondik ere, aitaren batean hemen izango dira gizatxar horiek.

Ustekabeko albisteak lur iota utzi ninduen. Ezagutzen nuen Nijneozernaia gotorlekuko komandantea. Gazte isil eta apala zen. Bi hilabete inguru lehenago, emazte gaztearekin batera Orenburgetik zetorrela, ostatu hartu zuen Ivan Kuzmitxen etxean. Nijneozernaia gure gotorlekutik hogeita bost bat verstara zegoen. Beraz, uste izatekoa zen Pugatxovek edozein unetan erasoko zigula guri ere. Biziro irudikatu nuen zein izan zitekeen Maria Ivanovnaren zoria, eta estutu egin zitzaidan bihotza.

— Entzun, Ivan Kuzmitx! —esan nion komandanteari—. Gure eginbeharra gotorlekua azken hatsa eman arte defendatzea da; ez dago horretaz eztabaidatzerik. Baina emakumeen segurtasuna bermatu behar dugu. Bidal itzazu Orenburgera, bidea oraindik libre badago. Bestela, gaizkileek menpean hartzerik ez duten gotorleku urrun eta sendoago batera eraman.

Ivan Kuzmitxek emaztearenganantz jiratu eta hala esan zion:

— Zer deritzozu?, izan ere, hobe litzateke emakumeok aldi baterako hemendik urruntzea, harik eta guk matxinoak menperatzen ditugun arte. Ados zaude?

— Lelokeriarik ez esan! —erantzun zion emazteak—. Non da balek iristerik ez duten gotorleku hori? Bielogorskaia ez al da leku segurua? Jainkoari eskerrak, badira hogeita bi urte hemen bizi garela. Bashkirak eta kirgizak ikusi ditugu, eta bertan iraungo dugu Pugatxoven ondoren ere!

— Tira, emakumea —ihardetsi zuen Ivan Kuzmitxek—, gure gotorlekuan horren uste handia duzunez, gera zaitez. Baina zer egingo dugu Masharekin? Gaitz erdi nagusitzen bagara edo laguntza heldu arte eusten badiogu; baina, eta gaizkileek gotorlekua hartzen badute?

— Ba, zera... —Orduan, Vasilisa Jegorovna bere jarduna eten eta isilik geratu zen. Oso asal-datuta zegoela ematen zuen.

— Ez, Vasilisa Jegorovna —jarraitu zuen komandanteak, agian aurreneko aldiz bizitza

osoan bere hitzek eragina zutela ikusirik—. Ez da komeni Masha hemen geratzea. Orenburgera bidaliko dugu, amabitxiarengana: han soldadu eta kanoi asko dago, eta murrua harrizkoa da. Eta zuk hobe zenuke berarekin batera alde egitea; zaharra bazara ere, pentsa ezazu zer gertatuko zaizun erasoan gotorlekua hartzen badute.

— Ondo da —esan zuen komandantearen emazteak—, aterako dugu Masha hemendik. Baina ezta txantxetan ere ez eskatu berarekin batera alde egiteko: ez naiz joango. Zaharra naiz, eta orain ez naiz zugandik bereiziko zertarako eta bazter arrotz batean hilobi bakarti bat bilatzeko. Elkarrekin bizi izan gara eta elkarrekin hilko gara.

— Nahi duzun bezala —esan zion komandanteak—. Tira, ez dugu denbora galtzeko astirik. Prestatu Masha bidaiarako. Bihar bertan bidaliko dugu eguna argitu bezain laster, eta, jende gehiegi ez daukagun arren, gizon batzuk eman-go dizkiogu bidean babes dezaten. Baina non da orain?

— Akulina Pamfilovnaren etxean —erantzun zuen komandantearen emazteak—. Ondoezik

jarri da Nijneozernaia hartu dutela entzun duenean. Beldur naiz ez ote den gaixotuko. Ene Jainko zeruetakoa!, hamaika ikusteko jaioak gara!

Vasilisa Jegorovna alabaren bidaia antolatzerara joan zen. Solasaldiak aurrera egin zuen komandantearen etxean, baina ordurako nik ez nuen parte hartzen, entzun ere ez nuen egiten zer esaten zuten. Afalorduan, Maria Ivanovna agertu zen, zurbil eta begietan malkoen arrastoa zuela. Isilik afaldu eta ohi baino lehenago altxatu ginen mahaitik. Familia osoa agurtu eta nor bere etxera erretiratu zen. Baina nik, berariaz, sablea ahaztu nuen eta haren bila itzuli nintzen: zainak eman zidan bakarrik aurkituko nuela Maria Ivanovna. Izan ere, berak zabaldu zuen atea, eta sablea eman zidan. «Agur, Piotr Andreitx! —esan zidan negar batean—. Orenburgera bidaliko naute. Zoriona opa dizut, eta bizitza luzea; agian, Jainko Jaunak berriro elkartuko gaitu egunen batean; hala ez balitz...» Hipaka hasi zen. Besarkatu egin nuen. «Agur, nire aingerua —esan nion—. Agur, nire maitea, aire bihotzeko laztana! Alboan ez bazaitut ere, ziur egon nire azken pentsamendua eta nire azken



otoitza zuretzat izango direla!» Masha negar-  
zotinka ari zen, nire bularraren kontra estuturik.  
Sutsuki musu eman eta presaka irten nintzen  
gelatik.

## VII. atala

# ERASOA

*Ene burua, ene burutxoa,  
ene buru soldadutzan zaildua!  
Hogeita hamahiru urtez  
armadan zerbitzatu arren  
ez du izan, ai!,  
ez onurarik, ez pozaldirik,  
ez diote hitz gozorik esan,  
ez goi-kargurik eman.  
Ene buruaren sari bakarra:  
urka-bilur lakarra,  
bi habe luzanga  
eta astigarrezko langa.*

Herri-kanta

Gau hartan ez nuen begirik bildu. Arropak erantzi ere ez nuen egin. Eguna argitzean Maria Ivanovna gotorlekuko ate nagusitik aterako zen, eta hara joateko asmoa nuen, azken agurra egi-tera. Aldaketa handia sumatzen nuen neure bai-tan: arimako ezinegona arestian nire gogoaz

jabetua zen tristura baino askoz ere zama arinagoa zen. Maria Ivanovna-arengatik bereizi beharrek eragiten zidan goibeltasuna nahasirik ageritzen itxaropen lauso baina gozoezin, arriskuaren zain egoteak sortzen zidan larriminarekin eta handinahi zintzozko sentimendu batekin. Ohar-tzerako, joana zen gaua. Etxetik irtetera nindoala, atea zabaldu eta kabu bat azaldu zen. Jakinaz zidan gauetz gure kosakoek gotorlekutik ihes egin zutela, Julai indarrez eramanda, eta jende ezezaguna zebilela ingurumarian. Izutu egin ninduen Maria Ivanovnak alde egiterik izango ez zuelako ideiak. Presaka kabuari agindu batzuk eman, eta ziztuan jo nuen komandantearengana.

Ordurako, argitua zuen eguna. Korrika bizian nindoan kaletik eta, halako batean, norbait niri deika ari zela entzun nuen. Gelditu egin nintzen. «Nora zoaz? —galdetu zidan Ivan Ignatitxek parera iristean—. Ivan Kuzmitx hesi-babesean dago eta zure bila bidali nau. Heldu da Pugatx». «Alde egin du Maria Ivanovnak?», galdetu nion bihotz-ikaraz. «Ezin izan du —erantzun zidan Ivan Ignatitxek—, Orenburgeko bidea itxita

dago, eta gotorlekua inguratuta. Egoera larria gurea, Piotr Andreitx!»

Hesi-babesera joan ginen. Naturak berez osatutako lubeta zen, hesolez sendotua. Ordurako, han bildurik zeuden gotorlekuko bizilagun guztiak. Goarnizioa armetan jarria zen. Kanoia aurreko egunean eraman zuten arrastaka haraino. Komandantea hara eta hona zebilen bere soldadu-sail urriaren aurrean. Arriskuaren hurbilak ezohiko adorez hornitzen zuen gudari zaharra. Estepan, gotorlekutik ez oso urrun, alde batetik bestera zebiltzan hogeitabat zaldizko. Itxuraz, kosakoak ziren, baina bashkirak ere baziren haien artean, aise antzematen zitzaien hori katamotz-laruzko txanoak eta gezi-ontziak ikusita. Komandanteak itzulia egin zuen bere armadaren inguruan, soldaduei hala mintzatzen zitzaizela: «Tira, mutilak, borroka gaitzen gaur geure ama erreginaren alde, eta erakuts diezaiogun mundu guztiari jende bulartsua eta leiala garela!» Soldaduek oihuka adierazi zuten beren atxikimendua. Shvabrin nire aldamenean zegoen eta arretaz begiratzen zion arerioari. Estepan zebiltzanak, gotorlekuan mugimendua zegoela

oharturik, elkarrengana bildu eta eztabaidan hasi ziren. Komandanteak kanoia taldearenganantz zuzentzeko agindu zion Ivan Ignatixi. Ondoren, berak piztu zuen metxa. Kanoi-bala txistuka igaro zen etsaien gainetik, inolako kalterik egin gabe. Zaldizkoak sakabanatu eta lauoin-ka galdu ziren begien bistatik, estepa mor gabe utzita.

Orduan, Vasilisa Jegorovna agertu zen hesi-babesean. Masha berarekin zetorren, ez baitzuen amarengandik banandu nahi. «Zer berri? —galdetu zuen komandantearen emazteak—. Zer moduz doa batalla? Non da etsaia?» «Etsaia ez dabil urrun —erantzun zuen Ivan Kuzmitxek—. Jainkoak nahi badu, onik aterako gara. Zer, Masha, beldur haiz?» «Ez, aitatxo —erantzun zuen Maria Ivanovnak—, beldurgarriagoa da etxean bakarrik egotea». Orduan, niri begiratu, eta, gogotik ahalegindurik, irribarre egitea lortu zuen. Nahi gabe, sablearen eskutokia ukitu nuen, gogora etorri baitzitzaidan bezperan Masharen eskutik jaso nuela, jasotze hura neure maitea defendatzeko agindua balitz bezala. Sutan neukan bihotza. Masharen zalduna nintze-

la irudikatu nuen. Beraren uste osoa merezi nuela erakutsi nahi nion, eta ezinegonez nengoen zirt edo zarteko abagunearen zain.

Bitarte horretan, zaldizko gehiago agertu ziren, samaldaka, gotorlekutik versta erdira zegoen muino baten atzetik, eta, berehala, ezin konta ahala gizonak estali zuten estepa, lantzaz eta arkuz armaturik denak. Haien artean bazen gizon bat zaldi zuri baten gainean, kaftan gorria soinean eta sable biluzia eskuan: Pugatxov zen. Gelditu egin zen; gerlariak ingurura bildu zitzaizkion, eta, inondik ere berak hala aginduta, lau gizon taldetik bereizi eta lauoinka bizian etorri ziren gotorlekuraino bertaraino. Segituan antze-man genien: gure traidoreak ziren. Haietako batek paper-orri bati eusten zion txanoaren azpian; beste batek Julairen burua zekarren lantzan iltzatuta. Askatu, eta gure aldera bota zuen oholesiaren gainetik. Kalmuko dohakabearen burua komandantearen oinetara erori zen. Traidoreak oihuka hasi ziren: «Ez tiro egin; irten hortik, zatozte erregearengana. Hemen da erregea!

Baita zera ere! Astindu ederra emango dizuet! —garrasi egin zuen Ivan Kuzmitxek—.

Mutilak, tiroka!» Gure soldaduak tiroka hasi ziren denak batera. Gutunari eusten zion kosakoa zaldi gainean zabuka hasi eta lurrera erori zen. Gainerakoak, atzea emanda, itsumustuan urrundu ziren. Maria Ivanovnari begiratu nion. Julairen buru odoleztatuaren ikuspenak zurtuta, tiroen danbadek sorgortuta, korderik gabe zegoela zirudien. Komandanteak kabuari deitu eta hildako kosakoak eskuan zeukan papera hartzeko agindu zion. Kabuak zelaira atera eta hildakoaren zaldia ekarri zuen bridatik helduta. Gutuna eman zion komandanteari. Ivan Kuzmitxek bere golkorako irakurri, eta txiki-txiki egin zuen gero. Bitartean, bazirudien matxinoak erasoari ekiteko prestatzen ari zirela. Luze gabe balak txistuka hasi ziren gure belarrien ondoan, eta gezi batzuk gugandik hurbil iltzatu ziren lurrean eta oholesian. «Vasilisa Jegorovna! —esan zuen komandanteak—. Hau ez da leku egokia emakumeentzat; eraman ezazu Masha hemendik; ez al duzu ikusten neska gajoa ez hilik ez bizirik dagoela?»

Vasilisa Jegorovnak, balek lasaiturik, esteparra begiratu zuen, zeinean mugimendu handia nabaritzen baitzen. Gero, senarrarenganantz

jiratu, eta esan zion: «Ivan Kuzmitx, bizia eta heriotza Jainkoaren esku daude: bedeinka ezazu Masha. Masha, hurbildu aitarengana».

Masha, zurbil eta izu-ikaraz, Ivan Kuzmitxengana hurbildu zen, belauniko jarri eta lurra ukitzera ino makurtu zuen burua. Komandante zaharrak gurutzearen seinalea egin zion hiru aldiz; gero, zutiarazi, musu eman, eta hala esan zion, ahotsa bestelakoturik zuela: «Masha, zoriotsua izan. Otoitz egin Jainkoari: berak ez hau sekula abandonatuko. Gizon on bat aurkitzen badun, eman diezazuela Jainkoak maitasuna eta bakea. Bizi zaitezte Vasilisa Jegorovna eta biok bizi izan garen bezala. Eta orain, agur, Masha. Vasilisa Jegorovna, eramazu hemendik lehenbailehen». (Masha, aitaren lepotik esekita, negar-zotinka hasi zen.) «Musu eman diezaiogun elkarri —esan zuen, negarrez, komandantearen emazteak—. Agur, nire Ivan Kuzmitx maitea. Barkaidazu inoiz haserrarazi edo mindu bazaitut!» «Agur, agur, bihotza! —esan zuen komandanteak, emaztea besarkaturik—. Tira, nahikoa da! Zoaz, zoaz etxera; eta, astirik baduzu, nekazari-soineko bat jantzi Mashari». Urrundu zen



komandantearen emaztea alabarekin batera. Begiradaz jarraitu nion Maria Ivanovnari; berak atzera so egin eta buruaz agurtu ninduen. Orduan, Ivan Kuzmitxek, guganantz jiratuta, etsaien aldean josi zuen arreta osoa. Matxinoak buruzagiaren inguruan bilduta zeuden eta, hala-ko batean, zaldietatik jaisten hasi ziren. «Orain, mutilak, eutsi gogor —esan zuen komandanteak—, badatoz...» Eta, une horretantxe, garrasi eta oihu ikaragarriak entzun genituen; matxinoak herio suharrean zetozen gotorlekurantz. Metrailaz kargatuta geneukan kanoia. Komandanteak, ahal beste hurbiltzen utzi, eta, ustekabean, tiro egin zien ostera ere. Metrailak erdi-erdian jo zuen gizostea. Erasotzaileak alde banatara egin eta ihesi joan ziren. Buruzagia aurrealdean geratu zen bakarrik... Airean eragiten zion sableari, eta, itxuraz, sutsuki bihotz ematen zien bere gizona... Garrasiek eta oihuek, une batez isildu baziren ere, berriro urratu zuten airea. «Tira, mutilak —esan zuen komandanteak—, orain, zabaldu atea eta jo danborra. Mutilak!, aurrera, erasoan, zatozte nire atzetik!»

Begien itxi-ireki batean, komandantea, Ivan Ignatix eta hirurok gotorlekuko hesi-babesaz bestaldean ginen; baina goarnizioa, izaturik, ez zen lekutik mugitu. «Zertan zaudete hor geldirik, umeak? —oihu egin zien Ivan Kuzmitxek—. Bizia eman behar badugu, eman egingo dugu: hori da soldaduon eginbeharra» Une hartan, matxinoak guganantz oldartu eta bortizki sartu ziren gotorlekuan. Isildu zen danborra; goarnizioak fusilak bota zituen; lurrera eraitsi ninduten, baina zutitu eta matxinoekin batera sartu nintzen gotorlekuan. Komandantea, burua zaurituta, zutik zegoen gaizkile-mordo baten erdian. Giltzak ematera behartu nahi zuten. Harengana oldartu nintzen, laguntzera, baina kosako sendo batzuek harripatu eta gerrikoez lotu ninduten, hala zioten bitartean: «Orain ikusiko duzue zer gertatzen zaien erregeari gogor egiten diotenei!» Arrastak eraman gintuzten kaleetan barrena; herritarak etxeetatik ateratzen ziren ogiarekin eta gatzarekin. Durundi egiten zuen kanpaien errepikak. Bat-batean, jendartearen aldarrikatzen hasi ziren erregea plazan zegoela presoan zain eta leialtasuna zin eragin behar ziela. Jendeak trope-

lean jo zuen plazara; bertara eraman gintuzten bultzaka.

Pugatxov besaulki batean eserita zegoen komandantearen etxeko ataurrean. Galoiz betetako kosako-kaftan gorria zeukan soinean. Buruan, berriz, lepahori-larruzko txano luze urrezko borlez apaindua, begi distiratsuen pare-raino ondo sartuta. Ezaguna egin zitzaidan haren aurpegia. Inguruan bilduta zituen gudaiburu kosakoak. Aita Gerasim, zurbil eta dardaraz, zutik zegoen ataurrean, gurutzefika eskuan zuela, eta, zirudenez, ahapeka otoitz egiten ari zen berehalaxe hilko zituztenen alde. Plazaren erdian, urkabea altxatzen ari ziren presaka. Bertaratu ginenean, bashkirek herritarrak baztertu eta Pugatxoven aurrean jarri gintuzten. Kanpai-hotsa etenik, isiltasun erabatekoa nagusitu zen. «Nor da komandantea?», galdetu zuen iruzurtiak. Kosakoen sarjentuak jendetzatik bereizi eta Ivan Kuzmitx seinalatu zion. Pugatxovek mehatxuz begiratu zion agureari, eta esan: «Nolatan ausartu zara niri, zure erregeari, aurka egiten?» Komandanteak, zauriaren eraginez akiturik, geratzen zitzaion indar apurra atera eta ahots

sendoz erantzun zion: «Zu ez zara nire erregea, lapur eta iruzurti hutsa besterik ez zara! Entzun duzu?» Pugatxovek bekozko iluna jarri, kopeta zimurtu, eta zapi zuri bati eragin zion. Kosako batzuek kapitain zaharrari heldu eta herrestan eramán zuten urkabera. Bezperan galdekatu genuen kosakoa langaren gainean zegoen zangalatraba eserita. Soka zerabilen eskuan, eta, handik lipar batera, airean dingilizka ikusi nuen Ivan Kuzmitx dohakabea. Ondoren, Ivan Ignatitx ekarri zuten Pugatxoven aurrera. «Leialtasun-zina egin Piotr Fiodorovitx erregeari», esan zion Pugatxovek. «Zu ez zara gure erregea! —erantzun zuen Ivan Ignatitxek, kapitainaren hitzak errepikatuz—. Lapur eta iruzurti hutsa besterik ez zara!» Pugatxovek berriro eragin zion zapi zuriari, eta gudalburu zaharraren aldamenean eseki zuten teniente errukarria.

Nire txanda zen. Beldurrik gabe begiratzen nion Pugatxovi, nire lagun bihotz-zabalen erantzuna errepikatzeko prest. Orduan, zur eta lur eginik geratu nintzen, zeren Shvabrin ikusi bainuen matxinoen gudalburuen artean, ilea biribil moztuta eta kosako-kaftana soinean. Pugatxo-

vengana hurbildu, eta zerbait xuxurlatu zion belarrira. «Urka ezazue!», esan zuen Pugatxovek, niri begiratu ere egin gabe. Urka-bilurra jarri zidaten lepo inguruan. Otoitzean hasi nintzen neure artean, Jainkoari neure bekatuen damurik egiazkoena erakutsiz eta adiskide min guztiak salba zitzala erregutuz. Urkamendira arrastatu ninduten. «Ez izan beldur, ez izan beldur», errepikatzen zidaten borreroek, zinez adore eman nahiko balidate bezala. Tupustean, oihu bat entzun nuen: «Egon, madarikatuak!, itxaron!...» Gelditu egin ziren borreroak. Begiratu, eta Save-litx ikusi nuen Pugatxoven aurrean ahozpezturik. «Gure aita kuttun hori! —zioen nire haurtzain gizajoak—. Zer onik ekarriko dizu nire jaunaren semetxoa hiltzeak? Aska ezazu; ordainsari ederra emango dizute mutilaren truke; eta herriaren zentzagarri eta ikara-bide norbait urkatu nahi baduzu, hona hemen agure zahar hau!» Pugatxovek seinale bat egin orduko, lokarriak kendu eta aske utzi ninduten. «Gure jaun errukiorrak bizia barkatu dizu», esan zidaten. Ezin esan dezaket salbatu izanak poz handirik eman zidanik une hartan; ez dut esango, hala ere, atseka-

berik eragin zidanik. Nire sentimenduak nahasiegiak ziren. Berriro eraman ninduten iruzurtiarengana, eta belauniko jarrarazi haren aurrean. Pugatxovek esku kozkortsua luzatu zuen nigantz. «Muin egin eskuan, muin egin eskuan!», zioten nigandik hurbil. Nik, ordea, aukeran nahiago nukeen erarik ankerrenean hil umilazio nardagarri hori jasan baino. «Piotr Andreitx, nire jauna! —xuxurlatu zidan Savelitxek, nire atzean jarrita eta bultza eginez—. Ez tematu! Zer axola zuri? Tu egin, baina muin egin eskuan gizatx... (ai ene!) gizon honi, muin egin eskuan». Nik ez nuen zirkinik ere egin. Pugatxovek eskua behe-ratu, eta hala esan zuen maltzurki irribarre eginez: «Pozak zeharo ergelduta utzi du jaun ohoragarri hau. Altxa ezazue!» Lurretik altxatu, eta aske utzi ninduten. Komedia izugarriaren jarraipenari begira geratu nintzen.

Herritarrak zin egiten hasi ziren. Banan-banan hurbildu, gurutzefikari muin egin, eta, gero, burua apaltzen zuten iruzurtiaren aurrean. Goarnizioko soldaduak ere han ziren. Konpainiako jostunak, bere artazi kamutsez armatuta, ilekorda mozten zien. Ondoren, buruari eraginez,

Pugatxoven eskura hurbiltzen ziren. Honek, bar-kamena eman eta bere sailean onartzen zituen. Horrek guztiak hiru ordu inguru iraun zuen. Noiz-bait, Pugatxov besaulkitik altxatu eta ataurretik jaitsi zen bere gudalburuek lagunduta. Zaldi zuria ekarri zioten, basta dotore batez apainduta. Bi kosakok galtzarbe banatatik heldu eta zela gainean eseri zuten. Aita Gerasimi jakinarazi zion beraren etxean bazkalduko zuela. Une horretan, emakume baten garrasia entzun zen. Bandidu batzuek Vasilisa Jegorovna atera zuten arrastaka ataurrera, txima-jario eta larru gorritan. Haietako batek lortua zuen emakumearen gerruntzea bere soinean janztea. Gainerakoek aldean zekartzaten lumatxak, kaizak, te-ontziak, mihiseak eta denetariko traste zaharrak. «Jau-nak! —oihuka zioen atso gajoak—. Eman bakea, utzi joaten. Jainkoarren!, eraman nazazue Ivan Kuzmitxengana». Halako batean, urkabe aldera begiratu eta senarraren gorpua ezagutu zuen. «Deabru malapartatuak! —garrasi egin zuen ero legez—. Zer egin diozue? Ivan Kuzmitx errukarria, nire bihotzeko laztana, soldadu ausart hori. Ez dute ukitu ez prusiarren baionetek ez turkia-

rren balek; ez dute borroka garbian hil, ez, kartzelatik ihes egindako preso batek hil du!» «Isilarazi sorgin zahar hori!» esan zuen Pugatxovek. Kosako gazte batek sableaz jo zuen buruan, eta hilik erori zen aturreko mailadian. Alde egin zuen Pugatxovek, eta herritarrak tropelean abiatu ziren haren atzetik.



# VIII. atala

## GONBIDATU GABEKO MAHAIKIDEA

*Gonbidatu gabeko mahaikidea,  
tatariarra baino txarragoa.*

Esaera zaharra

Hustu egin zen plaza. Ni lehengo leku berean geratu nintzen, neure pentsamenduak antolatu ezinik, hainbeste gertaera izugarrik eragindako zirrarak erabat nahasi baitzidan gogoan.

Ororen gainera, Maria Ivanovna-ren patuaren berri ez jakiteak oinazetzen ninduen. Non ote zen? Zer gertatu zitzaion? Ezkutatzea lortu zuen? Babesleku seguruan ote zegoen?... Goganbehar kezkarritz beteta, komandantearen etxean sartu nintzen... Han ez zen inor; aulkiak, mahaiak, kaizak... puskatuta zeuden; ontziak, hautsita; dena arpilatuta. Korrika igo nintzen goiko solairura zeraman eskailera

estuan gora, eta, aurreneko aldiz bizitza osoan, Maria Ivanovnaren gelan sartu nintzen. Haren ohea ikusi nuen, bandiduek lardaskatuta; armairua apurtuta zegoen eta barruko guztia lapurrek eramanda; kriseilu txiki batek argi motela egiten zuen oraindik ikonoaren egonleku hustuaren aurrean. Paretan esekitako ispilutxoak ere osorik zegoen... Baina non zen komentuko lo-tokia ziru-dien gela xume horren jabea? Lipar batez, susmo ikaragarria sortu zitzaidan buruan: kontu egin nuen bandiduen eskuetan zela... Estutu egin zitzaidan bihotza... Negarrez hasi nintzen, malko mingotsak isuriz maitearen izena behin eta berriro ahoratzen zitzaidan bitartean... Une horretan, hots leun bat entzun nuen. Armairuaren atzetik, Palasha agertu zen, zurbil eta ikaraz dardarka.

— Ah, Piotr Andreitx! —esan zuen, besoak espantuz jatorik—. Nolako eguna! Ikaratzekoa!

— Eta Maria Ivanovna? —galdetu nion, ego-nezinari ezin eutsirik—, zer gertatu zaio Maria Ivanovnari?

— Andereñoa bizirik dago —erantzun zuen Palashak—. Akulina Pamfilovnarenean gorde da.

— Popearen emaztearen etxean! —oihu egin nuen izaturik—. Ene Jainkoa! Hantxe da Pugatxov!

Oldarrean atera nintzen gelatik. Aitaren batean kalean nintzen, eta herio suharrean abiatu nintzen apaizaren etxera, ezeri begiratu edo erreparatu gabe. Oihuak, barre-algarak eta kantak entzuten ziren. Pugatxov jan-edan zalapartatsuan ari zen lagunekin. Palasha korrika etorri zen nire atzetik. Itzalgaizka hurbiltzeko eta inor ohartu gabe Akulina Pamfilovnari deitzeko eskatu nion. Handik gutxira, popearen emaztea ataurrera azaldu zen, eskuan botila huts bat zekarrela.

— Jainkoarren!, non da Maria Ivanovna? — galdetu nion ezin azalduzko bihotz-ikaraz.

— Nire ohean dago gure pinpirina, hortxe bertan, paretaz bestaldean —erantzun zuen popearen emazteak—. Ai, Piotr Andreitx, hurbil izan dugu ezbeharra, baina, Jainkoari eskerrak, ez da arazorik izan: bandiduen buruzagia bazkaltzera eseri bezain laster, neskato gajoa bere senera etorri eta auhenka hasi da!... Odola izoztu zait zainetan. Pugatxovek entzun egin du:

«Nor daukazu hor kexuka, atso zahar horrek?» Nik buru-makurtu handia egin diot: «Loba, jauna; ohean dago, gaixorik, astebete darama horrela». «Eta gaztea da zure loba?» «Bai, gaztea da, jauna». «Ea ba, atso zahar horrek, erakutsidazu». Goitik behera irauli zait barrena, baina ez zegoen ezer egiterik. «Atsegin handiz, jauna; baina neska ez dago ohetik altxatzeko moduan, eta ezin da berorregana etorri». «Ez kezkatu, zaharra, nerau joango naiz ikustera». Eta, hara non, paretaz bestaldeko gelara joan da madarikatua, zabaldu du errezela, eta, horratx!, barrura begiratu du bere aztore-begiekin. Eta ez da ezer gertatu! Zer deritzozu? Jainkoak salbatu gaitu! Eta, sinetsidazu, senarra eta biok prestatzen hasiak ginen jada bi martiri gisa hiltzeko tormentu lazgarrian. Zorionez, berak, gure kuttunak, ez dio antzik eman Pugatxovi. Ene Jainko zeruetakoa, sekulako poza hartu dugu senarrak eta biok! Ai ene! Ivan Kuzmitx gizajoa! Nork horrelakorik espero?... Eta Vasilisa Jegorovna? Eta Ivan Ignatitx? Zergatik hil dute?... Eta zu, zer dela-eta errukitu dira zutaz? Eta zer deritzozu Shvabrinen, gure Aleksei Ivanitxen jokabidea-

ri? Biribil moztu du ilea, eta orain hor barruan dago, haiekin batera jaten eta edaten. Azkarra da, hori argi dago. Eta loba gaixotuarena esan dudanean, aizu, ez dakizu nolako begirada bota didan, sinetsidazu, bazirudien barrua zulatu nahi zidala aitzo zorrotz batez. Hala ere, ez gaitu salatu; eskerrak eman behar horregatik.

Une horretan, mahaikideen mozkor-oihuak eta aita Gerasimen ahotsa entzun genituen. Bazkaldarrak ardoa eskatzen ari ziren, eta etxeko nagusia, berriz, emazteari deika.

— Zoaz etxera, Piotr Andreitx! —esan zidan, asaldaturik, popearen emazteak—. Orain ezin naiz zurekin geratu; bandidu gaizto horiek parrandan dabilta. Zoaz, mozkor-mozkor egin da daude, eta baten batek harrapatzen bazaitu, akabo, zureak egin du. Agur, Piotr Andreitx. Gertatu beharrekoa gertatuko da. Agian, Jainkoak ez gaitu bazter utziko.

Alde egin zuen popearen emazteak. Ni, lasaituxe, neure bizitegirantz abiatu nintzen. Plazatik igarotzean, ikusi nuen nola bashkir batzuk, urka-bearen inguruan bildurik, botak erantzten ari zitzaizkien urkatuei. Esku hartzea alferrikako

balentria zatekeela jabeturik, nekez eutsi nion amorruren bultzadari. Bandiduak alde batetik bestera zebiltzan gotorlekuan, ofizialen etxeak arpilatzen. Matxino mozkortuen deiadarrak entzuten ziren bazter guztietan. Etxera heldu nintzen. Savelitx nire zain zegoen atean. «Jainkoari eskerrak! —atera zitzaion ni ikustean—. Beldurrak nengoen ez ote zinen berriro bandiduen eskuetan izango. Hara zer gertatu den, Piotr Andreitx jauna, alproja horiek dena lapurtu digute: jantziak, burusiak eta izarak, ontziak, gauza guztiak, ez dute ezer laga. Tira, zer egingo zaio ba! Jainkoari eskerrak, bizirik utzi zaituzte! Eta zer, jauna, antzeman diozu kosakoen buruzagiari?»

— Ez, ez diot antzik eman; nor da ba?

— Nola, jauna? Ahaztu duzu ostatuan amarrukeriaz zure berokiaz jabetu zen mozkor hura? Erbi-larruzko tulupa. Berri-berria zen, eta astakilo horrek josturak zarrastatu zizkion soinean janztean!

Harri eta zur eginik geratu nintzen. Izan ere, Pugatxovek nire gidariaren antz harrigarria zuen. Ziurtzat jo nuen Pugatxov eta gidaria biak

bat zirela, eta orduan ulertu nuen nire aldera erakutsitako gupidaren zergatia. Gertaeren arteko lotura bitxiak txundituta utzi ninduen ezinbestean: arlote ibiltari bati opari egindako erbilarruzko tulup arrunt batek urka-bilurretik salbatu ninduen; eta ostatzuz ostatu balantzaka ibiltzen zen mozkortiak, berriz, gotorlekuak setiatu eta kolokan jartzen zuen estatua bera!

— Ez duzu ezer jan nahi? —galdetu zidan Savelitxek, bere ohiturak aldatzeko ezgai—. Etxean ez dago ezer; zerbaiten bila joango naiz eta mokaduren bat prestatuko dizut.

Bakarrik geratu nintzenean, gogoetetan murgildu nintzen. Zer egin behar nuen? Ofizial batentzat, ezin onartuzkoa zen etsaien buruzagiak eskurapetutako gotorlekuan geratzea edo haren sailarekin bat egitea. Batetik, soldadu nintzenez, nire jarduna aberriarentzat baliagarria izan zitekeen lekuan egon beharra nuen, batez ere aberria horren kinka larrian izanik... Bestetik, aldiz, maitasunak indarrez eskatzen zidan Maria Ivanovnaren alboan gera nendin, neskaren defendatzaile eta babesle. Eta, luze gabe egoera nabarmenki aldatuko zela jakin arren, dardara

eragiten zidan Masha nolako arriskuan zegoen irudikatzeak.

Kosako batek eten zuen nire gogoeten haria. Korrika etorri zen jakinaraztera «gure errege prestuak beregana deitzen dizula». «Non da?», galdetu nion, men egiteko prest.

— Komandantearen etxean —erantzun zuen kosakoak—. Bazkalostean, lurrin-bainua hartze-ra joan da gure jaun maitagarria, eta orain lokuluxka egiten ari da. Segituan antzematen zaio gizon berezia dela: bazkarian bi txerrikume errejan ditu oso-osorik; gero, bainu-etxean, hainbeste berotu du ur-lurrina, non Taras Kurotxkinek berak ezin izan baitu jasan, Fomka Bikbaievi eman dizkio urki-abartxoak, eta ozta-ozta suspertu dute ur hotzez. Eta horrela jokutzen du beti, goiari eutsiz; zalantzarik gabe, gizon berezia da... Diotenez, bainu-etxean zegoela, bularrean dituen errege-seinaleak erakutsi ditu: alde batean, bi buruko arranoa, bost kopekeko txanpon baten tamainakoa; beste aldean, berriz, bere irudia bera.

Ez zitzaidan zuhurra iruditu kosakoaren usteak zalantzan jartzea, eta berarekin joan nin-



tzen komandantearen etxera, Pugatxovekiko topaketa nolakoa izango zen aldez aurretik irudikatuz eta zertan amaituko zen asmatzeko ahaleginak eginez. Irakurleak aise igarriko du ez nengoela batere lasai.

Iluntzen ari zuen komandantearen etxera heldu nintzenean. Beltz ageri zen urkabearen eta urkatuen irudi ikaragarria. Komandantearen emazte dohakabearen gorpua ataurrean zegoen oraindik. Bi kosakok zaintzen zuten etxeko sarre-  
ra. Nire bila bidalitako kosakoa etxean sartu zen, iritsia nintzela jakinaraztera. Berehala itzuli zen, eta bezperan Maria Ivanovna horren samur agurtu nuen gelara eraman ninduen.

Ohiz besteko koadroa agertu zen nire begien aurrean. Mahaia zamauz estalita eta boula eta edalontziz beterik zegoen. Pugatxov eta beste hamar bat gizon —kosakoen gudalburuak denak— mahaiaren inguruan eserita zeuden, txanoak eta alkandora koloretsuak jantzita, ardoak beroturik, masailak gorri eta begiak firfir. Haien artean ez zeuden ez Shvabrin ez gure kosako-sarjentua, arestiko traidoreak alegia. «Ah! Jaun ohoragarria! —esan zuen Pugatxovek

ni ikustean—. Ongi etorri; eser zaitez, mesedez». Mahaikideek leku egin zidaten elkarrengana estuturik. Isilik eseri nintzen mahaiaren mutur batean. Alboko kosakoak, gazte sendo eta eder batek, ardo arruntez bete zidan edalontzia, baina ukitu ere ez nuen egin. Ikusminez, talde zalapartatsu hura aztertzeari ekin nion. Puga-txov mahaiburuan eserita zegoen, ukondoak mahai gainean bermaturik eta ukabil zabalaz bizar beltzari eusten ziola. Hazpegiek, eratsuak eta nahikoa atseginak baitziren, ez zuten inolako bihotz-gogortasunik erakusten. Sarritan, berrogeita hamar bat urteko gizon bati zuzentzen zitzaion. Batzuetan, kondea deitzen zion, beste batzuetan, berriz, Timofeitx, eta noizean behin, osaba. Lagun gisa tratatzen zuten denek elkar, buruzagiaren alderako begirune berezirik erakutsi gabe. Goizeko erasoak, matxinadaren arrakasta eta etorkizuneko ekintzak zituzten mintzagai. Bakoitzak bere balentrien berri ematen zuen barro-barro, nork bere iritziak azaltzen zituen eta beldurrik gabe eztabaidatzen ziren denak Puga-txovekin. Eta, gerra-batzar bitxi hartan, Orenburgera joatea erabaki zuten: ekintza ausarta eta,

ondo ateraz gero, gure hondamena ekarriko zukeena. Baina, zorionez, porrot egingo zuen. Biharamun goizean abiatzea erabaki zuten. «Tira, adiskideak —esan zuen Pugatxovek—, lotara joan aurretik, ekin diezaiogun denok batera nire kantarik gogokoenari. Txumakov! Hasi!» Nire alboko kosakoa zirgatzaille-kanta triste bat abesten hasi zen ahots apalez, eta gainerakoek korua egiten zioten:

*Ez zaratarik atera, harizti maitea,  
ez trabarik jarri gazte jator honen gogoetei.  
Epaile zorrotz batengana joan behar dut bihar,  
tsarrak berak epaituko nau,  
eta hala galdetuko:*

*Esadazu, mutiko,  
esadazu, nekazari- seme hori,  
norekin ibili zara lapurretan,  
lagun asko ziren zurekin batera?  
Dena esango dizut, jaun agurgarria,  
egia osoa aitortuko dizut;  
lau lagun ziren nirekin:  
lehena, gau iluna,  
bigarrena, altzairuzko aizto zorrotza,*

*hirugarrena, nire zaldi bizkorra,  
eta laugarrena, arku sendo eta malgua,  
nire mezulariak, berriz, ondo gozatutako geziak.  
Eta orduan, hala esango dit tsar handiak:  
bejondeizula, nekazari- seme hori,  
lapurtzen jakin duzu, eta erantzuten asmatu,  
sari ederra emango dizut:  
zurezko etxe polita esteparen erdian,  
bi zutabe luzerekin eta langa sendo batekin.*

Ez dago azaltzerik zenbaterainoko zirrara eragin zidan urkabeari buruzko herri-abesti horrek urkabean hiltzera kondenatuta zeudenen ahotan. Aurpegi beldurgarriek, ahots ozenek eta hitz berez adierazgarriek ematen zieten ukitu goibelak, horrek guztiak, halako izu poetiko batez dardarazi ninduen.

Mahaikideek beste edalontzi bana hustu zuten, mahaitik altxatu eta agur egin zioten Pugatxovi. Haien atzetik joan nahi izan nuen, baina Pugatxovek hala esan zidan: «Eser zaitez; hitz egin nahi dut zurekin». Bakarrik geratu ginen, begiz begi.

Pixka batean isilik egon ginen biok. Pugatxovek arretaz begiratzen zidan eta, tarteka, ezkerreko begia naretzen zuen, imintzio horrek maltzurkeriaren eta isekaren kutsu bitxia eransten ziola haren begitarteari. Azkenean, barreka hasi zen, eta haren alaitasuna hain zen benetakoa, non nik ere barre egin bainuen, nahiz eta ez nekien zergatik.

— Zer, jaun ohoragarria? —esan zidan—. Aitor ezazu zeharo kikildu zinela nire mutilek soka lepo inguruan ipini zizutenean. Latzak eta beltzak ikusi zenituen, ezta? Izan ere, zure morroiak esku hartu izan ez balu, langatik zintzilik egongo zinateke orain. Kolpetik antzeman nion zaharkilo horri. Susmatu zenuen, jaun ohoragarria, estepako aterpera eramán zintuen gizon hura zure erregea bera zela? (Orduan, eite arranditsu eta misteriozkoa hartu zuen). Oker larria egin duzu —jarraitu zuen—, baina bizia barkatu dizut zintzo jokatu zenuelako nirekin eta mesede handia egin zenidalako neure etsaiengandik ezkutatu beharra izan nuenean. Eta hau hasiera besterik ez da! Gehiago emango dizut

botere osoa eskuratzen dudanean! Hitz ematen didazu leialtasunez zerbitzatuko nauzula?

Hain iruditu zitzaizkidan jostagarriak sasi-erregearen galdera eta ausarkeria non, eutsi ezinik, erdi irribarre egin bainuen.

— Zer dela-eta irribarretxo hori? —galdetu zidan, kopeta zimurtuta—. Ez duzu sinesten erregea naizela? Itzulitururik gabe erantzun.

Aztoratu egin nintzen. Ezin erregetzat ezagutu arlote alderrai hura: ezin barkatuzko koldarke-ria neritzon. Aurpegira esatea gezurti hutsa zela, aldiz, neure burua hiltzeko arriskuan jartzea zatekeen; lehentxeago, urkabearen azpian nengoela, haserrealdiaren aurreneko garrak eraginda herri osoaren aurrean hori egiteko prest egon banintzen ere, alferrikako balentria neritzon ordurako. Aiko-maiko nengoen beraz. Pugatxov kopetilun zegoen erantzunaren zain. Azkenean (orain ere gogobeterik oroitzen naiz une horretaz), eginbidearen sena giza ahuleziari nagusitu zitzaion nire barnean. Hala erantzun nion Pugatxovi: «Entzun, egia osoa esango dizut. Zerorrek erabaki ea erregetzat har zaitzakedan. Gizon

azkarra zara, eta zeure kabuz konturatuko zinateke gezurretan ariko nintzatekeela».

— Orduan, zure iritziz, zer naiz?

— Zure jainkoak daki; baina, zarena zarela, oso joko arriskutsua darabilzu.

Pugatxovek begiratu arina egotzi zidan: «Beraz, ez duzu sinesten ni Piotr Fiodorovitx erregea naizela? —esan zuen—. Tira, ondo da. Baina, ez al da egia arriskatzen denak aldeko izaten duela zortea? Antzina, Grishka Otrepiev ez al zen ba errege izatera heldu? Nahi duzuna pentsa ezazu nitaz, baina ez aldendu nigandik. Zer axola zuri gainerako guztiak? Pope izaterik ez duenak badu sakristau izatea. Zuk arduraz eta leialtasunez zerbitzatu, eta nik, ordainetan, mariskal eta printze egingo zaitut. Zer deritzozu?»

— Ez —erantzun nion irmo—. Jatorri noblekoa naiz; leialtasun-zina egin diot erregina enperatrizari: ezin zaitut zerbitzatu. Eta egiatan nire ongia nahi baduzu, uztazu Orenburgera joaten.

Pugatxov pentsakor geratu zen. «Eta joaten uzten badizut —esan zuen—, hitz emango didazu gutxienez ez zarela nire aurka borrokatuko?»

— Nolatan hitz emango dizut hala egingo dudala? —erantzun nion—. Zuk zeuk ondo asko dakizu hori ez dagoela nire esku: zure aurka jotzeko agintzen badidate, zure aurka joko dut, ezin besterik egin. Orain buruzagia zara, eta obeditzeko eskatzen diezu zeure gizonei. Zuzena litzateke zerbitzuari uko egitea noiz eta armadak nire beharra duenean? Zure eskuetan nago: alde egiten uzten badidazu, bihotzez eskertuko dizut; hiltzen banauzu, Jainkoak epaituko zaitu. Hara, gutxienez, egia esan dizut.

Egia hain argi aitortu izanak harrituta utzi zuen Pugatxov. «Hala izan dadila —esan zidan, sorbaldan txaplaka eginez—. Zigortuz gero, latza behar du zigorrak. Barkatuz gero, erabatekoa behar du barkamenak. Alde hemendik, nahi duzun tokira joan eta gogoko duzuna egin. Bihar, etorri agurtzera; eta orain, zoaz lotara, ni ere logurak erretzen nago».

Pugatxov utzi, eta kalera irten nintzen. Gaua isila eta hotza zen. Ilargiak eta izarrek biziki distiratsen zuten, plaza eta urkabea argituz. Gotorlekuan dena zegoen lasai eta ilun. Tabernako argia soilik zegoen piztuta, eta parrandazale



berantiarren oihuak besterik ez zen entzuten. Apaizaren etxera begiratu nuen. Leiho-tapak eta atea itxita zeuden. Bazirudien dena lasai zegoe-la han ere.

Neure bizitegira heldu nintzenean, Savelitx oso kezkatuta zegoen kanpoan horren denbora luzea eman nuelako. Aske nintzelako albisteak ikaragarri poztu zuen. «Eskerrik asko, ene Jainkoa! —esan zuen aitaren eginez—. Argitu bezain laster, gotorlekua utzi eta edonora joango gara. Zerbait prestatu dizut, jan ezazu, zoaz ohera eta egizu lo lasai eguna argitu arte».

Hala egin nuen eta, gogo handiz afaldu ondoren, lurrean lokartu nintzen, arima eta gorputza unaturik.

# IX. atala

## BEREIZTEA

*Bai gozoa, maitea,  
zu ezagutu izana;  
zugandik bereiztea,  
bai mingotsa, laztana.*

Kheraskoi

Goizean goiz, danborrak esnatu ninduen. Elkartze-lekura joan nintzen. Bezperan urkatuta-koak sokatik zintzilik zeuden artean ere, eta, urkabearen alboan, lerroka antolatzen ari ziren Pugatxoven osteak, zaldi gainean kosakoak eta fusila eskuan soldaduak. Banderak dar-dar ari ziren airera zabaldurik. Orga banatan ezarriak zituzten hainbat kanoi, eta gurea ezagutu nuen haien artean. Gotorlekuko bizilagun guztiak plazan bilduta zeuden sasi-erregearen zain. Komandantearen etxeko ataurrean kosako batek brida-tik helduta zeukan arraza kirgizeko zaldi zuri eder bat. Komandantearen emaztearen gorpua

bilatu nuen begiekin. Albora pixka bat baztertu-rik zegoen, eta piltzarrez estalita. Azkenean Pugatxov etxeko atarira irten zen. Herritarrek txanoak erantzi zituzten. Pugatxovek ataurrean gelditu eta agur egin zion jendeari. Gudalburue-  
tako batek zaku bete kobrezko txanpon eman zion, eta dirua esku-beteka botatzen hasi zen. Herritarrak oihuka oldartu ziren txanpon bila, eta bat baino gehiago zaurituta irten zen nahaspila hartatik. Pugatxovek bere gaizkide nagusiak zituen inguruan, Shvabrin ere haien artean zela. Elkarrekin topo egin zuten gure begiradek; Shva-brinek erdeinua irakurri zuen nirean, eta bizkarra eman zidan benetako amorrua eta irudizko iseka erakutsiz. Pugatxovek, jendartean ikusi nindue-  
la, buruaz agurtu eta beregana deitu zidan. «Entzun —esan zidan—. Zoaz oraintxe bertan Orenburgera eta nire partetik esan hango gober-nadoreari eta jeneral guztiei aste bete barru han izango naizela. Esaiezu hobe izango dutela semeak aitari zor dion maitasunaz eta otzanta-sunaz hartzen banaute; bestela, modurik izuga-rienean garbituko ditut. Ondo izan, jaun ohora-garria!» Gero, herritarrengana jiratu, eta hala

esan zien Shvabrin seinalatzen zuen bitartean: «Hona hemen komandante berria: zintzo bete beraren agindu guztiak, berak erantzungo dit zuengatik eta gotorlekuagatik». Izularriturik entzun nituen hitz horiek: Shvabrin gotorlekuan nagusi; Maria Ivanovna haren eskumendean! Jainkoa, zer ez zitzaion gertatuko! Pugatxov ataurretik jaitsi zen. Zaldia hurbildu zioten. Zalutasunez igo zen zela gainera, esertzen lagundu nahi zioten kosakoei itxaron gabe.

Une horretan, nire Savelitx jendetzatik bereizi zen, eta ikusi nuen nola Pugatxovengana hurbildu eta paper-orri bat eman zion. Ezin asmatu-rik nengoen zer segituko ote zen hortik. «Zer da hau?», galdetu zuen Pugatxovek arrandiro. «Irakurri eta jakingo duzu», erantzun zion Savelitxek. Pugatxovek papera hartu eta luzaz aztertu zuen oso aire zorrotzez. «Bai mordoiloa zure idazkera —esan zuen azkenean—. Nire begi argiek ez dute tutik ulertzen. Non da nire idazkari nagusia?»

Kabu-uniformez jantzitako gazte bat zitzu bizian hurbildu zen Pugatxovengana. «Irakurri ozenki», esan zion sasi-erregeak papera ema-

teaz batera. Neure haurtzainak Pugatxovi zer idatzi ote zion jakiteko irrikaz nengoen. Idazkaria honakoa irakurtzen hasi zen, ozenki eta silabak argi ebakiz:

— «Bi txabusina, bata kotoizkoa eta bestea zetazkoa eta marraduna: sel errublo».

— Zer esan nahi du honek? —galdetu zuen Pugatxovek bekozko ilunez.

— Irakurtzen segitzeko agindu —erantzun zion Savelitxek lasai.

Idazkariak aurrera egin zuen:

— «Oihal berde finezko uniforme bat: zazpi errublo. Artilezko galtza zuriak: bost errublo. Hamabi alkandora, Holandako hariz josiak eta eskumuturrekin: hamar errublo. Kaiza txiki bat te-ontziekin: bi errublo eta erdi...»

— Zer txatxukeria da hau gero? —galdetu zuen Pugatxovek, irakurketa etenaraziz—. Zer axola didate niri kaizek eta eskumuturrekiko galtzek?

Savelitx ahotsa argitu eta azalpenak ematen hasi zen.

— Ikusten duzunez, jauna, gaizkileek nire nagusiari lapurtu dizkioten ondasunen zerrenda da...

— Zer gaizkilez ari zara? —galdetu zuen Pugatxovek ahotsari mehatxu-doinua emanaz.

— Barkatu, okertu egin naiz —erantzun zuen Savelitxek—. Gaizkileak izan zein ez izan, kontua da zure mutilek gure etxea goitik behera arakatu eta dena kendu digutela. Ez haserretu: zaldia lau hankaren gainean ibiltzen da eta, hala ere, oztopo egiten du. Irakurtzen amaitzeko agindu.

— Amaitu irakurtzen! —esan zuen Pugatxovek. Idazkariak aurrera egin zuen:

— «Perkalezko burusi bat eta beste bat tafetaizkoa eta kotoizkoa: lau errublo. Azeri-laruzko beroki bat, artilezko ehun gorribeltzez forratua: 40 errublo. Eta, gainera, jaun agurgarri hori, nire nagusiak ostatuan eman zizun erbi-laruzko tulupa: 15 errublo».

— Zoro arraioa! —bota zuen Pugatxovek sutan, begiak txingar bi eginik.

Aitor dut beldurrez nengoela haurtzain giza-joari zer gertatuko. Ostera ere ekin nahi izan zion azalpenak emateari, baina Pugatxovek

eten: «Nolatan ausartzen zara ni horrelako husteriekin nekarazten? —galdetu zuen orroka, idazkariari papera eskutik kendu eta Savelitxen aurpegira jaurtikiz—. Zaharkilo ergel alaena! Horra: lapurreta egin diete; ez behar handiagorik! Zaharkote hori, kexuka etorri beharrean, zeure bizitza osoan otoitz egin beharko zenioke Jainkoari ni eta nire mutilen alde zu eta zure nagusia ez urkatzeagatik nire aurka bihurritu diren gainontzekoekin batera... Erbi-larruzko tulupa! Nik emango dizut erbi-larruzko tulupa! Ez al dakizu nahi izanez gero bizirik larrutzeko agindu eta zure larruaz tulup eder askoa egin nezakeela?

— Nahi duzuna egin dezakezu, noski —erantzun zuen Savelitxek—, baina ni menpeko hutsa naiz eta neure nagusiaren ondasunengatik erantzun behar dut.

Pugatxov, inondik ere, bihotz oneko zegoen. Bizkarra eman, eta han alde egin zuen hitz bat bera ere erantsi gabe. Shvabrinek eta gudalburuek atzetik jarraitu zioten. Ostea ordenan atera zen gotorlekutik. Herritarrek lagun egin zioten Pugatxovi. Savelitx eta biok bakarrik geratu

ginen plazan. Haurtzainak eskuetan zeukan bere zerrenda, eta barru-barruko arranguraz begiratzzen zion.

Pugatxovekin ondo konpontzen nintzela ikusita, kontu egin zuen bageneukala hortik onuraren bat ateratzea; baina hutsean geratu ziren haren asmo zuhurak. Errietan hastekotan nengoen kinka larrian geundela horren ardura zorrotzez jokatzegatik, baina ezin izan nion barregurari eutsi. «Barre egin, jauna —erantzun zidan Savelitxek—, barre egin. Ikusiko dugu ea barre egiten duzun geure ondasun guztiak berritzeko premia sortzen zaigunean».

Presaka abiatu nintzen apaizaren etxera, han Maria Ivanovnarekin elkartzeko asmoz. Popearen emazteak albiste txarrak zituen niretzat. Gauean sukar bortitz batek hartu zuen Maria Ivanovna. Ohean zetzan, korderik gabe eta eldarriotan. Popearen emazteak neskaren gelara eramandu ninduen. Zaratarik atera gabe, ohera hurbildu nintzen. Lur jota utzi ninduen Masharen aurpegiak jasandako aldaketak. Gaixoak ez ninduen ezagutu. Luzaz egon nintzen zutik haren aurrean, aita Gerasimi eta beronen emazte



onberari entzun gabe, biak ala biak ere ni kontsolatu nahirik ari baitziren. Pentsamendu ilunek asaldatzen zidaten gogoia. Adore guztia kendu zidaten hala matxino gaiztoen erdian abandonatutako zurtz babesgabe errukarriaren zoriak nola neure ezintasunak berak ere. Shvabrinek, ororen gainera Shvabrinek ziztatzan zidan irudimena. Sasi-erregeak emandako botereaz hornituta, gotorlekuan jaun eta jabe eta haren gorrotoaren jomuga errugabea zen neska zorigaiztokoa bertan zela, edozertara erabaki zitekeen. Zer egin behar nuen? Nola lagundu? Nola askatu bandiduen eskuetatik? Bide bakarra nuen. Berehalaxe Orenburgera abiatzea erabaki nuen, hangoak Bielogorskaia gotorlekua askatzera lehiarazteko eta, ahal izanez gero, horretan laguntzeko prest. Popeari eta Akulina Pamfilovnari agur egin eta sutzuki eskatu nien harrezkero emaztetzat jotzen nuena zain zezaten. Neska gajoaren eskua hartu eta muin egin nion, bertara isuriz neure malkoak. «Agur —esan zidan popearen emazteak, ateraino lagundu ondoren—, agur, Piotr Andreitx. Garai hobean ikusiko ahal dugu elkar! Ez gu ahaztu, eta sarritan idatzi. Orain zu

zara Maria Ivanovna dohakabearen kontsolabide eta babesle bakarra».

Plazara irtendakoan, gelditu une batez, begiratu urkabe aldera, eta buru-makurtua egin nuen. Gero, gotorlekutik atera eta Orenburgeko bideari lotu nintzaion Savelitx orpoz orpo nuela, ez baitzen nigandik aldentzen.

Neure pentsamenduetan gogo-bildurik nindola, bat-batean, zaldien oin-hotsa entzun nuen atzean. Burua jiratu eta hau ikusi nuen: kosako bat arrapaladan zetorren gotorlekutik, urrundik keinuak eginez eta zaldi bashkir bat hedeetatik helduta zekarrela. Gelditu, eta berehala ezagutu nuen gure kosako-sarjentua. Gure parera iritsita, bere zalditik jaitsi eta hala esan zidan bestearen hedeak luzatzen zizkidan bitartean: «Jaun ohoragarria! Gure Aitak opari egiten dizkizu zaldi hau eta bere berokia (artilezko tulup bat zeukan zelara lotuta). Eta gainera —gehitu zuen totala kosakoak—, zera... berrogeita hamar kopek... eman dizkit zuretzat... baina galdu egin zaizkit bidean; barkaidazu, arren!» Savelitxek begiratu okerra bota eta hortz artean esan zion: «Bidean galdu zaizkizu! Eta zer da zure golkoan tintin-

hotsa ateratzen duen hori? Lotsagabea hala-koa!» «Zerk ateratzen du tintin-hotsa nire golkoan? —ihardetsi zuen sarjentuak, batere aztoratu gabe—. Jainkoarren, aitona! Briden soinua da, ez diruarena». «Ondo da —esan nuen, eztabaida etenez—. Nire partetik eskerrak eman hona bidali zaituenari; eta itzulerako bidean saia zaitetz galdutako dirua aurkitzen, eta vodkatan gastatu». «Mula esker, jaun ohoragarria —erantzun zuen, zaldia jiraraziz—, neure bizitza osoan zure alde otoitz egingo diot Jainkoari». Hori zioen bitartean, lauoinka bizian urrunduz zihoan, esku batez golkoari eusten ziola. Apur bat geroago, begien bistatik galdu zen.

Tulupa jantzi, zaldi gainera igo, eta atzean esertzen lagundu nion Savelitxi. «Ikusi duzunez, jauna —esan zidan agureak—, bandiduari aurkeztu diodan eskabidea ez da alferrikakoa izan: lotsatu egin da lapur hori, nahiz eta Bashkiriako zalditxar makal honek eta artilezko tulupak ez duten balio alproja horiek lapurtu digutenaren eta zuk zeure kabuz opari egin zenionaren erdia. Dena deia, ondo etorriko zaigu, eta hobe da txori bat eskuan eta ez bost ezkurreen».

# X. atala

## HIRIAREN SETIOA

*Mendi-zelaiak harturik,  
hiria zelatatzen zuen, arrano antzo, tontorretik.  
Kanpalekuan dorre bat egiteko agindu zuen,  
eta, kanoiak barruan ezkutaturik,  
hirira eraman zuen gauean.*

Kheraskov

Orenburgetik hurbil geundela, preso-saldo handia ikusi genuen, oinak girgiluz lotuta denak, ile-izpirik ez buruan eta aurpegia borreroaren kurrikek itxuragabetuta. Lanean ari ziren babes-eraikuntzen alboan, goarnizioko elbarriek zainduta. Batzuek lubanarroko zaborra ateratzen zuten orgatxoetan; beste batzuek lurra pilatzen zuten palatxoekin; harginak hara eta hona zebil-tzan lurrezko hesi-babesean, adreiluak garraia-tzen harresia konpontzeko. Hiriko atean, jago-leek geldiarazi eta nortasun-agiriak eskatu zizki-guten. Sarjentuak, Bielogorskaiatik heldu berria

nintzela jakin bezain laster, jeneralaren etxera eramán ninduen zuzen-zuzenean.

Baratzean aurkitu nuen. Sagarrondoak aztertzen ari zen, soilduta baitzeuden udazkeneko giroaren eraginez, eta, baratzezain zaharrak lagundurik, lastoa ipintzen zien tentu handiz enbor inguruan. Haren aurpegiak lasaitasuna, osasuna eta onberatasuna adierazten zituen. Poztu egin zen ni ikustean, eta lekuko izan nintzen gertaera lazgarrien galdezka hasi zitzaidan. Dena kontatu nion. Jeneral zaharrak arretaz entzuten zidan eta, bitartean, abar lehorrak mozten zituen. «Mironov gizajoa! —esan zuen neure kontakizun goibela amaitu nuenean—. Bai tamalgarria: ofizial ona genuen. Eta madame Mironova bihotz handiko emakumea zen, eta zein ondo prestatzen zituen perretxiko gaziak! Eta Masha, kapitainaren alaba?» Erantzun nion gotorlekuan geratu zela popearen emaztearen eskuetan. «Ai, ai, ai! —adierazi zuen jeneralak—. Hori bai txarra, oso txarra. Ez dago inola ere bandiduen diziplinan fidatzerik. Zer gertatuko ote zaio neskato errukarriari?» Erantzun nion Bielogorskaia gotorlekua ez zegoela urrun eta

ziur nengoela Bere Gorentasunak berandutu gabe armada bidaliko zuela hiriko biztanle zorigaiztokoak askatzera. Jeneralak buruari eragin zion ote-otean balego bezala. «Ikusiko dugu, ikusiko dugu —esan zuen—, denbora izango dugu horretaz hitz egiteko. Mesedez, arratsaldean etorri nire etxera tea hartzera: gerra-batzarra daukagu eta berri zehatzak eman ahal izango dizkiguzu Pugatxov ustel horretaz eta beraren gudarosteaz. Bitartean, zoaz atsedean hartzera».

Niretzat bereizia zuten bizitegira joan nintzen. Ordurako Savelitx buru-belarri zebilen etxeko zereginetan, eta ni egonezinik geratu nintzen ezarritako orduaren zain. Irakurleak aise igarriko duenez, ez nion huts egin nire patuan horren eragin handia izan behar zuen batzar horretara joateari. Ezarritako ordua jotzerako jeneralaren etxean nintzen.

Han, hiriko funtzionarioetako bat aurkitu nuen. Gogoan dut aduanako zuzendaria zela, agure lodi eta zurigorria bera, soinean zeta distiratsuzko kaftana zeramana. Ivan Kuzmitxen zoriaren galdezka hasi zitzaidan, aitakidea deitzen zion eta sarritan eteten zuen nire kontake-

taren haria galdera osagarriak eta moraltasu-  
nezko oharpenak eginez, eta horrek gerraren  
antzean batere aditua ez zela erakusten bazuen  
ere, agerian ipintzen zituen, behinik behin,  
haren zorroztasuna eta berezko buru-argitasu-  
na. Bitarte horretan, gainerako batzarkideak iri-  
tsi ziren. Jenerala bera izan ezik, haien artean ez  
zen beste militarrik. Denok eseritakoan, eta kika-  
ra bana te zerbitzatu ondoren, jeneralak luze eta  
oso argi azaldu zuen egoera zertan zen. «Orain,  
jaunak —jarraitu zuen—, erabaki behar dugu zer  
bide hartu matxinoei aurre egiteko: eraso ala  
defentsa? Bi bide horietako bakoitzak bere alde  
onak eta txarrak ditu. Eraso hautatuz gero,  
aukera handiagoa izango dugu etsaia berehala  
suntsitzeko; defentsa, ordea, seguruagoa da, eta  
arriskurik gabea... Beraz, orain, nork bere iritzia  
emango du ohiko hurrenkeran, behetik hasita  
graduaren arabera alegia. Jaun alferiza! —gaine-  
ratu zuen, niganantz jiratuta—. Mesedez, azaldu  
zeure iritzia».

Zutitu eta, aurrena Pugatxov eta beraren  
saila hitz laburrez deskribatu ondoren, jakinarazi

zuen ziur nengoela iruzurtia ez zela gauza izango arauzko armada baten erasoari eusteko.

Funtzionarioek gogo gaizto nabarmenez hartu zuten nire iritzia. Gaztearen buru-arintasuna eta neurrigabeko ausardia ikusi zituzten nik esandakoan. Marmarrean hasi ziren denak batera, eta argi eta garbi entzun nuen «umemoko» hitza, baten batek ahapeka esana. Jeneralak niganantz jiratu eta irribarrez esan zidan: «Jaun alferiza! Gerra-batzarretan aurreneko iritzia eraso-ekintzen aldekoak izaten dira beti; gauzen berezko ordena da hori. Orain, jarrai dezagun iritzia biltzen. Gerra-batzordeko aholkulari jauna, zer deritzozu?»

Zeta distiratsuzko kaftanez jantzitako agurreak presaka hustu zuen bere hirugarren kikara, zeinera rona oparo isuria baitzuen. Gero, hala erantzun zion jeneralari: «Nire ustez, jaun txit gorena, ez dugu ez eraso ez defentsa hautatu behar».

Orduan, zer proposatzen duzu, aholkulari jauna? —ihardetsi zuen, harriturik, jeneralak—. Edo eraso, edo defentsa; beste aukerarik ez dago...



— Jaun txit gorena, beste aukera bat ere badago: etsaia erostea.

— Horra!, oso zentzuzkoa da zure iritzia. Taktikaren legeen arabera, zilegi da etsaia erostea, eta kontuan hartuko dugu zure aholkua. Hirurogeita hamar errublo eskain ditzakegu alproja horren buruaren truke... edo ehun... ezkutuko dirutik...

— Edo ni —gaineratu zuen aduanako zuzendariak— gerra-batzordeko aholkularia barik Kirgiziako aharia naiz, edo horrela jokatzuz gero lapur horiek esku-oinak lotuta ekarriko digute beren buruzagia.

— Zure proposamena patxadaz hausnartu eta luze hitz egingo dugu oraindik horretaz —erantzun zion jeneralak—. Baina, dena dela, komeni da gerra-neurriak ere hartzea. Jaunak, nork bere iritzia ager dezala ohiko hurrenkeran.

Iritzi guztiak nirearen kontrakoak izan ziren. Armadaren ahula, garaipenaren ziurgabetasuna, zuhur jokatu beharra eta horrelakoak aipatzen zituzten funtzionario guztiek. Denek uste zuten zentzuzkoagoa zela kanoiek babesturik harresi sendoaren atzean geratzea ezen ez armada zelai

agerira ateratzea ea zorteak gure alde jotzen zuen. Azkenean, jeneralak, iritzi guztiak entzun ondoren, pipatik errautsa hustu, eta honakoa esan zuen:

— Jaunak!, jakinarazi behar dizuet ni erabat ados nagoela jaun alferizaren iritziarekin, zeren iritzi hori zentzuzko taktikaren legeetan oinarriturik baitago; izan ere, taktikak, ia beti, nahiago izaten du eraso defentsa baino.

Hori esandakoan isildu, eta pipa berriro betetzeari ekin zion. Pozarren nengoen garaile atera nintzelako. Harro begiratu nien funtzionarioei, elkarren artean txutxu-mutxuka ari baitziren atsekabeturik eta kezkatuta.

— Hala ere, jaunak —jarraitu zuen jeneralak, arnasa sakon hartu eta kealdi lodia bota ondoren—, ez naiz ausartzen horren erantzukizun handia neure gain hartzen, noiz eta enperatrizaren maiestateak, gure erregina gurgarriak nire ardurapean jarri dituen probintzien segurtasuna jokoan dagoenean. Beraz, gehienek uste dutenez zentzuzkoena eta seguruena dela hiri barruan geratzea setioaren zain eta etsaiaren erasoei artilleriaz eta (ahal izanez gero) irtenaldi

laburrak eginez erantzutea, bat nator gehienen iritziarekin.

Funtzionarioei egokitu zitzaien orduan niri isekaz begiratzeko txanda. Amaitu zen batzarra. Benetan tamalgarria iruditu zitzaidan militar itzaltsu horren txepeltasuna, bere ustea gora-behera jende ezgai eta eskarmentu gabeen iritzira makurtzera erabaki baitzuen.

Zorioneko batzarra egin eta zenbait egun geroago jakin genuen Pugatxov, bere hitzari leial, Orenburgera hurbiltzen ari zela. Matxinoen ostea ikusi nuen hiriko harresien gainetik. Iruditu zitzaidan hamar-halakotu egin zela nik ikusitako azken erasoaz geroztik. Artilleria eta guzti zeukaten, Pugatxovek ordurako menperatuak zituen gotorleku txikietan eskuratua. Gerra-batzordearen erabakia gogoan, kontu egin nuen denbora luzea emango genuela Orenburgeko murruean artean sartuta, eta, amorruearen amorruez, ozta-ozta ez nintzen negarrez hasi.

Ez naiz hemen Orenburgeko setioa deskribatzen hasiko: eginkizun hori historiari dagokio, eta ez famili kontuen gaineko izkribuei. Laborrez esango dut setioa, tokiko agintarien ardura-

gabekeriaren kariaz, hondamena izan zela hiriko biztanleentzat, gose handiak eta mota guztietako ezbeharrak igaro baitzituzten. Erraz da irudikatzen Orenburgeko bizitza zeharo eramanezina zela. Hiritarrak gogo-erorita zebiltzan, haien zoria noiz erabakiko zain; eskasiaz arrangurazten ziren, benetan ikaragarria baitzen. Jendea ohitu egin zen etxarteetan erortzen ziren kanoibaletara; azkenean, Pugatxoven erasoek ez zuten inolako ikusminik pizten. Ni asper-asper eginda nengoen. Denbora aurrera zihoan. Ez nuen gutunik jasotzen Bielogorskaia gotorlekutik. Itxita zeuden bide guztiak. Jasanezina zitzaidan Maria Ivanovnarengandik bereizita egotea. Haren zoriari buruzko berririk eza tortura latza zen niretzat. Zaldiz ibiltzea beste arinbiderik ez neukan. Pugatxovi esker, zaldi eder baten jabe nintzen. Berarekin hainbanatzen nuen janari urna, eta beraren gainean ateratzen nintzen hiritik egunero, Pugatxoven zaldizkoen kontra tiroka aritzera. Asebeterik, mozkor eginda eta zaldi onekin, matxinoak nagusitu ohi ziren tiroketa haietan. Hiriko zaldieriak, indarrak ahiturik, ezin menpera zitzakeen. Batzuetan, gure infanteria

gosetua ere ateratzen zen zelai agerira, baina elurraren sakonak eragotzi egiten zion han-hemenka sakabanatutako zaldizkoen kontra arrakastaz borrokatzea. Artilleria alferrik aritzen zen danbadaka harresiaren gainetik; zelaira ateraz gero, berriz, elurretan trabaturik geratzen zen, zaldi unatuak kanoiak mugitzeko gauza ez zirela. Horra zertan ziren gure gerra-ekintzak! Zeri eta horri deitzen zioten Orenburgeko funtzionarioek zuhurtasuna eta zentzuzkotasuna!

Behinola, aldez edo moldez etsai-talde handi samar bat sakabanatzea eta uxatzea lortu genuen batean, lagunengandik bereizitako kosako batekin topo egin nuen ustekabean. Turkiako sableaz jotzekotan nengoen unean, berak, bat-batean, txanoa erantzi eta oihuka esan zidan:

— Kaixo, Piotr Andreitx! Zer moduz?

Begiratu, eta gure kosako-sarjentua ezagutu nuen. Ikaragarri poztu nintzen.

— Kaixo, Maximitx! —esan nion—. Aspaldi da Bielogorskaiatik irten zarela?

— Ez, Piotr Andreitx jauna; atzo bertan itzuli nintzen hona. Gutun bat daukat zuretzat.

— Non dago? —jaulki nuen, odola irakitan.

— Aldean daramat —erantzun zuen Maximitxek, eskua golkora eramanda—. Kosta ahala kosta emango nizula agindu diot Palashari.

Hori esandakoan, paper tolestu bat luzatu, eta lauoinka bizian alde egin zuen. Gutuna zabaldu eta, goitik behera dardarka, honako lerro hauek irakurri nituen:

*«Bat-batean aitarik eta amarik gabe uztea erabaki du Jainkoak: munduan ez dut ez seniderik ez babeslerik. Zugana jotzen dut, jakin baitakit nire ongia nahi izan duzula beti eta edonori laguntzeko prest dauden horietakoa zarela. Otoitz egiten diot Jainkoari gutun hau nola edo hala zure eskuetara hel dadin! Maximitxek agindu dit eramango dizula. Palashari jakinarazi dio sarritan ikusten zaituela urrundik erasoaldietan eta ez duzula zeure burua batere zaintzen eta ez dituzula gogoan izaten negar-malkotan Jainkoari zure alde otoitz egiten dioten lagunak. Luzaz egon naiz gaixorik; eta sendatu naizenean, Aleksei Ivanovitxek, nire aita zenaren ordezkari hementxo agintari nagusi izendatu baitute, ni beraren eskuetan uztera behartu du aita Gerasim, Puga-*

txoven mehatxua eginez ikaratu ondoren. Gure etxean bizi naiz, zorrotz zainduta. Aleksei Ivanovitxek berarekin ezkontzera behartu nahi nau. Dioenez, Akulina Pamfilovnaren iruzurra estaltzearren salbatu dit bizia, beraren loba nintzela esan baitzien bandiduei. Baina niretzat eramangarriagoa litzateke heriotza, Aleksei Ivanovitx bezalako gizon baten emaztea izatea baino. Kru-deltasun handiz tratatzen nau eta mehatxu egiten dit matxinoen kanpalekura eramango nauela eta Lizaveta Kharlovari egin ziotena egingo didatela niri ere baldin eta iritziz aldatu eta beraren asmoetara makurtzen ez banaiz. Pentsatzeko denbora eskatu diot Aleksei Ivanovitxi. Prest dago hiru egun gehiago itxaroteko; baina hiru egun barru ez banaiz berarekin ezkontzen, ez du nire aldera inolako gupidarik erakutsiko. Piotr Andreitx jauna!, zu zaitut babesle bakarra; defenda ezazu neska dohakabe hau. Eskatu jeneralari eta komandante guztiei lehenbailehen laguntza bidaltzeko eta, ahal baduzu, zatoz zu ere. Apaltasunez agurtzen zaitu zurtz dohakabe honek.

Maria Ivanovna»

Zoratzeko puntuan jarri ninduen gutun hori irakurtzeak. Herio suharrean abiatu nintzen hiri-  
ra, zaldi gajoa batere gupidarik gabe ezproina-  
tuz. Bidean, neska errukarria salbatzeko modu-  
ren bat edo beste asmatzen saiatu nintzen,  
baina ez zitzaidan ezer bururatu. Hirira helduta-  
koan, zuzenean jo nuen komandantearengana,  
eta ziztu bizian sartu nintzen haren etxean.

Jenerala atzera-aurrera zebilen gelan, mag-  
nesitazko pipa errez. Ni ikusi, eta gelditu egin  
zen. Inondik ere, nire itxurak harritu egin zuen;  
arduratsu galdetu zidan zein zen nire etortze  
lehiatsuaren zergatia.

— Jaun txit gorena —esan nion—, semeak  
aitarengana jotzen duen bezala nator zugana;  
Jainkoaren izenean, ez uko egin nire eskabidea-  
ri: jokoan dago nire bizitzako zorion guztia.

— Zer gertatu da, jauna? —galdetu zidan,  
txundituta, agureak—. Zer egin dezaket zugatik?  
Hitz egin.

— Jaun txit gorena, ipini nire agindupean sol-  
dadu-konpainia bat eta berrogeita hamar kosako



eta Bielogorskaia gotorlekua askatzeko baimena eman.

Jeneralak bekoz beko begiratu zidan, inondik ere kontu egin baitzuen burutik jota nengoela (eta ia-ia asmatu zuen).

— Zer diozu gero! Bielogorskaia gotorlekua askatu? —esan zuen azkenean.

— Ziur egon ondo aterako dela —erantzun nion kartsuki—. Zure baimena besterik ez dut behar.

— Ez, gaztea —esan zidan, buruari eraginez—. Oso urrun dago, eta etsaiarentzat ez litzateke batere zaila izango gune estrategiko nagusiarekiko komunikazioa etetea, eta erabateko garaipena lortuko luke zure gainean. Komunikazioa etenez gero...

Ikaratu egin nintzen, gerra-argudioek lilurata ikusi bainuen gizona, eta berehala eten nion jarduna.

— Mironov kapitainaren alabak gutun bat idatzi dit —esan nion—: laguntza eskatzen du. Shvabrinek berarekin ezkontzera behartu nahi du.

— Ba ote gero? Oh, Shvabrin hori *Schelm* hutsa da, eta nire eskuetan erortzen bada hogei-ta lau orduko epean epaitzeko aginduko dut, eta gotorlekuko parapetoan fusilatuko dugu! Baina bitartean, pazientzia hartu behar...

— Pazientzia hartu! —oihu egin nuen neure senetik aterata—. Eta bitartean bera Maria Ivanovnarekin ezkonduko da!

— Oh! —ihardetsi zuen jeneralak—. Hori ez da hain ezbehar larria. Oraingoaz hobe du Shvabrinen emaztea izatea: orain, babeska emango dio; eta fusilatzen dugunean, Jainkoak nahi badu, senargairen bat aurkituko diogu. Alarguntxo poxpolinak ez dira neskazahar geratzen; zera esan nahi dut, alegia alarguntxoek neskatilla gazteek baino arinago aurkitzen dutela senarra.

— Nahiago dut heriotza, Maria Ivanovna Shavbrini utzi baino —esan nuen amorruez.

— Et, et, et! —esan zuen agureak—. Orain ulertu dut: dirudienez, Maria Ivanovnaz maite-minduta zaude. Ah, hori besterik da! Gaztetxo errukarria! Baina, hala ere, ezin dizkizut inola ere eman soldadu-konpainia bat eta berrogeita

hamar kosako. Zentzugabea litzateke horrelako espedizio bat antolatzea eta ezin har dezaket neure gain erantzukizun hori.

Burua makurtu nuen; etsipena jabetu zen nitaz. Bat-batean, ideia bat piztu zitzaidan lipar batez buruan; baina, antzinako eleberrigileek esan ohi zuten bezala, irakurleak hurrengo atalean jakingo du horren berri.

# XI. atala

## MATXINOEN HERRIXKA

*Berez izua izan arren, egun hartan ase zen lehoia.  
«Zertarako etorri zara nire haitzulora?»,  
galdetu zuen onez onean.*

A. Sumarokov

Jenerala utzi eta agudo joan nintzen neure bizitegira. Savelitxek ohiko erretolikarekin egin zidan harrera. «Nagusi jauna, gogoko duzu gero bandidu mozkor horiei kontu hartzen ibiltzea! Aitonen seme baten zeregina al da hori? Jainkoak gordetzen ez bazaitu, zureak egin du: alfer-alferrik galduko zara. Eta gaitz erdi turkiarrak edo suediarrek balira, baina lotsa ere ematen du noren kontra aritzen zaren esateak».

Guztira zenbat diru neukan galdetuz eten nion hitz-jarioa. «Aski daukazu —erantzun zidan gogobeterik—. Alproja gaizto horiek bila eta bila aritu ziren, baina ezkutatzeko denbora izan

nuen». Eta, hori esandakoan, puntuzko diruzorro luzea atera zuen sakelatik, zilarrezko txanponez beteta. «Ederto, Savelitx —esan nion—. Orain, emadazu erdia eta hartu zeuretzat beste erdia. Bielogorskaia gotorlekura noa».

— Piotr Andreitx, nire nagusia! —esan zuen haurtzain onberak ahots dardaratiz—. Ez zara Jainkoaren beldur: nolatan abiatuko zara orain, bandiduekin topo egin gabe inora joaterik ez dagoen sasoi honetan? Zeure burua erruki ez baduzu ere, izan zaitez gutxienez gurasoen erruki. Nora joan behar duzu? Zertarako? Itxaron pixkatxo batean: armada etorriko da eta matxino guztiak harrapatuko ditu; orduan, gogoak ematen dizun tokira joango zara.

Baina nire erabakia sendoa zen.

— Berandu da argudioan hasteko —erantzun nion agureari—. Joan behar dut, derrigorrez joan behar dut. Ez tristatu, Savelitx: Jainkoa bihozbera da; agian elkar ikusiko dugu berriro! Bitartean, dirua ez begiratu eta ez izan zekena. Behar duzun guztia erosi, oso garestia izan arren. Opari egiten dizut diru hau. Hiru egun barru ez banaiz itzultzen...

— Zer diozu, jauna? —eten zidan Savelitxek—. Benetan uste duzu bakarrik joaten utziko dizudala? Horrelakorik ez eskatu gero, ezta txan-txetan ere! Alde egiteko erabakita zaudenez, zure atzetik joango naiz, oinez bada oinez, baina ez zaitut utziko. Zer egingo nuke zu gabe harrizko murru hauen artean? Burutik nagoela uste duzu? Zuk nahi duzuna egin, jauna, baina ni ez naiz zugandik aldentuko.

Ondo asko nekien ez zegoela Savelitxekin eztabaidatzerik, eta, halatan, baimena eman nion bidaiarako presta zedin. Ordu erdi geroago, neure zaldi onaren gainera igo nintzen ni, eta Savelitx, berriz, jadanik jaten zer emanik ez zeu-kala-eta hiriko biztanle batek opari egindako zalditxo makal eta herren baten gainean jarri zen. Hiriko sarrerara iritsi, ate-jagoleek pasatzen utzi, eta Orenburgetik irten ginen.

Iluntzen ari zuen. Berdatik hurbil igaro behar genuen, Pugatxoven osteak gordelekutzat hartutako herrixkaren aldamentetik alegia. Bide nagusia elurrez estalita zegoen, baina estepa osoan barrena nonahi ikusten ziren zaldien aztarnak, egunetik egunera berritzen baitziren. Trostan

nindoan bizkor samar. Savelitxek urrundik jarraitzen zidan neke handiz, behin eta berriro oihuka esaten zidala: «Jauna, astiroago ibili, Jainkoarren, astiroago. Zalditxo madarikatu hau ez da gauza zure deabru hankaluze horri jarraitzeko. Zergatik ibili hain azkar? Festara bagindoaz, tira... baina beharbada borreroaren aizkora daukagu zain... Piotr Andreitx... jauna... Piotr Andreitx!... Jainkoaren izenean, kontuz ibili!... Ai ene, betiko galduko zaigu nagusien semea!»

Handik gutxira, ñirñirka hasi ziren Berdako argiak. Naturak herrixkaren inguruan berezko babes gisa eratutako troketara heldu ginen. Savelitxek, aieneka eta erreguka denbora guttian, ez zidan bakerik ematen. Herrixka arazorik gabe inguratzeko esperantzan nengoela, ustekabean, hagaz armaturiko bost bat mujik ikusi nituen ilunpetan neure aurrez aurre: Pugatxoven gordelekuko aurreneko begirale-taldea zen. Guri deika ari ziren. Ezkutuko hitzak ez jakin eta, txintik atera gabe albotik pasatzen saiatu nintzen; baina begiraleek inguratu egin ninduten berehala, eta haietako batek bridatik heldu zion nire zaldiari. Sablea biluztu eta buruan jo nuen; txa-

noak bizia salbatu zion, baina zabuka hasi zen eta brida askatu zuen. Besteek korrika ihes egin zuten izuturik; egokiera horretaz baliatuta, ezproiez zaldia ziztatu eta lauoinka bizian urrundu nintzen.

Gaingan zen gaua, eta ilunak arrisku orotatik gordeko ninduen. Halako batean, ordea, atzera begiratu, eta ikusi nuen Savelitx ez zela nirekin. Bere zaldi herrenaren gainean, agure dohaka-beak ez zuen bandiduengandik ihes egiterik izan. Zer egin? Puska batean zain egon ondoren, harrapatu egin zutela etsita, zaldia atzera bihurtu eta laguntzera joan nintzen.

Trokarantz nindoala, zarata, oihuak eta Savelitxen ahotsa entzun nituen urrundik. Urratsa azkartu nuen, eta handik gutxira lehentxeago geldiarazi ninduten mujiken artean nintzen berriro. Savelitx haien erdian zegoen. Zalditxotik behera eraitsita, matxinoak agurea lotzeko gertu zeuden. Poztu egin ziren ni ikustean. Garrasika oldartu zitzaizkidan eta aitaren batean zaldi gainetik eraitsi ninduten. Taldeburua zirudien batek jakinarazi zidan bertantxe eramango gintuztela erregearen aurrera. «Eta —gaineratu zuen—



gure jaunak erabakiko du zer egin zuekin: oraintxe bertan urkatu ala eguna argitu arte itxaron». Ez nien gogor egin; Savelitxek nire antzera jokatzen zuten, eta begiraleek garaile-antzean eraman gintuzten berekin.

Troka zeharkatu, eta herrixkan sartu ginen. Argitan zeuden izba guztiak. Zarata eta oihuak entzuten ziren nonahi. Jende asko zebilen kalean, baina, ilun egonik, inortxok ez zigun erreparatu, inor ez zen ohartu Orenburgeko ofiziala nintzela. Zuzenean eraman gintuzten kalekantoian batean zegoen izba batera. Ate alboan ardo upel batzuk eta kanoi bi zeuden. «Hona hemen jauregia —esan zidan mujiketako batek—, oraintxe emango dut zuen berri». Eta izban sartu zen. Savelitxi begiratu nion: agureak gurutzearen seinalea egiten zuten behin eta berriro, ahapeka otoitzen bat esanez. Luzaz itxaron nuen; azkenean, mujikak itzuli eta hala esan zidan: «Zatoz, gure nagusiak ofizialari sartzen uzteko agindu du».

Izban sartu nintzen, edo jauregian, mujikek deitzen zioten bezala. Gantz-kandela bik argitzen zuten barrua eta hormak paper urre-kolorez

estalita zeuden, baina gainerakoan beste edozein izba bezalakoak zen: jarlekuak, mahaia, garbiontzia bere sokatik zintzilik, esku-zapia alboan gako batetik esekita, urkulua zoko batean eta lapikoz betetako koska zabala labearen aurrealdean. Pugatxov ikonoen azpian eserita zegoen, kaftan gorria eta txano luzea jantzita, besoak hazta eginda jarrera hantustetsuan. Bere armakide nagusietako batzuk zituen zutik aldamean, zein baino zein ele-zuriago, apal-itxurak egiten guztiak. Nabaria zen Orenburgeko ofizial bat iritsi berria zelako albisteak ikusmin bizia piztu zuela matxinoen artean eta garaileen handikeriaz harrera egiteko asmoa zutela. Pugatxovek lehen begiratuan ezagutu ninduen. Bat-batean aienatu zitzaion itxurazko hantuste gutia. «Ah, zu zara, jaun ohoragarri hori! —esan zidan bizitasunez—. Zer moduz? Zerk ekarri zaitu hona?» Azaldu nion neure eginkizun bat betetzera nindoala eta beraren gizonak gelditu egin nindutela bidean. «Eta zer-nolako eginkizuna da hori?», galdetu zidan. Ez nuen jakin zer erantzun. Pugatxovek kontu egin zuen ez nuela lekukoen aurrean hitz egin nahi, eta, armaki-

deenganantz jiratuta, izbatik irteteko agindu zien. Hala egin zuten denek, bik izan ezik, ez baitziren lekutik mugitu. «Beldurrik gabe hitz egin dezakezu hauen aurrean —esan zidan Pugatxovek—, ez diet ezer isilean gordetzen». Zeharka begiratu nien iruzurtiaren isilgordariei. Bietako batek, kokots-bizar urdinduko agure erkindu eta konkorra bera, ez zuen ezer nabarmengarririk, oihal latzezko nekazari-berokiaren gainetik besaburuan josita zeraman xingola urdin argia izan ezik. Bestea, ordea, ez zait sekula ahaztuko. Gizaseme sendoa zen, garaia eta bizkar-zabala, eta berrogeita bost urte inguru zituela begitandu zitzaidan. Bizar gorri sarriak, begi gris distiratsuek, hegalik gabeko sudurrak eta bekoki-masailtako orbain gorrikarek ezin azalduzko airea ematen zioten haren aurpegi zabal naparbanari. Alkandora gorria, Kirgiziako longaina eta kosako-galtza bonbatxoak zituen jantzita. Bietan lehena (gerora jakin nuenez) Bieloborodov kabu desertorea zen; bigarrena, berriz, Afanasi Sokolov (Khlopusha ezizenez), kriminal erbesteratua, Siberiako meatzeetatik hirutan ihes egindakoa. Une hartan ni soilik asaldatzen ninduen senti-

mendua gora-behera, hain ustekabean egokitu zitzaidan lagunarteak irudimena barreiatu zidan. Baina Pugatxovek neure baitara etorrarazi ninduen. «Esadazu, zer-nolako eginkizunak atera zaitu Orenburgetik?», galdetu zidan.

Ideia bitxi bat etorri zitzaidan burura: iruditu zitzaidan ezen probidentziak, bigarren aldiz Pugatxovengana eraman baininduen, neure asmoak mamitzeko abagunea eskaintzen zidala. Egokieraz baliatzea erabaki nuen, eta, neure erabakia hausnartzeko betarik izan gabe, Pugatxoven galderari erantzun nion:

— Bielogorskaiara noa, gotorlekuan tratatu iraingarria jasaten ari den zurtz bat askatzera.

Pugatxoven begiek dir-dir egin zuten. «Nire gizonetan nor ausartzen da zurtz bat iraingarri tratatzen? —galdetu zuen oihuka—. Nornahi dela ere, azkar-usteko arraio hori ez da nire zigorretik libratuko. Esan: nor da erruduna?»

— Shvabrin da erruduna —erantzun nuen—. Gatibu dauka popearen emaztearen etxean gaxorik ikusi zenuen neskatxa hura, eta berarekin ezkontzera behartu nahi du.

— Zentzagarri ona emango diot Shvabrini — mehatxu egin zuen Pugatxovek—. Ikusiko du zer dakarren gogoak ematen dion legez jokatzek eta hernia iraingarri tratatzek. Urkatu egingo dut.

— Mesedez, uztazu zerbait esaten —sartu zen Khlopusha, ahotsa zakar—. Lehen, birritan pentsatu gabe izendatu zenuen Shvabrin gotorlekuko komandante eta orain, ez bat ez bi, urkatu egin nahi duzu. Dagoeneko, kosakoak mindu dituzu jaun noble bat haien agintari jarrita. Ez ikaratu orain noble-jendea aurreneko gezur-lai-doa entzunda haietako bat besterik gabe urkatuz.

— Nobleek ez dute ez errukirik ez saririk merezi! —esan zuen xingola urdin argiko agurak—. Lasai asko urka genezake Shvabrin, bost axola!; baina ez legoke batere txarto ofizial jaunari behar den moduko itaunketa egitea: zertarako etorri da? Ez bazaitu erregetzat ezagutzen, ezin dizu justiziarik eskatu. Eta erregetzat ezagutzen bazaitu, zer dela-eta egon da orain arte Orenburgen zure etsaiekin bat eginik? Zergatik ez duzu agintzen gobernu-etxera eramateko eta

han su ederra pizteko: zainak ematen dit ezkutu-ko egitekoren bat betetzera bidali dutela gugana Orenburgeko agintariek.

Gaizkile zaharraren logika edonor etsita uzteko modukoa iruditu zitzaidan. Hotzikara batek goitik behera astindu zidan gorputza noren eskuetan nengoen pentsatzean. Pugatxov nire larriaz ohartu zen. «Eta?, zer deritzozu, jaun ohoragarria? —esan zidan begi-keinua eginez—. Badirudi nire mariskalak bete-betea asmatu duela, ezta?»

Pugatxoven eztenkadak adorea itzuli zidan. Patxadaz erantzun nion beraren eskumendean nengoela eta nahi zuena egin zezakeela nirekin.

— Ondo da —esan zuen Pugatxovek—. Orain, esadazu zer egoeratan dagoen hiria.

— Jainkoari eskerrak —erantzun nuen—, ondo doa dena.

— Ondo? —errepikatu zuen Pugatxovek—. Eta jendea goseak amorratzen!

Iruzurtia zuzen zegoen; baina nik, leialtasun-zinak agindutako jokabideari eutsiz, sinetsarazten saiatu nintzen zurrumurru hutsak zirela eta Orenburg ondo hornituta zegoela.

— Ikusi duzunez —ekin zion berriro agureak— gezurretan ari da inongo lotsarik gabe. Orenburgetik ihes egindako guztiak bat datoz gauza batean: hirian gosea eta izurria dira nagusi, jendeak sarraskia jaten du, eta hori zorte ona dutenek bakarrik; eta jaun agurgarri honek dio denetarik ugari dutela. Shvabrin urkatzen baduzu, eseki ezazu gazte hau langa beretik, horrela ez diote bekaitzez begiratuko elkarri!

Agure malapartatu horren hitzek, nonbait, ukitu egin zuten Pugatxov. Zorionez, armakidearen aurka hasi zen Khlopusha.

— Nahikoa duk, Naumitx! —esan zion—. Jendea urkatzea eta lepoak moztea beste burutape-nik ez duk! Heroia galanta! Hiri begiratu eta ez zekiat non demontre daukaan arima. Azken arnasa ematekotan hago eta hor babil besteak lurperatu nahirik. Ez al duk oraindik nahikoa odollik isuri heure kontzientziaren gainera?

— Orain hitz egin dik gure santuak! —bota zuen Bieloborodovek—. Nondik atera duk hik horren gupida handia?

— Jakina —erantzun zuen Khlopushak—, nik ere bekatu egin diat, eta esku honek (orduan,

ukabil hezurtsua estutu, eta, mahuka gora bildurik, beso iletsua erakutsi zuen), eta esku honek ibaika isurarazi dik kristau-odola. Baina nik etsaiak hil ditiat, gonbidaturik bat ere ez; bidegurutze agerietan eta baso ilunetan bai, ez ordea etxean, labearen alboan eserita; hagaz eta aizkoraz beti, sekula ez gaizki esaka emakumeen antzera.

Agureak bizkarra eman zion, eta hortz artean murduskatu: «Sudurbako arraioa!»

— Zer ari haiz hor marmarka, zaharkiloa halakoa? —erantzun zion oihuka Khlopushak—. Ederra emango dik gero sudurbako arraio honek; egon, laster helduko duk hire txanda; Jainkoak nahi badu, hik ere adituko duk borreroaren kurriken usaina... Baina bitartean, kontuz ibili, bizar ziztrin hori neronek erauziko diat eta!

— Jaun «eneralak»! —aldarri egin zuen Pugatxovek arrandiro—. Aski!, akabo da liskarra! Niri bost axola Orenburgeko txakur guztiek hankak dantzatzen badituzte langa batetik zintzilik. Baina tristea da gero nire txakurrak elkarri haginka ibiltzea. Tira, bakezkoak egin.



Khlopushak eta Bieloborodovek, hitzik esan gabe, bekozko ilunez begiratu zioten elkarri. Ordurako jabetuta nengoen ezinbestekoa zela mintzagaiz aldatzea, zeren, niri zegokidanez, elkarrizketa hori oso era gogaikarrian amai baitzitekeen. Pugatxovenganantz jiratu eta doinu alaiz esan nion: «Hara!, ahaztu egin zait esker-rak ematea zaldiagatik eta tulupagatik. Zu gabe, bidean izoztu eta ez nintzen hirira iritsiko».

Amarruak arrakasta izan zuen. Pugatxov alaitu egin zen. «Mesedea mesede truk —esan zuen, begiak ñarrotuz eta kliskatuz—. Orain, esadazu: zergatik kezkatzen zara horrenbeste Shvabrinek iraingarri tratatzen duen neska horretaz? Txoraturik dauka neskatilak gazte ausartaren bihotza?, eh?»

— Nire emaztegaia da —erantzun nion Pugatxovi, ekaitza baretu zela ikusita ez bainion beharrezko iritzi egia ezkutatzeari.

— Zure emaztegaia! —oihu egin zuen Pugatxovek—. Zergatik ez didazu lehenago esan? Ezkondu egingo zaitugu, eta ezkontza ospatu, bai horixe! —Ondoren, Bieloborodovenganantz

jiratuta—: Entzun, mariskala! Jaun agurgarri hau eta biok aspaldiko lagunak gara; elkarrekin afalduko dugu; gauzak argiago ikusten dira goizean arratsean baino. Bihar ikusiko dugu zer egin berarekin.

Gustura uko egingo niokeen gonbidapen adeitsu horri, baina ez neukan hori egiterik. Bi neska kosakok —izbaren jabearen alabak— mahaia zamau zuri batez estali, eta ogia, arrainzopa, ardoa eta garagardoa ekarri zituzten; eta bigarren aldiz aurkitu nintzen Pugatxovekin eta beraren lagun beldurgarriekin mahai baten inguruan bilduta.

Ni gogoz kontrako lekuko nintzela, orgiak gau berandu arte iraun nuen. Azkenean, mozkorra afaldarrak menperatzen hasi zen. Pugatxov lo geratu zen bere lekuan eserita; gainerakoak altxatu, eta bakarrik uzteko keinua egin zidaten. Haiekin batera irten nintzen. Khlopusharen aginduz, begirale batek gobernu-etxera eramanez ninduen. Savelitx aurkitu nuen han, eta giltzapean itxi gintuzten biok. Gertatutako guztiak hain utzi zuen txundituta haurtzaina, non ez baitzidan galdera bat bera ere egin. Ilunpetan etzan, eta

luzaz aritu zen hasperenka eta auhenka; azke-  
nean, zurrungan hasi zen. Nik, aldiz, gogoetetan  
murgilduta, begiak ezin bildurik eman nuen gau  
osoa.

Goizean, deika etorri zitzaizkidan Pugatxoven  
izenean. Haren izbara jo nuen. Atean kibitka bat  
zegoen, zaldi tatariarrez osatutako troika uztar-  
tuta zeukala. Jende asko zegoen kalean. Puga-  
txov ataurrean aurkitu nuen biderako prest,  
larru-zamarra eta Kirgiziako txanoa jantzita. Bez-  
perako solaskideak haren ingurura bilduta zeu-  
den, apal eta otzan, aurreko egunean nik ikusita-  
ko guztiaren kontra bortizki jotzen zuen portaera  
erakutsiz alegia. Pugatxovek alaiki agurtu eta  
berarekin batera kibitkara igotzeko agindu  
zidan.

Eseri egin ginen. «Bielogorskaia gotorleku-  
ra!», esan zion Pugatxovek erlaitzean zutik troi-  
ka gidatzen zuen tatariar bizkar-zabalari. Bihotza  
indarrez pilpiraka jarri zitzaidan. Zaldiek bideari  
ekin zioten, txilina dilin-dalan hasi eta han abia-  
tu zen kibitka ziztu bizian...

«Geldi! Geldi!», durundi egin zuen ondoegi  
ezagutzen nuen ahots batek. Jiratu, eta Savelitx

ikusitu nuen gure atzean korrika. Pugatxovek kibitka gelditzeko agindu zuen. «Piotr Andreitx, nire nagusia! —zioen haurtzainak oihuka—. Ez utzi agure zahar hau gizatx... zera... jende hauen erdian bakarrik». «Hara, gure zaharkiloa! —esan zuen Pugatxovek—. Jainkoak berriro elkartu gaitu. Tira, igo erlaitzera».

— Eskerrik asko, jauna, eskerrik asko, aita gupidatsu hori! —zioen, erlaitzean esertzen zen bitartean, Savelitxek—. Jainkoak gorde zaitzala!, ehun urte bizi zaitezela agure zahar honetaz errukitu eta zeure babesean hartzeagatik. Otoitz egingo dut beti zure alde, eta aurrerantzean ez dizut gehiago aipatuko erbi-larruzko tulupa.

Beldur nintzen zorioneko tulupak ez ote zuen azkenean Pugatxov bene-benetan haserraraziko. Zorionez, edo ez zituen Savelitxen hitzak argi entzun, edo ez zuen kontuan hartu ezgaraiko aipamena. Zaldiak lauoinka bizian zihoazen; herritarrek kalean gelditu eta ia lurra ukitzeraino makurtzen zuten burua. Pugatxovek ezker-eskuin agurtzen zituen buruaz. Herrixkatik berehala irten eta, bidea laua izaki, herio suharrean jo genuen aurrera.

Aise igar daiteke zer sentitzen nuen une horretan. Ordu gutxiren buruan berriro ikusiko nuen harrezkero galdutzat jotzen nuen emakumea. Berarekin elkartuko nintzeneko unea irudikatzen nuen... Buruan nerabilen, halaber, nire patuaren jabe zen eta, gertaeren uztartze bitxi baten ondorioz, nirekin horren lotura misteriozkoa zeukan gizona. Gogora zetozkidan nire maittea salbatu nahi zuen gizonaren krudeltasun burugabea eta ohitura odoltsuak. Pugatxovek ez zekien neska hura Mironov kapitainaren alaba zela; gerta zitekeen Shvabrinek, amorruaren amorruez, guztiaren berri ematea; gainera, Pugatxovek bazeukan beste bide batzuetatik ere egia jakitea... Zer gertatuko zitzaiokeen orduan Maria Ivanovnari? Buruko ileak laztu eta hotzikara batek astindu zidan gorputza...

Bat-batean, Pugatxovek niganantz jiratu eta gogoeten haria eten zidan galdera batekin:

— Oso pentsakor zaude, jaun ohoragarria; zer darabilzu buruan?

Nolatan ez naiz ba pentsakor egongo! — erantzun nion—. Ofiziala eta noblea naiz; atzo bertan zure aurka borrokatzen ari nintzen, eta

gaur, aldiz, zure aldamenean noa kibitka batean, eta nire bizitzako zorion guztia zure eskuan dago.

— Eta zer? —galdetu zuen Pugatxovek—, beldur zara?

Erantzun nion behin bizia barkatu zidanez gero, orain nitaz urrikaldu ez-ezik lagundu ere egingo zidalakoan nengoela.

— Eta zuzen zaude, alajaina, zuzen zaude! —esan zuen iruzurtiak—. Ikusi duzunez, nire gizonek begi gaiztoz begiratzen dizute; gaur bertan, zaharra etorri zait esaka zelataria zarela eta torturatu egin behar zaitugula, eta gero urkatu. Baina ni ez naiz berarekin bat etorri —eta, aho-tsa beheraturik, Savelitxek eta tatariarrek entzuterik izan ez zezaten, gaineratu zuen—: gogoan ditut zure edalontzi vodka eta erbi-larruzko tulu-pa. Dakusazunez, ez naiz zure adiskideek dioten bezain odoltzalea.

Bielogorskaia gotorlekua nola hartu zuten etorri zitzaidan gogora; baina ez zitzaidan egokia iruditu eztabaidan hastea, eta ez nion ezer erantzun.

— Zer diote nitaz Orenburgen? —galdetu zidan Pugatxovek isilune labur baten ondoren.

— Ba, diote zaila dela zu menperatzea; dudarik gabe, ederto erakutsi duzu nor zaren.

Harrotasuna agertu zen iruzurtiaren aurpegian.

— Bai horixe! —esan zuen ahots-doinu alaiz—. Borrokalari bikaina naiz. Orenburgen badute Juzeievaiako batailaren berri? Berrogei eneral hilda, lau gudaroste preso. Zer uste duzu?, Prusiako erregea gai litzateke niri aurre egiteko?

Barregarria iruditu zitzaidan bandiduaren ahoberokeria.

— Eta zuk zer uste duzu? —galdetu nion—. Gai zinateke Federiko zapaltzeko?

— Fiodor Fiodorovitx? Nolatan ez gero! Dagoeneko zuen eneralak menperatu ditut; eta haiek bera jipoitu zuten. Orain arte nire armadak aldeko izan du beti zortea. Emadazu denbora eta ikusiko duzu zer gertatzen den Moskura heltzen naizenean.

— Moskura joateko asmoa duzu?

Iruzurtia lipar batez pentsakor gelditu, eta ahapeka esan zidan:

— Hori, Jainkoak daki. Estu geratu zait bidea, askatasun handiagoa behar dut. Nire gizonak azkarrarena egiten dute. Lapur hutsak dira. Erne egon behar dut beti: porrot eginez gero, nire burua salduko lukete beren lepoa salbatzeko.

— Horratx! —esan nion Pugatxovi—. Ez zenuke hobe berandu baino lehen jende hori bazter uztea eta gure erregina bihozberarengana jotzea barkamen eske?

Pugatxovek erdi irribarre egin zuen, mingots.

— Ez —erantzun zuen—, berandu da damutzeko. Niretzat ez da barkamenik izango. Hasitako bideari jarraituko diot. Batek daki! Agian lortuko dut! Grishka Otrepievek Moskun erreinatu zuen.

— Eta badakizu nola amaitu zuen? Leihotik bota zuten, lepoa moztu, gorpua erre, errautsekin kanoia kargatu, eta tiro egin zuten!

— Entzun —esan zidan Pugatxovek halako barne-etorri basa batek eraginda—. Txikitan atso kalmuko batek esan zidan ipuina kontatuko dizut. Behinola, galdetu zion arranoak beleari:



esadazu, belea, zergatik zu hirurehun urte bizi izaten zara munduan, eta ni hogeita hamahiru besterik ez? Eta beleak erantzun: ba, adiskidea, zuk odol bizia edaten duzulako eta nik, ordea, sarraskia jaten dudalako. Orduan, arranoak proposatu zion: jan dezagun biok gauza bera, ea zer gertatzen den. Beleak ondo iritzi zion. Hegaz joan ziren arranoa eta belea, eta halako batean zaldi baten gorpua begiztatu zuten; lurrera jaitsi eta zaldi hilaren gainean pausatu ziren biak. Beleak mokoka eraso zion sarraskiari, janariaren gozoa goraipatuz. Arranoak mokokada bat eman, beste mokokada bat eman, hegoei eragin, eta hala esan zion beleari: ez, anaia belea, hobe behin bakarrik odol bizia edatea, hirurehun urtez haragi ustela jatea baino! Zer iruditu zaizu kalmukoaren ipuina?

— Zorrotza —erantzun nion—. Baina, nire iritzi, hiltzea eta lapurtzea sarraskiz elikatzearen pareko da.

Pugatxovek harritura begiratu zidan eta ez zuen ezer erantzun. Isilik geratu ginen biok, nor bere gogoetetan murgilduta. Tatariarra kanta malenkoniatsu bat abesten hasi zen; Savelitx,

erdi lo, zambuluka ari zen erlaitzean; kikitka egi-  
nahalean zihoan neguko bide leunetik... Bat-  
batean, herrixka bat ikusi nuen Jaik ibaiaren ertz  
malkartsuan, bere oholesiarekin eta kanpando-  
rrearekin. Ordu-laurden bat geroago, Bielogors-  
kaia gotorlekuan sartu ginen.

## XII. atala

# ZURTZA

*Ez hostorik ez kimurik  
gure sagarrondoak.  
Ez aitarik ez amarik  
gure printzesatxoak;  
ezkonsaririk ez,  
nork bedeinkatu ez.*

Ezkon abestia

Kibitka komandantearen etxeko ataurrera iritsi zen. Herritarrak, Pugatxoven troikako txilinari antzemanik, samaldaka etorri ziren gure atzean korrika. Shvabrin ataurrera irten zen iruzurtiari ongi etorria egitera. Kosakoen erara jantzirik zegoen eta hazita zeukan bizarra. Traidoreak kibitkatik jaisten lagundu zion Pugatxovi, hitz zitalez bere poza eta atxikimendua adierazten zizkiola. Aztoratu egin zen ni ikustean; baina asaldura berehala gainditu eta eskua luzatu zidan, hala esanez: «Zu ere gurekin? Bazen

garaia!» Bizkarra eman eta ez nion ezer erantzun.

Bihotza erdibitu zitzaidan aspalditik ezagutzen nuen gela hartan sartu nintzenean. Komandante zenduaren diploma horman esekita zegoen oraindik, iragan denboraren epitafio tristea bailitzan. Emaztearen erretolikak logaletuta Ivan Kuzmitxek lo-kuluxka egin ohi zuen dibanean eseri zen Pugatxov. Shvabrinek berak zerbitzatu zion vodka. Pugatxovek kopa hustu eta hala esan zion ni seinalatuz: «Edatekoa eskaini jaun ohoragarri honi ere». Shvabrin nigana hurbildu zen erretiluarekin, baina nik bizkarra eman nion berriro. Estu eta larri zebilela ematen zuen. Inondik ere, bere ohiko ohartasunari esker, ordurako jabetua zen Pugatxov haserre zegoela berarekin. Kikilduta ageri zen buruzagiaren aurrean, eta errezeloz begiratzen zidan niri. Pugatxovek hainbat galdera egin zizkion gotorlekuko egoeraz, etsaiaren gaineko zurrumurruez eta bestelako gora-beherez, eta bat-batean, Shvabrin ustekabean harrapatuta, galdera hau bota zion:

— Esadazu, adiskidea, nor da giltzapean daukazun neska hori? Erakutsi.

Shvabrin mihisea baino zuriago jarri zen.

— Jauna... —esan zuen ahots dardaratiz—, jauna, ez daukat giltzapean... gaixorik dago... ganbaran, bere ohean.

— Eraman nazazu berarengana —esan zuen iruzurtiak bere lekutik altxatzeaz batera. Ez zegoen uko egiterik. Shvabrinek Maria Ivanovna-ren gelarantz gidatu zuen Pugatxov. Nik atzetik jarraitu nien.

Eskaileran geundela, Shvabrinek urratsa gelditu zuen.

— Jauna! —esan zuen—. Niri nahi duzuna eskatzeko aginpidea duzu; baina ez utzi arrotz bati nire emaztearen logelan sartzen.

Dardarka hasi nintzen.

— Beraz, ezkondu zara! —esan nion Shvabrini, hortxe bertan txikitzeko prest.

— Ixo! —eten zidan Pugatxovek—. Hau nire kontua da. Eta zuk —jarraitu zuen, Shvabrini begira—, azkarrarena ez egin eta ez hasi zurikerietan: zure emaztea bada eta ez bada, gogoak ematen didanarekin sartuko naiz. Jaun ohoragarria, zatoz nirekin.

Ganbarako atean, Shvabrinek berriz gelditu eta ahots etenez esan zuen:

— Jauna, jakinarazi behar dizut sukar handia duela eta hiru egun daramatzala eldarniotan.

— Ireki atea! —esan zion Pugatxovek.

Shvabrin sakelak arakatzen hasi zen, eta esan zuen ez zuela giltza aldean hartu. Pugatxovek ostikoa eman zion ateari; giltzarrapoa hautsita, atea ireki zen eta barrura sartu ginen.

Begiratu, eta odola izoztu zitzaidan zainetan. Maria Ivanovna, nekazari-soineko zarpatsua jantzita, lurrean eserita zegoen, zurbil, argal, tximajario. Pegar bete ur zeukan aurrean, eta ogipuska bat honen gainean. Ni ikustean, zirgitegin eta oihuka hasi zen. Ez dut gogoan zer gertatu zitzaidan une hartan.

Pugatxovek Shvabrini begiratu, eta hala esan zion erdi irribarre mingots batekin:

— Zurea bai eritegi ederra! —Gero, Maria Ivanovnarengana hurbilduta—: Esadazu, laztana, zergatik zigortu zaitu senarrak?, zer egin diozu?

— Senarra! —errepikatu zuen neskak—. Ez da nire senarra. Sekula ez naiz berarekin ezkon-

duko! Aukeran nahiago dut heriotza, eta hilko naiz salbatzen ez banaute.

Pugatxovek mehatxuzko begirada egotzi zion Shvabrini.

— Ni engainatzeko atrebentzia izan duzu! — esan zion—. Badakizu zer merezi duzun, alproja horrek?

Shvabrin belauniko jarri zen... Une horretan, erdeinuak barnean ito zidan gorroto eta amorruguztia. Nazkaz ikusi nuen nola noblea lurrean arrastaka zebilen kosako iheslariaren aurrean. Pugatxov bigundu egin zen.

— Oraingoan barkatu egingo dizut —esan zion Shvabrini—, baina kontuan izan hutsik txikiena eginez gero honetaz ere gogoratuko naizela.

Gero, Maria Ivanovnarenganantz jiratu eta amultsuki esan zion:

— Zoaz, polit hori; opari egiten dizut askatasuna. Erregea nauzu.

Maria Ivanovnak begiratu arina bota zion, eta behingoan konturatu zen gurasoen hiltzailea zeukala aurrean. Bi eskuekin aurpegia estali eta konorte gabe erori zen. Oldarrean jo nuen bera-

rengana; baina une horretan, Palasha, nire aspaldiko ezaguna, adorez beteta sartu zen gelan eta bere andereñoaz arduratu zen. Pugatxov ganbaratik irten zen eta beheko gelara jaitsi ginen hirurok.

— Zer, jaun ohoragarria? —esan zidan, barrez, Pugatxovek—. Salbatu dugu neska polit hori! Zer deritzozu?, bidaliko dugu norbait popearen bila eta loba ezkontzera behartu? Ni zure aita pontekoa izango naiz, eta Shvabrin emaztegaiarena. Parranda itzela egin eta sekulako mozkorra harrapatuko dugu!

Nik susmatzen nuena gertatu zen orduan. Shvabrin, Pugatxoven proposamena entzunda, bere onetik atera zen.

— Jauna! —ekin zion oihuka, ero legez—. Erruduna naiz, onartzen dut. Baina Griniovek ere iruzur egin dizu. Neska ez da popearen loba: Ivan Mironoven, gotorlekua hartutakoan urkatu zenuen komandantearen alaba da.

Pugatxovek finko begiratu zidan, begietatik sua zeriola.

— Zer da hau gero? —galdetu zidan nahasita.



— Shvabrinek egia esan dizu —erantzun nion, irmo.

— Baina zuk ez didazu inoiz horrelakorik aipatu —ohartarazi zidan Pugatxovek, aurpegia ilunduta.

— Zerorrek erabaki —erantzun nion— ea zure gizonei esan niezaiekeen Mironoven alaba bizirik zegoela. Haginka birrinduko zuten. Ezerk ez zuen salbatuko.

— Arrazoi duzu —esan zuen, barrez, Pugatxovek—. Mozkor-saldo horrek ez zuen neska gajoaren gupidarik izango. Eskerrak popearen emazteak ziria sartu zien, ondo egin zuen.

— Entzun —jarraitu nuen, gogo oneko zegoe-la ikusita—. Ez dakit nola deitu behar dizudan, eta ez dut jakin nahi... Baina Jainkoak badaki neure biziarekin ordainduko nizukeela, eta pozik gainera, nigatik egin duzuna. Baina ez eskatu nire ohorearen edo kristau kontzientziaren kontra jotzen duen ezer. Neure ongilea zaitut. Hasi bezala amaitu: utzi alde egiten zurtz dohakabe horrekin Jainkoak erakusten digun bidetik. Eta gu, zauden tokian zaudela eta gertatzen zaizuna

gertatzen zaizula, egunero otoitz egingo diogu Jainkoari zure arima bekataria salba dezan...

Antza, samurturik zegoen Pugatxoven bihotz gogorra. «Tira, zure erara jokatuko dugu! —esan zuen—. Zigortuz gero, latza behar du zigorrak. Barkatuz gero, erabatekoa behar du barkamenak. Horra nire legea. Hartu zeure emaztegai ederra eta eraman ezazu gogoko duzun tokira. Jainkoak eman diezazuela maitasuna eta bakea!»

Hori esandakoan, Shvabrinenganantz jiratu eta bere agindupeko zaintza-postu eta gotorleku guztietarako pasa-baimena eman ziezadan agindu zion. Shvabrinek, zeharo lur jota, harri eginda zegoela zirudien. Pugatxov gotorlekua ikuskatzerara joan zen. Shvabrinek lagun egin zion; eta ni etxean geratu nintzen, bidaiarako prestatu behar nuelako aitzakian.

Korrika igo nintzen ganbarara. Atea itxita zegoen. Jo egin nuen. «Nor da?», galdetu zuen Palashak. Izena esan nion. Maria Ivanovnaren ahots atsegina entzun nuen atiaz bestaldean. «Itxaron, Piotr Andreitx. Jantzia aldatzen ari naiz.

Zoaz Akulina Pamflovna etxera, ni segituan joango naiz».

Obeditu, eta aita Gerasimen etxera abiatu nintzen. Popea eta emaztea lasterka atera ziren niri abegi egitera. Ordurako Savelitxek jakinaren gainean jarriak zituen. «Kaixo, Piotr Andreitx —esan zidan popearen emazteak—. Jainkoak berriro ekarri zaitu gurera! Zer moduz? Gogoan izan zaitugu egunero-egunero. Eta gure Maria Ivanovna maiteak ikaragarri sufritu du zu gabe! Baina esadazu, jauna, nolatan konpondu zara hain ondo Pugatxovekin? Zergatik ez zaitu hil? Tira, horregatik besterik ez bada ere, eskerrak eman behar gaizkileari». «Nahikoa da, emakumea, isil zaitez! —eten zion jarduna aita Gerasimék—. Hitz-ontzi, huts-ontzi. Asko hitz egiteak ez du aterik zabaltzen zeruan. Ongi etorri Piotr Andreitx, sartu barrura, adiskidea. Aspalditik ez dugu elkar ikusi».

Popearen emazteak etxean zeukan guztia eskaini zidan. Eta, bitartean, hitz eta pitz ziharduen atergabe. Azaldu zidan Shvabrinek nola behartu zituen Maria Ivanovna beraren eskuetan uztera; nola Maria Ivanovnak, negar batean, ez

zuen haiengandik bereizi nahi; nola Maria Ivanovna harremanetan egon zen beti berarekin Palashkaren bitartez (neska azkarra bera, non eta kosakoen sarjentuari bere soinuaren hotsean dantza eragin ziona); nola berak aholkatu zuen niri gutuna idaztera; eta abar. Txanda hartutakotan, labur kontatu nion neure istorioa. Popea eta emaztea aitarenka hasi ziren Pugatxovek haien iruzurraren berri bazekiela entzun zutenean. «Gurutze santuak babes gaitzala! —esan zuen Akulina Pamfilovnak—. Kenduko ahal du Jainkoak hodei beltz hau lehenbailehen gure gainetik! Ah, eta Aleksei Ivanitxi dagokionez, zer esanik ez: txakur-ale galanta!» Une horretantxe, atea ireki eta Maria Ivanovna sartu zen, irribarreak aurpegi zurbila argitzen ziola. Nekazari-soinekoa erantzita, lehen bezain xume eta atsegin jantzita zegoen.

Eskutik heldu nion, eta puska luze batean ezin izan nuen hitzik esan. Isilik geunden biok, bihotza hunkituta. Etxeko nagusiak konturatu egin ziren ez geundela haiei kasu emateko, eta gelatik irten ziren. Bakarrik geratu ginen biok. Guztiaz ahaztu ginen. Hizketan hasi, eta ezin isil-

du. Maria Ivanovnak gotorlekua hartu zutenetik gertatu zitzaion guztiaren berri jakinarazi zidan; bere egoera zein izugarria izan zen azaldu; Shvabrin doilor horrek pairarazi zizkion neke eta nahigabe guztiak aipatu. Lehengo garai zoriontsuak ere ekarri genituen gogora... Negar egin genuen... Azkenean, neure asmoak azaltzeari ekin nion. Bera ezin zen gotorlekuan geratu, Pugatxoven agindupean eta Shvabrinen menpean; bestetik, ez zegoen Orenburgera joaterik, setioak ekarritako ezbehar guztiak jasaten ari baitzen hiria. Maria Ivanovnak senide bat ere ez zeukan munduan. Beraz, nire gurasoen herrira joatea proposatu nion. Hasieran, zalantzan gertatu zen: bazekien nire aitak ez zuela batere begiko, eta beldur zen. Lasaitu egin nuen ordea. Ziur nengoen aitari zorion handia ez-ezik, nahitaezkoa ere irudituko zitzaiola aberriarengatik hildako militar itzaltsu baten alaba etxean hartzea. «Maria Ivanovna maitea! —esan nion azkenik—. Neure emaztetzat hartzen zaitut jadanik. Hainbat gertaera harrigarrik ezin hautsizko lokarriz lotu gaituzte: munduan ez dago ezer elkarrengandik bereiz gaitzakeenik». Maria Ivanovnak

tolesgabe entzuten zidan, herabe-itxurak egin gabe, alegiazko aitzakiarik asmatu gabe. Sumatzen zuen bere patua nirearekin lotuta zegoela. Baina berriro jakinarazi zidan gurasoen onespenik gabe ez zela nirekin ezkonduko. Ez nion aurka egin. Musu eman genion elkarri, sutsuki eta zintzotasunez; eta horrela erabaki zen gure arteko guztia.

Handik ordubetera, kosakoen sarjentuak pasa-baimena ekarri zidan, Pugatxovek zirrimarra batez sinatua. Esan zidan Pugatxovek nirekin egon nahi zuela. Abiatzeko prest aurkitu nuen. Ezin azaldu zer sentitu nuen niretzat izan ezik beste guztientzat munstro odoltzalea eta giza-txar hutsa zen gizon beldurgarri horrengandik bereizteko orduan. Zergatik ez aitortu egia? Une hartan, erruki handia sentitzen nuen haren alde-ra. Gogo bizia nuen matxinoen buruzagia bere gaizkile-sailetik erauzteko eta, berandu baino lehen, beraren burua salbatzeko. Shvabrinek eta gure ingurura pilaturiko jendetza handiak erago-tzi egin zidaten bihotzean neukan guztia adieraztea.

Adiskide gisa agurtu genuen elkar. Pugatxovek, jendetzaren erdian Akulina Pamfilovna ikusi zuelarik, atzamarraz mehatxatu eta begi-keinu adierazgarria egin nion; gero, kibitkara igo, eta Berdara abiatzeko agindu zuen, eta, zaldiak jadanik trostan zihoazela, burua kibitkako leihatilatik atera eta oihuka esan zidan: «Agur, jaun ohoragarria! Ea egunen batean elkar ikusten dugun berriro». Eta bai, berriro ikusi genuen elkar, baina zer-nolako egoeran!

Alde egin zuen Pugatxovek. Haren troika bizkor urrundu zen estepa zurian barrena, eta luzaz egon nintzen hara begira. Jendetza sakabanatu egin zen. Ez zegoen Shvabrinen aztarnarik. Apai-zaren etxera itzuli nintzen. Dena prest zegoen bidaiarako; ez nuen gehiago atzeratu nahi. Gure ondasun guztiak komandantearen gurdi zahar-rean pilaturik zeuden. Gurtzainek begien itxi-ireki batean uztartu zituzten zaldiak. Maria Ivanovna gurasoen hilobiegi agur egitera joan zen, elizaren atzean ehortzita baitzeuden. Berarekin joan nahi izan nuen, baina bakarrik uzteko eskatu zidan. Minutu batzuk geroago itzuli zen, isilik eta malko leunak isuriz. Prest zegoen gurdia.

Aita Gerasim eta emaztea ataurrera irten ziren. Maria Ivanovna, Palasha eta hirurok kotxean eseri ginen. Savelitx, berriz, erlaitzean. «Agur, Maria Ivanovna, nire kuttuna! Agur, Piotr Andreitx, nire bihotzeko laztana! —zioen popearen emazte onberak—. Ondo izan, Jainkoak zoriona eman diezazuela!» Abian jarri ginen. Shvabrin ikusi nuen komandantearen etxeko leihoan. Haren aurpegiak sumin gaiztoa erakusten zuen. Nik beste aldera bihurtu nituen begiak, suntsitutako etsaia neure pozaz areago ez zapaltzeko. Azkenean, gotorlekuko atetik irten eta atzean utzi genuen betiko Bielogorskaia.



# XIII. atala

## ATXILOTZEA

*Ez haserretu, jauna: nire eginbeharra da,  
preso eraman behar zaitut orain kartzelara.  
— Ondo, prest nago; baina eraman baino lehen  
uztazue azaltzen zer gertatu den.*

Kniajnin

Gertatutakoa ezin sinetsirik nengoen, eta neure artean egiten nuen dena amets hutsa izan zela, goiz hartan bertan neure maitearen zoriaz hain era mingarrian kezkatuta ibili ondoren horren ustekabea elkartu bainintzen berarekin. Maria Ivanovna pentsakor zihoan, begiak aldizka niri eta aldizka bideari atxikirik, eta bazirudien artean durduzaturik eta bere senera itzuli ezinik zegoela. Isilik gindoazen. Nekatuegi genituen bihotzak. Ohartu gabe, bi ordu inguru geroago hurrengo gotorlekuan ginen. Pugatxoven esku-mendean zegoen hura ere. Zaldiak aldatu genituen. Zaldi berriak zein bizkor lotu zituzten ikusi-

ta eta Pugatxovek komandante jarritako kosako bizartsuaren adeitasun lehiatsuari erreparatuta, berehala ohartu nintzen nola, gure gurtzainaren hitz-etorri oparoari esker, sasi-erregearen gorteko begikotzat hartzen ninduten.

Aurrera jarraitu genuen. Iluntzen hasi zuen eta, luze gabe, herrixka bateko aldirietara iritsi ginen. Komandante bizartsuak esan zigunez, destakamendu handi bat zegoen herrixka hartan bilduta, iruzurtiarekin bat egitera abiatzeko prest. Gelditu egin gintuzten begiraleek. «Nor da?» galdera entzunda, gurtzainak ozenki erantzun zuen: «Erregearen adiskide kuttun bat bere emaztearekin». Orduan, husar-mordo batek inguratu gintuen birao ikaragarriak esanez. «Irten zaitez hortik, deabruaren adiskide kuttun hori! —esan zidan zaldieriako sarjentu biboteluze batek—. Ederra emango dizuegu zuri eta zure emazteari!»

Kibitkatik jaitsi eta agintari nagusiarengana eramateko agindu nien. Ofiziala nintzela ikusirik, soldaduek bertantxe utzi zioten biraoak botatzeari. Zaldieriako sarjentuak komandantearengana eraman ninduen. Savelitxek orpoz orpo

jarraitu zidan, bere artean marmarka: «Horra zer ekarri digun erregearen adiskide kuttuna zarela-ko horrek! Otsoari ihes eta hartzak atzeman. Ene Jainkoa!, zertan amaituko da hau guztia?» Kibitka pausoan zihoan gure atzean.

Bost minutu geroago, oso ondo argitutako etxetxo batera iritsi ginen. Zaldieriako sarjentuak jagoleen begipean utzi ninduen eta nire berri ematera joan zen. Berehala itzuli zen, eta jakinarazi zidan Bere Gorentasunak ez zeukala astirik nitaz arduratzeko eta, halatan, ni giltzapean sartzeko eta emaztea berarengana eramateko agindu ziola.

— Zer esan nahi du honek? —galdetu nuen oihuka, suminduta—. Burutik jota al dago?

— Ez dakit, jaun ohoragarri hori —erantzun zidan zaldieriako sarjentuak—. Bakarrik dakit Bere Gorentasunak agindu duela jaun ohoragarri hori giltzapean sartzeko eta jaun ohoragarri horren emazte ohoragarria Bere Gorentasunarengana eramateko!

Ziztu bizian igo nintzen ataurrera. Jagoleek ez zuten ni geldiarazteko asmorik erakutsi, eta oldarka sartu nintzen etxean. Sei bat husar —ofi-

zialak denak— kartetan ari ziren gela nagusian. Komandanteak zeukan banka. Begiratu, eta ahoa bete hortz geratu nintzen: nor ikusiko eta Ivan Ivanovitx Zurin, behinola Simbirskeko tabernan billarrean irabazi zidana!

— Nola liteke? —atera zitzaidan—. Ivan Ivanovitx!, zu zara?

— Arranopola! Piotr Andreitx? Nolatan hemendik? Nondik atera haiz? Primeran, adiskidea, kartetan egin nahi duk?

— Ez, eskerrik asko. Hobe agintzen baduzu bizitegia emateko.

— Bizitegia? Zer arraio!, geratu nire etxean!

— Ezin dut: ez nago bakarrik.

— Ekar ezak ba heure laguna ere.

— Ez nabil lagunekin; zera... dama batekin nago.

— Dama batekin! Non harrapatu duk gero? Hi bai hi, adiskidea! —(Hori esandakoan, txistu egin zuen, horren modu adierazgarrian egin ere non denak barre-algaraka hasi eta ni zeharo aztoratu bainintzen.)

— Tira, ondo zegok —jarraitu zuen Zurinek—. Bizitegia emango diat. Baina tamalgarria duk...

Parrandan ibiliko gintuzkek lehengo garaietan bezala... Eh, mutilak!, zergatik ez didazue oraindik ekarri Pugatxoven adiskide horren emaztea?, tematu egin zaizue ala? Esaiozue beldurrik ez izateko, hemengo nagusia on hutsa dela eta ez diola ezer iraingarririk egingo, ea, emairozue bulzadatxo bat.

— Zertan ari zara? —esan nion Zurini—. Hemen ez dago Pugatxoven adiskiderik batere! Emakume hori Mironov kapitain zenduaren alaba da. Matxinoek gatibu zeukaten, eta nik askatu dut. Orain neure gurasoen herrira eramango dut, eta han geratuko da.

— Arraioa! Orduan, heu haiz oraintsu iragarri didaten gizona? Alajainkoa!, zer esan nahi du honek?

— Gero azalduko dizut. Orain, mesedez, zoaz neska dohakabe hori lasaitzera, zure husarrek ikaratu egin dute eta.

Zurinek agindu batzuk eman zituen berehala, eta bera atera zen kalera Maria Ivanovnari barkamena eskatzera nahi gabeko gaizki-ulertuagatik. Gero, herriko etxerik hoberenera eraman

zezala agindu zion zaldieriako sarjentuari. Nik, ordea, beraren etxean egingo nuen gaua.

Afari-legea egin genuen, eta, bakarrik geratu ginenean, neure abentura guztiak kontatu nizkion. Zurinek arreta handiz entzuten zidan. Amaitu nuenean, buruari eragin zion, eta esan: «Hori guztia, adiskidea, oso ondo zegok; gauza bakarra zegok txarto: zergatik demontre ezkondu behar duk? Ofizial zintzoa nauk eta ez haut engainatu nahi: ezkontzea lelokeria hutsa duk, benetan. Zer dela eta hartu behar duk heure gain emaztea eta seme-alabatxoak zaintzeko nekea? Utikan! Egidak kasu: bereiz hadi kapitainaren alabarengandik. Simbirskeko bidea garbitu diat eta batere arriskurik ez zegok. Bidal ezak bihar bera bakarrik heure gurasoengana, eta hi gera hadi nire destakamenduan. Ez duk Orenburgera itzuli beharrik. Matxinoek ostera harra-patzen bahaute, nekez lortuko duk berriro haien atzaparretatik onik ateratzea. Horrela, maitasunezko txoroaldi horretatik aterako haiz eta bere onera itzuliko duk dena».

Ez nengoen erabat ados berarekin, baina, hala ere, sentitzen nuen ohoreak enperatrizaren

armadan gelditzera behartzen ninduela. Zurinen aholkuari jarraitzea erabaki nuen: Maria Ivanovna gurasoen herrira bidali eta ni beraren destakamenduan geratzea alegia.

Savelitx sartu zen orduan, jantziak erantzten laguntzera; jakinarazi nion biharamunean Maria Ivanovnarekin batera abiatzeko prest egon behar zuela. Hasieran, ezezkoan tematu zitzaidan. «Zer diozu, Jauna? Nolatan utziko zaitut bakarrik? Nork zainduko zaitu? Zer esango dute zure gurasoek?»

Nire hartzaina zein egosgogorra zen jakinik, hitz samur eta zintzoen bidez amore emanarazten saiatu nintzen. «Arkhip Savelitx, nire lagun maitea! —esan nion— Ez esan ezetz, egidak mesede hori; hemen ez diat hire zerbitzuen beharrik izango, eta Maria Ivanovna hi gabe abiatzen bada ez nauk lasai geratuko. Bera zerbitzatzuz, ni zerbitzatzuz nauk, zeren erabaki sendoa hartu baitut: aukera izan bezain laster, berarekin ezkonduko nauk».

Savelitxek besoak jaso zituen, bere harridurak goiajo balu bezala.

— Ezkondu! —errepikatu zuen—. Umeak ezkondu egin nahi du! Eta zer esango du aitak?, eta zer pentsatuko du amak?

— Ados egongo dituk —erantzun nion—, Maria Ivanovna ezagutzen dutenean, ziur ados egongo direla. Eta gauza bera espero diat higan-dik. Gurasoek uste osoa jarria ditek higan: gure alde azalduko haiz, bai?

Hunkiturik zegoen agure zaharra. «Oh!, Piotr Andreitx, nire jauna! —erantzun zuen—. Oraindik gazteegia zara ezkontzean pentsatzen hasteko, baina, bestetik, bekatua litzateke aukera hau galtzea, Maria Ivanovna hain da andereño ona. Tira, nahi duzuna egingo dugu! Lagun egingo diot Jainkoaren aingeru horri, eta morroiaren apaltasunaz adieraziko diet zure gurasoei horrelako emaztegai batek ezta ezkonsaririk ere ez duela behar».

Savelitxi eskerrak eman eta Zurinen gelara joan nintzen lo egitera. Gogo-beroturik eta urduri, kontu-kontari aritu nintzen isildu gabe. Hasieran Zurin gogo onez mintzatzen zen nirekin; baina, apurka-apurka, haren hitzak gero eta bakanago eta lotura gabeago bilakaturik joan



ziren; azkenean, nire galderetako bati erantzun beharrean, zurrungaka eta ziztuka hasi zen. Isildu eta, luze gabe, haren bideari jarraitu nion.

Biharamun goizean, Maria Ivanonvaren bizi-tegira joan nintzen. Neure asmoen berri jakinarazi nion. Zentzuzko iritzi zien eta nirekin bat etorri zen berehala. Zurinen destakamenduak egun hartan bertan atera behar zuen herritik. Ez zegoen denbora galtzeko astirik. Besterik gabe, agur esan nion Maria Ivanovnari, Savelitxen ardurapean utzi eta gutun bat eman nion neure gurasoentzat. Maria Ivanovna negarrez hasi zen. «Agur, Piotr Andreitx! —esan zidan ahots apalez—. Jainkoak bakarrik daki berriro elkar ikusiko dugun ala ez; baina ez zaitut sekula ahaztuko; hil artean, zu bakarrik izango zara nire bihotzean». Ezin izan nion ezer erantzun. Herritarrak gure ingurura biltzen ari ziren, eta ez nuen haien aurrean errenditu nahi barnea inarosten zidaten sentimenduei. Azkenean, alde egin zuen. Zurinen etxera itzuli nintzen, triste eta isilik. Berak alaitu egin nahi ninduen eta nik barrua arintzeko gogoia nuen. Hortaz, zalapartan eta parrandan

eman genuen eguna, eta arratsean bidetari ekin genion.

Hori guztia otsailaren amaieran gertatu zen. Neguak gerra-ekintzak eragozten zituen eta, azkenetan zegoela, gure jeneralak batera erasotzeko prestatzen ari ziren. Pugatxov Orenburg inguruan zegoen oraindik. Bitartean, gure destakamenduak berarengandik hurbil bildu eta alde guztietatik hurbiltzen ari ziren gaizkileen gordelekura. Matxinatutako herrixkek amore ematen zuten gure tropak ikustean; bandidu-aldrak gugandik ihesi zihoazen bazter guztietan. Dena berehala eta ezin hobeto amaituko zelako zantzuz nabarmenak antzematen zitzaizkion egoerari.

Luze gabe, Golitsin printzeak Pugatxov azpiratu zuen Tatisheva gotorlekutik hurbil; haren osteak sakabanatu, Orenburg askatu eta kolpe erabakigarria eman zion matxinadari, akabuko ukaldia itxuraz. Bitartean, bashkir-saldo bat triskatzera bidali zuten Zurin, baina bandiduak berez barreiatu ziren guk ikusi baino lehen. Uda-berriak tatariarren herrixka batean harrapatu gintuen. Errekek gainez egin zuten eta ez zego-

en bideetan ibiltzerik. Bandiduen eta basatien aurkako gerra aspergarri eta ziztrin hura laster amaituko zela pentsatzeak arintzen zigun geldiegona.

Pugatxov, ordea, ez genuen atxilotu. Siberiako lantegietan agertu zen, sail berriak bildu eta ostera hasi zen gaiztakeriak egiten. Haren garai-penen gaineko zurrumurruek zabaldu ziren berriro. Siberiako hainbat gotorleku errautsi zituela jakin genuen. Kazan hiria hartu ondoren iruzurtia Moskurantz zihoalako albisteak estu eta larri jarri zituen armadaburuak, zeren, matxino mesprezagarriaren indarra gutxietsirik, zabarkeriari eta axolagabekeriari emanda baitzeuden. Zurinek Volga zeharkatzeko agindua jaso zuen.

Ez naiz orain hasiko gure bidaiaren nondik norakoa eta gerraren amaiera kontatzen. Labur esango dizuet hondamendiak goiena jo zuela. Matxinoek suntsitutako herriak zeharkatzen genituen, eta, nahitaez, salbatu ahal izan zuten apurra kendu behar izaten genien herritar dohakabeei. Agintea etena zen leku guztietan: lurja-beak basoan ezkutatzen ziren; bandidu-sailek sarraski itzelak egiten zituzten nonahi; hainbat

destakamendutako buruek euren nahierara zigortu eta barkatzen zuten. Benetan ikaragarria zen gerrak gupidarik gabe astindutako lurralde zabal hartako egoera... Jainkoak begira gaitzala Errusiako matxinada baten lekuko izatetik, hain dira zentzugabeak eta ankerrak!

Pugatxov ihesi zihoan, Ivan Ivanovitx Mikhelsonen jazarrita. Laster jakin genuen erabat suntsitu zuela. Azkenean, iruzurtia preso hartu zutelako albistea jaso zuen Zurinek, eta, horrekin batera, gelditzeko agindua. Amaitua zen gerra. Azkenean, gurasoengana itzul nintekeen! Pozez zorutzen nengoen: gurasoak besarkatu eta Maria Ivanovna ikusiko nuen berriro, aspaldian ez bainuen haren berririk izan. Jauzika nenbilen haur baten antzera. Zurinek barre egin eta hala esaten zidan, soinak goratuz: «Ez, oraingoan ez haiz onik aterako! Ezkondu eta alfer-alferrik galduko haiz!»

Baina, aldi berean, sentimendu bitxi batek mingosten zidan poza: hainbeste biktima errugaberen odolaz zirtatutako gaizkilea eta zain zeukan zigorra burura etorri, eta nahi gabe estutzen zitzaidan bihotza. «Jemelia, Jemelia! —pentsa-

tzen nuen gaitzurik—, zergatik ez duk baioneta-  
ren batean oztopo egin edo metrailaren azpian  
erori? Nekez aurkituko hukeen hori baino amaie-  
ra hoberik». Zer egingo zaio! Berarengan pen-  
tsatzean nahitaez etortzen zitzaidan gogora  
bere bizitzako une ikaragarrietako batean nitaz  
errukitu zela eta berak salbatu zuela nire emaz-  
tegaia Shvabrinen eskuetatik.

Zurinek lizentzia eman zidan. Egun batzuk  
geroago berriz izango nintzen neure senideen  
artean, berriro ikusiko nuen neure Maria Ivanov-  
na... Bat-batean, ustekabeko ekaitz batek eraso  
zidan.

Alde egin behar nuen egunean, bideari ekite-  
ko prestatzen ari nintzen unean bertan, Zurin  
nire izbara etorri zen. Paper bat zeukan eskuan  
eta oso kezkatuta zegoela ematen zuen. Zerbai-  
tek ziztatu zidan bihotza. Beldurrak nengoen,  
baina ez nekien zerk ikaratzen ninduen. Nire  
ordenantzari ateratzeko agindu, eta nirekin hitz  
egin behar zuela esan zidan. «Zer dugu?», gal-  
detu nion urduri. «Eragozpen txiki bat —eran-  
tzun zidan papera emateaz batera—. Irakurri,  
oraintxe bertan jaso diat». Papera irakurtzen

hasi nintzen. Isilpeko agindua zen, gudaiburu guztiek bete beharrekoa: nengoen tokian nengola atxilotu eta zaintzapean bidali behar ninduten berehala Kazanera, Pugatxoven epaiketa bideratzeko eratu berria zen ikerketa-batzordearen aurrean ager nendin.

Papera ozta-ozta ez zitzaidan eskuetatik erori. «Ez zegok ezer egiterik! —esan zuen Zuri- nek—. Agindua bete behar diat. Inondik ere, Pugatxov lagun hartuta egin dituan joan-etorrien gaineko zurrumurrak nola edo hala iritsi dituk gobernuaren belarrietara. Espero diat kontu honek ez diala inolako ondorio txarrik ekarriko eta heure burua zurituko duala batzordearen aurrean. Ez bihozgabetu eta ekin bideari». Bakean neukan kontzientzia; ez nintzen epaike- taren beldur; baina elkartzearen une gozoa agian zenbait hilabete atzeratuko zelakoak bel- durra eragiten zidan. Prest zegoen gurdia. Zuri- nek adiskidetsu agurtu ninduen. Gurdira igoara- zi ninduten. Bi husar eseri zitzaizkidan alde banatan, sablea biluzik; eta bide nagusia hartu genuen.

# XIV atala

## EPAIKETA

*Jendeak esan,  
haizeak eraman.*

Esaera zaharra

Etsita nengoen baimenik gabe Orenburgetik alde egin izanak jarri ninduela kinka horretan. Aise zuri nezakeen neure burua: inoiz ez ziguten debekatu bakarka ateratzea etsaiari aurre egitera, aitzitik, horretara bultzatzen gintuzten indar guztiekin. Gehiegizko suhartasunez jokatu izana egotz ziezadaketen, lege-hausterik ez ordea. Baina lekuko askoren bidez froga zitzaketen Pugatxovekiko harreman adiskidetsuak eta, gutxienez, oso susmagarriak irudituko zitzaizkien. Gogoetari emana egin nuen bide osoa, nolako galderak egingo zizkidaten pentsatzen eta zer erantzungo nuen hausnartzen, eta erabaki nuen egia osoa esatea epaileen aurrean, hori

iruditu zitzaidan-eta neure burua garbitzeko biderik errazena eta, aldi berean, seguruena.

Kazanera heldu nintzen. Hiria goitik behera birrinduta eta erreta zegoen. Kaleetan ikatz-pilak zeuden etheen ordez. Keak belztutako horma soilak ageri ziren nonahi, ez leiho ez teilatu. Horra Pugatxoven arrastoa! Gotorlekura eramane ninduten. Zutik eta osorik zegoen hiri kiskaliaren erdian. Husarrek guardiako ofizialaren eskuetan jarri ninduten eta honek erremontariari deitzeko agindu zuen. Oinak katez lotu eta ondo estutu zituen girgiluak. Gero, kartzelara eramane eta bakarrik utzi ninduten leotz estu eta ilun batean. Horma biluziak eta burdin sare batez itxitako leiho txikia besterik ez zen han.

Hasiera horrek ez zidan ezer onik iragartzen. Hala ere, ez nuen galdu ez adorea ez itxaropena. Nahigabetu guztien kontsolamenduari heldu nion, eta bizitzan aurreneko aldiz dastatu nuen bihotz urratu baina makulagabetik jaiotako otoitzaren gozoa. Lasai lokartu nintzen, etortzeko zenaren beldurrik gabe.

Biharamunean, preso zainak esnatu ninduen batzordea zain neukala esanez. Bi soldaduk



komandantearen etxera eraman ninduten patio-  
tik zehar. Atarian gelditu ziren, eta ni bakarrik  
sartu nintzen barrura.

Gela zabal samar batean aurkitu nintzen. Bi  
gizon zeuden paperez betetako mahai baten  
atzean eserita: adineko jeneral bat, aire latz eta  
hotzekoa, eta guardiako kapitain gazte bat,  
hogeita zortzi urte ingurukoa, itxurari zegokio-  
nez oso atsegina, ernea eta harremanetan tre-  
bea. Leihotik hurbil, beste mahai batean, idazka-  
ria zegoen, luma belarri atzean jarrita eta pape-  
raren gainera makurtuta, nire adierazpenak ida-  
tziz jasotzeko prest. Hasi zen itaunketa. Izenaren  
eta graduaren galdea egin zidaten. Jeneralak  
itaundu zidan ez al nintzen Andrei Petrovitx Gri-  
nioven semea. Nire erantzuna entzundakoan,  
zakar esan zidan: «Tamalgarria da hain gizon  
itzaltsuak honen seme duingabea izatea!» Lasai  
erantzun nion edozer leporatzen zidatela ere,  
egia zintzo aitortuz akusazio guztiak berehala  
gezurtatzea espero nuela. Ez zitzaion gustatu  
nire ziurtasuna. «Mihi zorrotza duzu, mutil! —  
esan zidan, kopeta zimurtuta—, baina ikusiak  
ditugu zure moduko asko!

Orduan, gazteak galdetu zidan noiz eta nola jarri nintzen Pugatxoven zerbitzuan eta zer-nola-ko zereginetarako baliatu zen nitaz.

Haserre erantzun nion ofiziala eta noblea nintzela eta, beraz, ezinezkoa zitzaidala Pugatxoven zerbitzuan jardutea eta berarentzat inolako mandaturik betetzea.

— Nolatan liteke orduan —jarki zitzaidan galdekatzailea— iruzurtia noble eta ofizial batez errukitzea eta haren armakide guztiak, aldiz, batere gupidarik gabe hiltzea? Nolatan liteke ofizial eta noble hori matxinoekin parrandan ibiltzea eta bandiduen buruzagiaren eskutik tulup bat, zaldi bat, berrogeita hamar kopek eta bestelako opariak jasotzea? Nola jalo zen horren adiskidetasun bitxia eta zertan oinarritzen zen, ez bazen saldukerian edo, behinik behin, koldarke-riarik arbuigarrienean eta doilorrenean?

Guardiako ofizialaren hitzek biziki mindu ninduten, eta sutsuki ekin nion neure burua defendatzeari. Azaldu nion nola egin nuen Pugatxoven ezaupidea estepan, elur-ekaitzaren erdian; nola, Bielogorskaia hartutakoan, ezagutu eta bizia barkatu zidan. Esan nion baietz, egia zela batere

lotsarik gabe hartu nituela iruzurtiak emandako tulupa eta zaldia, baina azken unea arte defendatu nuela Bielogorskaia gotorlekua etsaien erasotik. Azkenean, neure jenerala jarri nuen leku-ko, berak egiazta baitzezakeen nolako atxikimendua erakutsi nuen Orenburgeko zorigaiztoko setioak iraun zuen bitartean.

Itxura latzeko agurea mahai gainean zabalik zegoen gutun bat hartu eta ozenki irakurtzen hasi zen:

— «Oraingo matxinadan nahasita omen dabilen eta leialtasun-zina hautsita etsaiarekin legez kontrako harremanak izan omen dituen Grinirov alferizaren galdea egin didala eta, honakoa jakinarazi behar diot, ohore handiz, Berorren Goren-tasunari: Grinirov izeneko alferizak Orenburgen zerbitzatu du 1773ko urriaren hasieratik aurtengo otsailaren 24ra arte. Egun horretan gotorle-  
kutik alde egin zuen eta harrezkeroztik ez da nire agindupera bihurtu. Etsaiaren eskuetatik ihes egindakoek adierazi digutenez, Pugatxoven gordelekuan izan da eta berarekin batera joan da Bielogorskaia gotorlekura, non lehenago zerbitzatu baitzuen. Haren jokabideari dagokionez,

esan dezaket...» Horra iritsita, irakurketa eten eta zakar bota zidan: «Zer esan behar duzu orain zeure buruaren alde?»

Hasi bezala jarraitu nahi nuen, eta gainerako guztia bezain zintzoki azaldu Maria Ivanovna-rekiko harremanaren nondik norakoa. Baina, bat-batean, ezin gaindituzko nazka sentitu nuen. Ohartu nintzen Maria Ivanovna aipatzen banuen batzordeak kontuak eskatuko zizkiola. Haren izena gaizkileen akusazio zitalekin nahasiko zuten eta, inondik ere, epaimahaiaren aurrera deituko zioten matxinoekin buruz buru jardun zezan. Ideia horrek, ideia izugarri horrek halako moldez durduzatu ninduen, non totalka hasi, haria galdu eta isilik geratu bainintzen.

Epailleak, itxuraz behintzat, nire erantzunak nolabaiteko biguntasunez entzuten hasiak ziren, baina, zeharo nahasita ikusi nindutenean, susmo txarra hartu zidaten berriro. Guardiako ofizialak salatzaile nagusiarekin buruz buru jartzeko eskatu zuen. Jeneralak *bezperako gaizkileari* deitzeko agindu zuen. Agudo jiratu nintzen aterantz, nire salatzailea noiz azalduko zain. Minutu batzuk geroago, kate-hotsak entzun nituen, atea ireki

eta Shvabrin sartu zen. Harrituta utzi ninduen gizonak jasandako aldaketak. Ikaragarri argal eta zurbil zegoen. Haren ilea, aspaldi ez zela atxabitxia bezain beltza, guztiz urdinduta zegoen; bizar luzea txima hutsa zen. Akusazioak berriro zituen ahots ahulez baina fermuki. Adierazi zuenez, Pugatxovek zelatari gisa bidali ninduen Orenburgera; tiroketen aitzakian, egunero ateratzen nintzen hiritik idatzizko albisteak emateko barruan gertatzen zenari buruz; azkenean, argi eta garbi jo nuen sasi-erregearen aldera, berarekin batera ibili nintzen gotorlekuz gotorleku eta bitarteko guztiez baliatu nintzen gainerako traidoreak hondatzeko eta, horrela, haien lekua bete eta iruzurtiak banatzen zituen sariez gozatzeko. Isilik entzun nion, eta gauza batek bakarrik poztu ninduen: gaizkile zital horrek ez zuen Maria Ivanovnaren izena aipatu. Zela erdeinuz muzin egin zion emakumeaz oroitze hutsarekin bere buruarenganako estimuak sufritu egiten zuelako, zela artean ere bihotzean gorderik zeukalako ni ere isiltzera behartu ninduen sentimenduaren txinpart bat, zela zelakoa, kontua da Bielogorskaiako komandantearen alabaren izena

ez zela aipatu batzordearen aurrean. Are tinkoago heldu nion neure bideari, eta epaileek galde-tu zidatenean nola gezurta nintzakeen Shvabrin-en akusazioak, erantzun nien hasieran eginda-ko adierazpenei eusten nieta eta ezin nuela bes-terik esan neure burua zuritzeko. Handik eraman gintzatela agindu zuen jeneralak. Elkarrekin atera ginen. Lasai begiratu nion Shvabrini, baina ez nion hitzik esan. Berak gorrotozko irribarre makurra egin zidan eta, katea gora jasota, aurea hartu eta urratsa azkartu zuen. Kartzela-ra itzuli ninduten eta harrezkeroztik ez zidaten itaunketa gehiagorik egin.

Ez nintzen izan irakurleari kontatzeko dauka-dan guztiaren lekuko, baina hainbestetan entzun ditut horri buruzkoak, non xehetasunik xumee-nak ere oroimenean finkatuta geratu baitzaizkit, inork ikusi gabe bertan izan banintz bezala.

Nire gurasoek iragan mendeko jendeak berezko zuen amultsutasun xaloarekin hartu zuten Maria Ivanovna. Jainkoaren mesedetzat jo zuten zurtz errukarria beren babespean hartzeko eta samurtasunez zaintzeko aukera izatea. Han-dik gutxira, bihotz-bihotzeko atxikimendua era-

kusten zioten, zeren ezinezkoa baitzen Maria Ivanovna ezagutzea eta ez maitatzea. Harrezkeron nire maitasuna ez zitzaien gehiago iruditu mutil gazte baten nahikeria hutsa; eta amak bere Petrusha kapitainaren alaba liluragarriarekin ezkontzea beste ametsik ez zeukan.

Atxilotu nindutelako zurrumurruek lur jota utzi zuten nire familia guztia. Horren berri jakin baino lehen, Maria Ivanovna hain lañoki mintzatu zitzaien nire gurasoei Pugatxovekin izan nuen tratu harrigarriaz, non, kezkatu beharrean, sarri askotan gogotik barre egin baitzuten horren kontura. Matxinatuen helburua monarkari tronua kentzea eta nobleteria deuseztatzea izaki, aitak ez zuen sinetsi nahi semea altxamendu gaizto horretan nahasita ibil zitekeenik. Itaunketa zorrotza egin zion Savelitxi. Haurtzainak ez zion ezkutatu sarritan izan nintzela Jemelian Pugatxoven etxean eta, gainera, gaizkileak hainbat operari egin zizkidala; baina zin egin zion ez zuela inongo saldukeriaren berririk jakin. Gurasoak, lasaiturik, egon ezinik geratu ziren berri onen zain. Maria Ivanovna estu eta larri zebilen, baina isilean gordetzen zituen bere kezka guztiak, urgu-

ritasun eta zuhurtasun ezin handiagoen dohainaz horniturik baitzegoen.

Aste batzuk igaro ziren... Ustekabean, aitak B. printzearen gutun bat jaso zuen Petersburgetik. Ni nintzen gutunaren gaia. Gure ahaideak, ohiko hasieraren ondoren, jakinarazten zion matxinoen asmoetan esku hartu nuelako susmoak, zoritxarrez, funts handikoak zirela eta, beraz, nornahi zentzarazteko moduko heriotza-zigorra ezarri beharko zidaketela, baina, hala ere, aita adin handiko eta merezimendu ugariko gizona zela kontuan izanik, enperatrizak deliberatu zuela seme gaizkilea heriotza lotsagarri hartatik libratzea eta, horren ordeztan, bizitza osorako erbesteratzea Siberiako bazter urrun batera.

Aita hiltzeko zorian egon zen ezusteko kolpe horren ondorioz. Betiko irmotasuna galdu eta —penak barnean mutu gordetzeko ohitura bertan behera utzita— auhen mingotsez isuri zuen bere bihozmina. «Horrelakorik! —errepikatzen zuen, bere onetik irtenda—. Nork eta nire semeak esku hartu Pugatxoven asmoetan! Jainko maitea, halakorik ikusi behar nire adinean! Erreginak heriotzatik libratu du! Kontsolamendu ederra,



gero! Izugarriena ez da, ordea, heriotza: nire asaba urkamendian hil zen, bere kontzientziak sakratutzat zeukana azken hatsa arte defendatuz; aitak Volinski eta Khrustxevekin batera sufritu zuen. Eta hara non orain gazte noble batek leialtasun-zina hautsi eta bat egin duen bandiduekin, hiltzaileekin, ihes egindako jopuekin! ... Hau lotsa eta laidoa gure leinuarentzat!...» Aitaren etsipenak ikaratuta, ama ez zen ausartzen beraren aurrean negar egiten, eta adorea itzultzen saiatzen zen, zurrumurru haiek inolako funtsik ez zutela eta jendearen usteak oso aldakorak direla esanez. Baina aita etsipenak jota zegoen.

Maria Ivanovnaren oinazea inorena baino handiagoa zen. Ziur zegoen nahi izanez gero errugabea nintzela froga nezakeela, susmatzen zuen zer gertatu zen eta nire zoritxarraren erruduntzat zeukan bere burua. Bere malkoak eta nekeak ezkututzen zizkien guztiei eta, bitartean, ni salbatzeko bidea asmatzen saiatzen zen etengabe.

Behin, arratsaldean, aita dibanean eserita zegoen Gortearen Urtekariko orriak iraultzen;

baina urrun zeukan gogo eta irakurketak ez zion ohi bezala eragiten. Antzinako martxa bat txistukatzen ari zen. Amak, isilik, artilezko jaka bat ehuntzen ziharduen, eta noizetik noizera negar-tantaren bat isurtzen zuen eskulanaren gainera. Maria Ivanovna ere josten ari zen. Bat-batean adierazi zion Petersburgera joan behar zuela ezinbestean, eta bidaiarako behar zuen guztia emateko eskatu zion. Ama oso atsekabetu zitzaion. «Zer dela eta joan behar duzu Petersburgera? —esan zuen—. Zuk ere utzi nahi gaituzu, Maria Ivanovna?» Maria Ivanovnak erantzun zuen bere etorkizun guztia bidaiara horren menpe zegoela, leiala izateagatik sufri-mendu latzak jasan zituen gizon baten alaba zela eta jende ahaltsuei babesa eta laguntza eskatzera joango zela.

Aitak burua makurtu zuen: semearen ustezko krimena gogorazten zion edozein hitz zama astuna zen berarentzat eta kargu hartze mingarritzat jotzen zuen. «Joan, laztana! —esan zuen hasperen eginez—. Ez dugu zure zorionerako oztopo izan nahi. Jainkoak nahi badu, senargai

ona aurkituko duzu traidore ustel horren ordez». Zutitu eta gelatik irten zen.

Maria Ivanovnak, amarekin bakarrean geratu zelarik, bere aieruetako batzuen berri jakinarazi zion. Amak negarrez besarkatu zuen eta Jainkoari otoitz egin zion neskak bere helburua inolako arazorik gabe erdiets zezan. Maria Ivanovna bidaia prestatzen hasi zen, eta egun batzuk geroago bideari ekin zion Palasha eta Savelitx leialak lagun zituela. Halabeharrez nigandik aldenduta, Savelitxi aringarri zitzaion pentsatzea gutxienez nire emaztegaiaren zerbitzari zela.

Maria Ivanovna inolako ezbeharrik gabe heldu zen Sofiara, eta, posta-etxean entzunik Gortea Tsarskoie Selon zegoela, bertan gelditzea erabaki zuen. Gela txiki bat eman zioten holtz mehe baten atzean. Posta-etxeko nagusiaren emaztea hizketan hasi zitzaion berehala; Gorteko sugin baten loba zela esan zion, eta Gorteko bizitzako sekretu guztiak salatu zizkion: erregina zer ordutan esnatzen zen, noiz hartzen zuen kafea eta noiz joaten zen paseatzera, zer gortegizon zituen sasoi hartan berekin, aurreko egunean zertaz hitz egin zuen bazkalorduan eta nor

hartu zuen arratsean. Hitz batean laburbiltzeko: Anna Vlasievnak kontatutakoan bazen histori kronika bateko hainbat orrialde betetzeko beste, eta balio handikoa zatekeen hori guztia geroko belaunaldientzat. Maria Ivanovnak arreta handiz entzuten zion. Lorategira irten ziren biak. Anna Vlasievnak ibiltoki eta zubi bakoitzaren historia azaldu zion, eta, luzaz ibili ondoren, posta-geltokira itzuli ziren, poz-pozik elkarren ezaupidea egin zutelako.

Biharamunean, Maria Ivanovna goizean goiz esnatu zen; jantzi, eta isilgordeka joan zen lorategira. Polita zen goiza, ezkiak horituta zeuden jada udazkeneko giro hozkirriaren eraginez eta eguzkiak adaburuak argitzen zizkien. Aintzira zabala bare-bare eta distiratsu zegoen. Beltxarga esnatu berriak, arranditsu, igerian ateratzen ziren ur-ertzeko zuhamuxken artetik. Maria Ivanovna belardi eder baten hegaletik joan zen. Oroitarria ipini berria zuten han Piotr Aleksandrovitx Rumiantsev kondeak aspaldi ez zela lortutako garaipenen omenez. Bat-batean, ingeles arrazako txakurtxo zuri batek zaunka hasi eta korrika jo zuen berarengana. Maria Ivanovna gelditu

egin zen, beldurrez. Une horretan, emakume baten ahots atsegina aditu zuen: «Ez beldurtu, ez dizu hozka egingo». Eta orduan, Maria Ivanovnak dama bat ikusi zuen oroitarriaren aurrean, jarleku batean eserita. Jarlekuaren beste muturrean eseri zen bera. Damak finko begiratzen zion; Maria Ivanovnak, bere lekutik zeharkako begiratu batzuk egotzita, burutik oinetaraino aztertzekeo parada izan zuen. Goizerako soineko zuria, lepoihala eta gaueko txanoa zituen jantzita. Berrogei urte ingurukoa ematen zuen. Aurpegiak, betea eta zurigorria, handitasuna eta lasaitasuna adierazten zituen. Begi urdin argiak eta irribarre leuna ezin azalduko liluraz hornituta zeuden. Damak hautsi zuen isiltasuna.

— Dirudienez, ez zara hemengoa —esan zuen.

— Ez, atzo bertan heldu nintzen probintziatik.

— Senitartekoekin etorri zara?

— Ez, bakarrik etorri naiz.

— Bakarrik! Oso gaztea zara oraindik!

— Ez dut ez aitarik ez amarik.

— Zereginen baterako etorri zara, jakina!

— Bai horixe, enperatrizari eskari bat egitera etorri naiz.

— Zurtza zara: inondik ere, jasandako bidegabekeria edo irainen bat salatu nahi diozu.

— Ez ba, gupida eske etorri naiz, ez justizia bila.

— Barkatu galdetzea, baina nor zaitut?

— Mironov kapitainaren alaba.

— Mironov kapitaina! Orenburg eskualdeko gotorlekuetako batean komandante izandakoa?

— Bai.

Dama, itxuraz, hunkiturik zegoen. «Barkatu zure arazoetan sartzeagatik —esan zuen lehen baino doinu samurragoa eman ez ahotsari—, baina esadazu zein den zure eskaria, ni Gortean izaten naiz sarritan, eta, agian, laguntzeko modua aurkituko dut».

Maria Ivanovnak zutik jarri eta eskerrak eman zizkion adeitasun handiz. Nahi gabe ere, dama ezezagunak bihotza erakarri eta uste ona pizten zion. Maria Ivanovnak paper tolestu bat sakelatik atera eta bere babesle ezezagunari luzatu zion. Dama bere golkorako irakurtzen hasi zen.

Hasieran, arretaz eta gogo onez irakurtzen zuen; baina, bat-batean, bestelakotu egin zitzaion begitartea, eta Maria Ivanovna, begiez damaren mugimendu guztiei jarraitzen baitzien, ikaratu egin zen ikustean nolako aire latza jabetu zen lipar bat lehenago hain atsegina eta lasaia zen aurpegi hartaz.

— Grinioven aldeko eskaria? —esan zion, hotz, damak—. Enperatrizak ezin dio barkatu. Bat egin zuen sasi-erregearekin, eta ez sinesberatasunak edo ezjakintasunak eraginda, gizatxar hutsa eta batere moralik gabeko gizona delako baizik.

— Ez da egia! —jaregin zuen Maria Ivanovnak.

— Zer?, ez dela egia? —jarki zitzaion dama haserre bizian.

— Ez da egia, Jainkoarren, ez da egia! Nik badakit guztiaren berri, dena kontatuko dizut. Nigatik, nigatik bakarrik jasan du gertatu zaion guztia. Ez ninduen auzian nahasi nahi, eta horregatik ez zuen bere burua zuritu epaileen aurrean —Orduan, sutsuki kontatu zion nire irakurleek dagoeneko dakiten guztia.

Damak arretaz entzun zion. «Non hartu duzu ostatu?», galdetu zion gero; eta Anna Vlasievnaren etxean zegoela entzun zuenean, irribarrez esan zuen: «Ah, badakit! Mesedez, ez esan inori nirekin izan zarela. Uste dut laster jasoko duzula zeure gutunaren erantzuna».

Hori esandakoan, zutitu eta ibiltoki estalian sartu zen. Maria Ivanovna itxaropentsu eta pozez gainezka itzuli zen Anna Vlasievnaren etxera.

Etxeko andreak errieta egin zion udazkenean goizean goiz paseatzera joateagatik, haren hitzetan oso kaltegarria baitzen hori neska gazte baten osasunerako. Samovarra ekarri zuen eta, kikara tea edan bitartean Gorteari buruzko solasaldi amaigabeetako bati ekitekotan zegoela, tupustean, Gorteko zaldi-kotxe bat ataurrean gelditu eta lekaio bat sartu zen jakinaraztera enperatrizak jauregira gonbidatzen zuela Mironova andereñoa.

Anna Vlasieвна, zur eta lur eginik, atertu gabe hitz egiten hasi zen. «Ene Jainkoa! —zioen oihuka—. Enperatrizak Gortera deitzen dizu. Baina nola jakin du zure berri? Nolatan agertuko



zara zu enperatrizaren aurrera? Ziur nago Gorteko jokabide-arauen arrastorik ere ez dakizula... Zurekin joatea nahi duzu? Horrela, gutxienez, aholkuren bat edo beste eman ahal izango dizut. Eta nolatan joango zara bidai soineko horrekin? Nahi baduzu, emaginarengana joango naiz soineko horia eskatzera!» Lekaioak jakinarazi zien enperatrizak Maria Ivanovna ikusi nahi zuela, bera bakarrik eta soinean zeramana zeramala. Ez zegoen ezer egiterik: Maria Ivanovna zaldikotxera igo eta jauregira abiatu zen Anna Vlasievnaren aholkuek eta bedeinkapenek jarraituta.

Maria Ivanovnak sumatzen zuen gure zoria erabakitzeaz zegoela; bihotza tarteka indarrez pilpiratu eta tarteka gelditu egiten zitzaion. Minutu batzuk geroago, zaldikotxea jauregiaren alboan gelditu zen. Maria Ivanovna dardarka igo zen sarrerako eskaileran gora. Ate nagusia alderik alde zabaldu zen beraren aurrean. Hainbat gela zeharkatu zituen, denak dotoreak eta inorgabeak; lekaioak bidea erakusten zion. Azkenean, ate itxi batera heldu ziren. Lekaioak esan

zion beraren berri jakinaraziko zuela, eta baka-  
rrik utzi zuen.

Enperatriza bekoz beko ikusiko zuelako  
ideiak horrenbesteraino kikiltzen zuen, non  
nekez eusten ahal baitzion gorputzari hanken  
gainean. Une bat geroago, atea ireki zuten eta  
Maria Ivanovna enperatrizaren apaingelan sartu  
zen.

Enperatriza bere apainmahaiaren aurrean  
eserita zegoen. Gorte-gizon batzuk zituen ingu-  
ruan. Bide egin zioten gizalege handiz Maria Iva-  
novnar. Enperatrizak, berarenganantz jiraturik,  
amultsuki begiratu zion, eta apur bat lehenago  
horren zintzoki mintzatu zitzaion emakumea  
ezagutu zuen orduan Maria Ivanovnak. Enpera-  
trizak hurbiltzeko eskatu eta irribarrez esan zion:  
«Pozik nago neure hitza bete eta zure eskariari  
erantzun ahal izan diodalako. Amaitu da zure  
arazoa. Etsita nago zure senargaia errugabea  
dela. Mesedez, hartu gutun hau eta zerorrek era-  
man zure aitagarreba izango denari».

Eskua dardarka, Maria Ivanovnak gutuna  
hartu zuen; negarrez hasi eta enperatrizaren  
oinetara erori zen. Honek altxatu eta musu eman

zion. Gero, hizketan hasi zitzaion berriro. «Bada-  
kit ez zarela aberatsa —esan zion—, baina Miro-  
nov kapitainaren alabaren zordun naiz. Ez kezka-  
tu etorkizunaz. Neu arduratuko naiz zuen egoera  
hobetzeaz».

Enperatrizak, laztan samurrez zurtz dohaka-  
bearen bihotza arindu ondoren, joaten utzi zion.  
Maria Ivanovna Gorteko zaldi-kotxean itzuli zen  
posta-etxera. Anna Vlasievnak, egonezinari ezin  
eutsirik noiz itzuliko zain baitzegoen, galderaz  
josi zuen, baina Maria Ivanovnak hainbestean  
erantzun zion. Neskaren oroimen txarrak atseka-  
betu egin zuen Anna Vlasievnak, baina jokaera  
hori probintzietako nesken berezko herabeari  
egotzita, bihotz bihotzez barkatu zion. Egun  
horretan bertan, Petersburg ezagutzeko batere  
gogorik gabe, herrira itzuli zen Maria Ivanovna...

Hemen amaitzen da Piotr Andreievitx Grinio-  
ven idazkia. Familiaren gaineko kontakizunetatik  
dakigunez, 1774. urtearen amaieran kartzelatik  
atera zuten enperatrizaren aginduz. Pugatxoven  
heriotzaren lekuko izan zen; iruzurtiak jendetza-  
ren erdian antzeman eta agur egin zion buruaz,  
une bat geroago hilotz eta odoletan blai herriari

erakutsiko zioten buruaz alegia. Handik gutxira, Piotr Andreievitx Maria Ivanovnarekin ezkondu zen. Haien ondorengoak zoriontsu bizi dira Simbirsk eskualdean. \*\*\*-tik hogeita hamar bat vers-tata hamar jabe dituen herrixka bat dago. Handi-  
mandi haietako baten etxean Jekaterina II.ak bere eskuaz idatzitako gutun bat erakusten dute beti. Marko baten barruan gordeta daukate, kris-tal eta guzti. Piotr Andreievitxen aitari zuzendu-ta dago. Bertan, enperatrizak, semea errugabea dela adierazi eta Mironov kapitainaren alabaren buruaren argia eta bihotzaren zabala goستن ditu. Piotr Andreievitx Grinioven eskuizkribua beraren bilobetako batek eman zigun aitona-k deskribatutako garaiari buruzko lan bat presta-tzen ari ginela jakin zuenean. Ahaideen baime-narekin, aparteko liburu batean argitaratzea era-baki dugu, atal bakoitzerako epigrafe egokia aurkitu ondoren eta geure kabuz izen batzuk aldatzeko lizentzia hartuta.

*1836ko urriak 16*  
*Argitaratzailea*

# Eranskina ARGITARATU GABEKO ATALA

Volgatik hurbil geunden; gure errejimendua \*\*\* herrian sartu eta han gelditu zen gau egitera. Herriko buruak esan zidanez, ibaiaz bestaldeko herrixka guztiak matxinatuta zeuden eta Pugatxoven sailak batera eta bestera zebiltzan nonahi. Albiste horrek biziki kezkatu ninduen. Biharamun goizean ibaia igaro behar genuen. Ezinegona nagusitu zitzaidan. Aitaren herria hogeita hamar verstara zegoen ibaiaren beste ertzean. Galdetu nuen ea txalupariren bat aurki nezakeen. Nekazari guztiak arrantzaleak ziren; txalupa asko zegoen. Griniovengana jo eta neure asmoen berri jakinarazi nion. «Tentuz ibili —esan zidan—. Arriskutsua da bakarrik joatea. Itxaron bihar arte. Besteen aurretik zeharkatuko dugu ibaia, eta, badaezpada ere, 50 husar eramango ditugu gurekin zure gurasoen etxera».

Nik, ordea, neure asmoari eutsi nion. Prest zegoen txalupa. Barruan sartu nintzen bi arraun-

larirekin batera. Amarrak askatu eta arraunean hasi ziren.

Oskarbi zegoen. Ilargiak argi egiten zuen zeruan. Eguraldi atsegina geneukan. Volga astiro eta lasai zetorren, eta txalupa, leunki zabu eginez, bizkor lerratzen zen uhin ilunen artean. Neure baitara bildu eta ametsetan murgildu nintzen. Ordu erdi inguru igaro zen. Ibaiaren erdira iritsi ginen... Bat-batean, arraunlariak euren artean txutxu-mutxuka hasi ziren. «Zer gertatzen da»? galdetu nien, neure zentzura bihurtuta. «Auskalo, batek daki!», erantzun zidaten, alde batera begira. Begiak hara zuzendu, eta ibaian behera zetorren zerbait ikusi nuen iluntasunean. Gauza ezezaguna arian-arian hurbiltzen ari zitzaigun. Gelditzeko eta itxaroteko agindu nien arraunlariei. Ilargia hodei baten atzean ezkutatu zen. Ur-azaleko irudia lausoago bihurtu zen. Hurbil geneukan, eta, hala ere, ezin antzik eman. «Auskalo zer den! —zioten arraunlariek—. Bela ez du ematen, masta ere ez...» Eta, bat-batean, ilargiak hodeiaren atzetik agertu eta ikuskari izugarria erakutsi zigun. Urkabea zetorren guganantz, almadia baten gainean tente

eutsita eta langatik zintzilik hiru gorpu zituela. Halako ikusmin gaixo bat jabetu zen nitaz. Urkatuen aurpegiak ikusi nahi nituen.

Nik aginduta, arraunlariak kizkiaz heldu zioten almadiari, eta gure txalupak ur-gaineko urkabearen kontra jo zuen. Jauzi batez almadia-  
ra jaitsi eta zutabe izugarrien erdian aurkitu nintzen. Ilargiak distiratsu argitzen zituen dohakabe haien aurpegi itxuragabetuak. Haietako bat txu-  
vash zahar bat zen, bestea nekazari errusiar bat, hodei urte ingurukoa, sendoa eta sasoikoa. Baina hirugarrenari begiratu nionean, indarrez estutu zitzaidan bihotza, eta, eutsi ezinik, tama-  
lezko intzeria jaregin nuen: Vanka zen, nire Vanka gizajoa, bere ergeltasunak eraginda Pugatxovekin bat egin zuena. Urkatuen gainean ohol beltza zegoen iltzez lotuta; honakoa zeukan letra zuri handiz idatzirik: «Lapurrak eta matxi-  
noak». Arraunlariak nire zain zeuden, axolagabe-  
ki begira eta kizkiaz almadiari eusten ziotela. Txalupara igo nintzen berriro. Almadia ibaian behera joan zen. Luzaz antzeman genion ilunpe-  
tan urkabearen isla beltzari. Azkenean, begien

bistatik galdu genuen, eta nire txalupa ibai-ertz garai eta malkartsuan lehorreratu zen...

Ondo ordaindu nien arraunlariei. Haietako batek herriko buruaren etxera eramanez ninduen, ibaia igaro genuen lekutik hurbil baitzegoen. Biok batera sartu ginen izban. Zaldiak nahi nituela jakin zuenean, herriko buruak nahikoa zakar hartu ninduen, baina nire gidariak zerbait esan zion ahapeka, eta zakartasuna adeitasun lehiatsu bihurtu zen berehala. Troika prestatu zuten aitaren batean, gurdira igo eta gure herri-ramateko agindu nion gurtzainari.

Bizkor nindoan bide nagusitik, herrixka lokartuak atzean utziz. Beldur nintzen ez ote ninduten bidean geldiaraziko. Volgan aurkitutako urka-beak matxinoak inguru hartan zebiltzala salatzen zuen, baina, aldi berean, argi erakusten zuen gobernuaren gogor ari zela haien kontra. Nolanahi ere, Pugatxovek emandako pasa-baimena eta Grinirov koronelaren agindua neuzkan sake-lan. Baina ez genuen inorekin topo egin, eta eguna argitzerako gure herri inguruko erreka eta izei-basoa begiztatu nituen. Gurtzainak zigorraz



jo zituen zaldiak, eta ordu-laurden bat geroago \*\*\*-n sartu nintzen.

Jauretxea herniaren beste muturrean zegoen. Zaldiak eginahal guztian zihoazen. Bat-batean, kale baten erdian geundela, gurtzaina troika gelditzeko ahaleginak egiten hasi zen. «Zer gertatzen da?», galdetu nion urduri. «Bidea itxita dago, jauna», erantzun zidan, zaldi suhartuak nezkez geldiarazita. Izan ere, oztopoa ikusi nuen bidean, eta hagaz armatutako mujik bat alboan. Nigana hurbildu eta, txanoa erantzita, nortasun-agiria eskatu zidan. «Zer esan nahi du honek? —galdetu nion—. Zergatik jarri duzue oztopoa hemen? Nor zaintzen ari zara?» «Matxi-natu egin gara, adiskidea», erantzun zidan, buruan hatz eginez.

— Eta non dira nagusi jaun-andreak? —galde-tu nion, bihotza estuturik...

— Nagusi jaun-andreak non diren? —errepikatatu zuen mujikak—. Nagusi jaun-andreak bihitegian daude.

— Nola bihitegian?

— Bai, Andriukhak, tsemstvokoak, hor sartu ditu katez lotuta, eta erregearengana eramán nahi ditu.

— Ene Jainkoa! Kendu oztopoa, kirten horrek. Zeren zain zaude?

Mujika aiko-maiko zegoen. Gurditik jauzi egin, belarrondokoa eman (barkamena eskatzen dut horregatik) eta neuk baztertu nuen oztopoa. Mujikak harriduraz begiratu zidan, lelo-aurpegia jarrita. Berriro gurdira igo eta jauretxera zitzu bizian eramateko agindu nuen. Bihitegia larrairean zegoen. Itxita zeukaten atea eta bi mujik zeuden alboan, haiek ere hagaz armatuta. Gurdia haien aurrez aurre gelditu zen. Jauzi batez jaitsi eta korrika jo nuen zuzen-zuzenean haiengana. «Ireki atea!», esan zuen. Inondik ere, itxura beldurgarria neukan. Gutxienez, ihesi joan ziren biak, hagak lurrean utzita. Giltzarra poa hausten eta atea behera botatzen saiatu nintzen, baina atea haritzezkoa zen eta giltzarra poa, berriz, ikaragarri handia eta ezin apurtuzkoa. Une horretan, gorpuzkera lerdeneko mujik gazte bat irten zen morroien izbatik, eta harro antzean galdetu zidan nolatan ausartzen nintzen

horren iskanbila handia sortzen. «Non da Andriushka, tsemstvokoa? —galdetu nion oihuka—. Esaiok hona etortzeko».

— Neu naiz, baina Andrei Afanasievitx deitu, ez Andriushka —harropuztu zitzaidan, besoak hazta eginda zituela—. Zer nahi duzu?

Erantzun beharrean, idunekotik oratu, bihitegiko ateraino arrastaka eramane, eta irekitzeko agindu nion. Tsemstvokoa tematu egin zitzaidan hasieran, baina nire zigor aitatiarrak eragina izan zuen berarengan ere. Giltza atera eta bihitegiko atea ireki zuen. Herio suharrean atalasea zeharkatuta, aita-amak ikusi nituen sabaiko zirrikitu estu batek motelki argitzen zuen zoko ilun batean. Eskuak sokaz lotuta eta oinak girgiluetan sartuta zituzten. Besarkatzera oldartu nintzen haiengana, hitzik esateko gai ez nintzela. Harrituta begiratu zidaten: armadan egindako hiru urteek horrenbesteraino aldatu ninduten, non ez baitzidaten antzik eman. Ama zinkurin egin eta negarrez hasi zen.

Bat-batean, ondo asko ezagutzen nuen ahots maitagarri bat entzun nuen: «Piotr Andreitx! Zu zara!» Aho zabalik geratu nintzen... begiratu, eta

Maria Ivanovna ikusi nuen beste zoko batean, bera ere lotuta.

Aitak isilik begiratzen zidan, bere begiek zekusatena ezin sinetsirik. Pozak aurpegia argitzen zion. Gehiago luzatu gabe, sablea biluztu eta soken korapiloak ebaki nituen.

— Kaixo, kaixo, Petrusha —zioen aitak, bihotzaren kontra estutzen ninduen bitartean—, etorri haiz, Jainkoari eskerrak...

— Petrusha, laztana —zioen amak—. Jainkoak ekarri hau hona! Zer moduz hago?

Giltzapetik atera nahi nituen lehenbailehen, baina, atera hurbildu nintzenean, itxita aurkitu nuen berriro. «Andriushka —deiadar egin nuen—, ireki ezak!» «Ezta pentsatu ere —erantzun zuen tsemstvokoak ateaz bestaldetik—. Hor barruan geratuko zara. Orain erakutsiko dizugu zer dakarren iskanbila sortzen ibiltzeak eta erregearen funtzionarioak idunekotik helduta arrastaka eramateak!»

Bihitegia arakatzen hasi nintzen, handik irte-teko modurik ba ote zegoen ikustearren.

— Ez nekerik hartu —esan zidan aitak—, nagusi zuhurra nauk, ez diat utzi lapurrek nire bihitegian sartu-irtenik egiteko zulorik.

Ama, nire agerpenak une batez alaitu bazuen ere, etsipenean erori zen berriro, familia guztia-rekin batera hiltzea egokituko zitzaidala ikusita. Ni, ordea, lasaiago nengoen gurasoekin eta Maria Ivanovnarekin elkartu nintzenez geroztik. Sablea eta bi pistola neuzkan, setioari aurre egiteko moduan nengoen beraz. Griniov iluntzean iritsiko zen eta berak askatuko gintuen. Gurasoei hori guztia azaldu eta ama lasaitzea lortu nuen. Bete-betean eman zioten elkartzeak eragindako pozari.

— Tira, Piotr —esan zidan aitak—, nahiko bihurria izan haiz eta oso haserre nengoa hirekin. Baina ahaztu egingo diat iragana. Espero diat dagoeneko zuzendu eta zentzatu egingo hintzela. Bazekiat ofizial zintzo bati dagokion bezala zerbitzatu duala. Estimaten diat. Pozgarria duk hori agure zahar honentzat. Eta orain heuk salbatzen bagaituk, nire bizitza bi aldiz atseginagoa izango duk.

Nik, begiak malkotan, eskuan muin egiten nion behin eta berriro, begirada Maria Ivanovna-rengan jarrita nuela. Horren poz handia hartu zuen ni ikustean, non zorionez beterik eta lasai-lasai zegoela baitzirudien.

Eguerdi aldera, ezohiko hotsak eta oihuak entzun genituen kanpoan. «Zer esan nahi du horrek? —galdetu zidan aitak—. Iritsi da hire koronela?» «Ezinezkoa da —erantzun nion—. Ilunabarra baino lehenago ez da hemen izango». Zalaparta gero eta handiagoa zen. Kanpaien errepika entzun genuen. Zaldizkoak lauoinka bizian zebiltzan larrainean; une horretan, Savelitxen buru ile-urdina sartu zen hormako zirrikitu estu batetik. Nire haurtzain errukarria hala mintzatu zitzaigun, erdi negarrez: «Andrei Petrovitx! Avdotia Vasilievna! Piotr Andreitx, nire jauna! Maria Ivanovna, nire andrea!, hau ezbeharra!, gaizkileak herrian sartu dira. Eta badakizu, Piotr Andreitx, nor duten buruzagi? Shvabrin, Aleksei Ivanitx! Deabruak eramango ahal du!» Izen gorrotagarri hori entzutean, Maria Ivanovna besoak espantuz jaso eta geldi-geldirik geratu zen.

— Entzun —esan nion Savelitxi—, bidali norbait zaldi gainean \*\*\* igarolekura, husarren errejimenduaren bila, eta koronelari azal diezaiola nolako arriskuan gauden.

— Baina nor bidaliko dut, jauna? Mutil guztiak matxinatuta daude, eta zaldi guztiez jabetu dira! Ai ene! Larrainean dira, bihitegirantz datoz.

Orduan, hainbat ahots entzun genituen atiaz bestaldean. Isilik, zoko batera baztertzeko keina egin nien amari eta Maria Ivanovnari; sablea biluztu eta hormaren kontra bermatu nintzen ate ondoan bertan. Aitak pistolak hartu zituen eta, bien katua jasota, nire alboan kokatu zen. Giltzarraoak kirrinka egin zuen, atea zabaldu, eta tsemstvokoaren burua azaldu zen. Sableaz jo nuen; lurrera erori eta traban geratu zen sarrean. Une horretan, aitak tiro egin zuen ate aldeara. Bihitegia inguratuta zeukan jendetza biraoka sakabanatu zen. Zaurituaren gorputza arrastaka atalasetik kendu eta barrutik itxi nuen atea. Larrainean gizon asko zegoen, denak armatuta. Shvabrini antzeman nion haien artean.

— Ez beldurtu —esan nien emakumeei—. Oraindik ez du gureak egin. Eta zuk, aita, tiro

gehiagorik ez bota. Geroko gordeko dugu azken tirogaia.

Amak, isilik, otoitz egiten zion Jainkoari; Maria Ivanovna haren aldamenean zegoen, aingeruen lasaitasunaz gure zoria nola erabakiko zain. Ateaz bestaldean mehatxuak, biraoak eta madarikazioak entzuten ziren. Neure lekuan geratu nintzen, baten bat atea zeharkatzen ausartuz gero sableaz jotzeko prest. Bat-batean, gaizkileak isildu egin ziren. Shvabrinen ahotsa entzun nuen, izenaz deika ari zitzaidala.

— Hemen nago, zer nahi duzu?

— Amore eman, Bulanin, alferrik da gogor egitea. Erruki zaitez zeure gurasoez. Setakeriak ez zaitu salbatuko. Harrapatu egingo zaitut!

— Saia zaitez, traidorea halakoa!

— Ez dut inolako asmorik ez neure burua alferrik arriskatzeko, ez gizon bat bera ere galtzeko. Bihitegiari su emateko aginduko dut, eta orduan ikusiko dugu zer egiten duzun, Bielogorskaiko On Kixote horrek. Orain, bazkaltzeko ordua da. Bitartean, gera zaitez hor eta patxadaz hausnartu. Ikusi arte, Maria Ivanovna, ez dizut barkamenik eskatuko: ziur nago ez zarela batere



aspertuko ilunpe horretan zeure zaldun ibiltaria lagun duzula.

Joan zen Shvabrin, bihitegiko atean jagoleak utzita. Isilik geunden, nor bere baitara bilduta, gogoetan, norberaren pentsamenduak besteei adierazten ausartu gabe. Gogoan nerabilen Shvabrinek, amorruren amorruez, aukeran egin zezakeen guztia. Neure patuak ez zidan kezka handiegirik sortzen. Eta —zergatik ez aitortu?— gurasoen zoriak ez ninduen Maria Ivanovnarenak bezainbeste ikaratzten. Banekien nekazariak eta zerbitzariak bihotz-bihotzez maite zutela ama, eta aita ere estimu handitan zutela, zeren, haren izaera latza gora-behera, gizon zuzena baitzen, bere menpekoen benetako beharriak ondo asko zekizkiena. Matxinada zoroaldi hutsa izan zen, herritarren mozkorraldi iragankorra, ez ordea haien haserrearen erakusgarri. Ziur nengoen nagusi jaun-andreez errukituko zirela. Baina, eta Maria Ivanovna? Zer egingo ote zion gizatxar ustel eta zantar horrek? Ez neukan adorerik burutapen izugarri horri gogoan atxikitzeko eta Jainkoak barkatuko ahal dit!— emaztegaia

hiltzeko prest nengoen etsai ankerraren eskue-  
tan berriro ikusi baino lehen.

Ordubete inguru joan zen. Mozkorren kankak entzuten ziren herrian. Gure jagoleak bekaizke-  
riaz erretzen zeuden eta, gurekin haserre, birao-  
ka aritzen ziren eta torturekin eta heriotzarekin  
ikaratzen gintuzten. Gu zain geunden, Shvabri-  
nek egindako mehatxua zertan amaituko. Azke-  
nean, mugimendu handia sumatu genuen larrai-  
nean, eta berriro entzun zen Shvabrinen ahotsa.

— Zer, ondo hausnartu duzue? Onez onean  
irtengo zarete hortik?

Inork ez zion erantzun. Apur batean itxaron  
ondoren, lastoa ekartzeko agindu zuen Shvabri-  
nek. Minutu batzuk geroago, sua piztu zuen;  
garrek bihitegi iluna argitu eta kea poliki sartzen  
hasi zen ateko zirrikituetatik. Orduan, Maria Iva-  
novna nigana hurbildu zen, eskutik heldu eta  
hala esan zidan ahopetik:

— Nahikoa da, Piotr Andreitx! Ez dut nahi ez  
zu ez zure gurasoak nigatik hiltzea. Utzi irteten.  
Shvabrinek entzun egingo dit.

— Inola ere ez —atera zitzaidan bihotz barre-  
netik—. Ez al dakizu zer egingo dizuten?

— Ez dut desohorea bizirik eramango —erantzun zidan lasai—. Baina, agian, neure askatzaila eta horren bihotz zabalaz zurtz dohakabe hau babestu duen familia salbatzea lortuko dut. Agur, Andrei Petrovitx. Agur, Avdotia Vasilievna. Ongile baino askoz gehiago izan zarete niretzat. Bedeinka nazazue. Eta zuk, Piotr Andreitx, barkaidazu. Ziur egon ni... ni... —eta negarrez hasi zen... eta aurpegia estali zuen eskuekin... Ni erotzeko puntuan nengoen. Ama negarrez ari zen.

— Utzizu lelokeriak esateari, Maria Ivanovna —esan zuen aitak—. Ez zaitugu bakarrik bidaliko bandiduen eskuetara! Eseri hemen eta isil zaitetz. Hil behar badugu, elkarrekin hilko gara denok. Entzun, zer diote hor kanpoan?

— Zer, amore emango duzue? —oihu egin zuen Shvabrinek—. Ikusten?, bost minutu battu xigor-xigor eginda egongo zarete.

— Ez dugu amore emango, gizatxar alaena! —erantzun zion aitak ahots sendoz.

Haren aurpegi zimurtsuak adore harrigarria erakusten zuen, begiek larderiatsu distiratzen zuten bekain ile-urdinen azpian. Eta, niganantz jiratuta, esan zuen:

— Orain!

Atea zabaldu zuen. Sua bortizki sartu eta garrak bizkor igo ziren enborretan gora, goroldio lehorrez estalita baitzeuden. Aitak pistolaz tiro egin, eta urrats zabala emanaz atalaseko su-garrak zeharkatu zituen, oihuka zioela: «Denok nire atzetik». Amari eta Maria Ivanovnari eskutik heldu eta agudo atera nituen aire zabalera. Shvabrin atalasean zetzan, aitaren esku zargalduak eragindako tiroak zaurituta. Bandiduak, gure ustekabeko erasoaren aurrean korrika ihes egin baitzuten, berehala adorea berreskuratu eta gu inguratzen hasi ziren. Sable-ukaldi batzuk banatzea lortu nuen, baina trebetasun handiz jaurtikitako adreilu batek bete-betean jo ninduen bularrean. Lurrera erori, eta konorterik gabe geratu nintzen tartetxo batez. Neure senera itzuli nintzenean, Shvabrin ikusi nuen belar odoleztatuan eserita, eta beraren aurrean neure familia osoa. Galtzarbeetatik helduta nindukaten. Nekazari, kosako eta bashkirez osatutako jendetza handia geneukan inguruan. Shvabrin ikaragarri zurbil zegoen. Alde zauritua estutzen zuen esku batez. Aurpegiak oinazea eta gaiztotasuna

adierazten zituen. Burua astiro jaso, niri begiratu, eta ahots ahul eta ulergaitzez esan zuen:

— Urka ezazue... eta besteak ere bai... neska izan ezik.

Orduan, gaizkileek, garrasika inguratu eta ate nagusirantz eraman gintuzten. Baina, bat-batean, bertan behera utzi eta korrika sakabana-tu ziren: ate nagusian Griniov zegoen, eta beraren atzean eskuadroi oso bat, sableak biluztuta.

Matxinoak ihesi zihoazen alde guztietatik; husarrek jazarri, sable-ukaldika eraitsi, eta preso hartzen zituzten. Griniovek, jauzi batez zaldi gainetik jaitsita, buru-makurtua egin nire aita-amei eta gogor estutu zidan eskua niri. «Garaiz iritsi naiz —esan zigun—. Ah!, hire emaztegaia ere hemen zegok». Maria Ivanovna gorri-gorri jarri zen. Aitak Griniovengana hurbildu eta eskerrak eman zizkion, hunkituta baina lasai-itxuraz. Amak behin eta berriro besarkatzen zuen, aingeru salbatzailea deituz. «Ongi etorri», esan zion aitak, eta gure etxera eraman zuen.

Shvabrinen albotik igarotzean, Griniov gelditu egin zen. «Nor da hau?», galdetu zuen, zaurituari so. «Buruzagia bera, sailaren burua —eran-

tzun zion aitak, garai batean militarra izan zela salatzen zuen hainbesteko harrotasunaz—, Jainkoak lagundu dio nire esku zargalduari gaizkile gaztea zigortzen eta semearen odolaren mende-kua hartzen».

— Shvabrin da —esan nion Griniovi.

— Shvabrin! Pozten naiz. Husarrak!, eraman ezazue! Eta esan gure sendagileari zauria lotzeko eta bere begi-ninia balu bezala zaintzeko. Shvabrinek derrigorrez agertu behar du Kazaneko batzorde sekretuaren aurrera. Gaizkile nagusietakoa dugu eta beraren adierazpenak garrantzi handikoak izan daitezke.

Shvabrinek indarrik gabe begiratu zigun. Haren aurpegiak gorputzeko oinazea besterik ez zuen adierazten. Husarrek longain batean etzanda eraman zuten.

Etxean sartu ginen. Hunkiturik begiratzen nuen ingurura, haurtzaroko urteak gogoan. Ez zen ezer aldatu, lehengo leku berean zegoen dena. Shvabrinek gure etxea arpilatzea eragotzi zien bandiduei, doilorra izanagatik ondasun-gose desohorezkoak nahi gabeko nazka eragiten baitzion. Zerbitzariak bebarrura bildu ziren. Ez

zuten matxinadan parte hartu eta bihotz-bihotzez poztu ziren gu salbu ikustean. Savelitx ezin alaiago zegoen. Jakin beharra dago ezen, bandiduen erasoak sortutako nahaste-borrasteaz baliaturik, haurtzainak Shvabrinen zaldia zegoen ukuilura jo zuela, zelatu, itzalgaizka atera, eta iskanbilari esker igarolekura joan zela inor ohar-tu gabe. Errejimendua aurkitu zuen, ordurako Volga zeharkatuta eta atsedean hartzen. Griniovek, haren ahotik entzunda nolako arriskuan geunden, zaldi gainera igotzeko eta lauoinka bizian abiatzeko agindu zuen eta, Jainkoari esker-rak, garaiz iritsi zen.

Griniovek ez zuen onik izan tsemstvokoaren burua taberna alboan haga luze baten puntan jarrita zenbait orduz erakustea lortu arte.

Husarrak hainbat gizon preso hartuta zekar-tzatela itzuli ziren jazarralditik. Setio gogoangarriari eutsi genion bihitegi berean sartu zituzten.

Nor bere gelara erretiratu zen. Gurasoek atsedean hartu behar zuten. Gau osoa esna egin-da, ohean sartu eta lo pisu batek hartu ninduen berehala. Griniov aginduak ematera joan zen.

Arratsean, egongelan elkartu ginen denok samovarraren alboan, joandako arriskuaren gaineko solasaldi alaitsuak. Maria Ivanovnak tea zerbitzatzen zigun; ni aldamenen eseri nintzaion eta beste inortaz ez nintzen arduratzen. Gurasoek, itxuraz, begi onez zekusaten gure harremanen samurra. Bizi-bizirik dut oraindik arrats horren oroitzapena. Zoriontsua nintzen, guztiz zoriontsua; izan ere, ugariak al dira horrelako unekak gizakiaren bizitza nahigabetsuan?

Biharamunean, aitari jakinarazi zioten nekezariak jauretxeko larrainean bilduta zeudela eta beren errua aitortu nahi zutela. Aita ataurrera irten zen. Agertu bezain laster, mujikak belauniko jarri ziren.

— Astakiloak halakoak —esan zien—, nolatan bururatu zaizue matxinatzea?

— Errudunak gara, jauna —erantzun zioten denek batera.

— Errudunak zarete, jakina. Deabrukeria ugari egin duzue gero! Baina Jainkoak neure seme Piotr Andreitxekin elkartu nau, pozik nago eta barkatu egingo dizuet.

— Errudunak gara! Errudunak, bai horixe!



— Tira, ondo da: zintzo damutuz gero, errua barkatu behar. Jainkoak eguraldi ona ekarri digu, saralea biltzeko sasoian gaude, eta zuek, astakirtenak halakoak, zer egin duzue hiru egun hauetan? Herriko burua! Bidal itzazu den-denak sega-lanera. Eta argi ibili, basapiztia ilegorri hori, hin egunerako sarale guztia ebakita eta azaoka bilduta nahi dut. Alde hemendik!

Mujikak kilimusia egin eta lanera joan ziren ezertxo ere gertatu ez balitz bezala.

Shvabrinen zauria ez zen hilgarri gertatu. Jagole-talde batekin bidali zuten Kazanera. Leihotik ikusi nuen nola jartzen zuten gurdian etzanda. Gure begiradek elkarrekin topo egin zuten, berak burua makurtu zuen eta ni agudo urrundu nintzen leihotik. Beldur nintzen ez ote nuen poza erakutsiko etsaiaren zoritxarraren eta umilazioaren aurrean.

Griniovek aurrera jarraitu behar zuen. Familiarekin egun batzuk gehiago geratzeko irrikaz banengoen ere, berarekin joatea erabaki nuen. Abiatu behar genuen egunaren bezperan, gura-soengana joan nintzen eta, garai hartako ohiturari jarraiki, oinetara apaldu eta Maria Ivanovna-

rekin ezkontzeko onespena eskatu nien. Gurasoek lurretik altxarazi eta, alaitasunezko malkoak isuriz, oniritzia eman zidaten. Haien aurrera eraman nuen orduan Maria Ivanovna, zurbil eta dardarka. Bedeinkatu egin gintuzten... Orain ez naiz hasiko une horretan zer sentitu nuen azaltzen. Inoiz egoera horretan egon denak besterik gabe ulertuko dit; sekula horrelakorik ezagutu ez duenari, berriz, neure errukia erakutsi eta berandu baino lehen maitemintzeko eta gurasoen bedeinkapena jasotzeko aholkua eman besterik ezin dut egin.

Biharamunean, abiatzeko prestatu zen errejimendua. Griniovek nire familia agurtu zuen. Ziur geunden denok gerra berehala amaituko zela; hilabete barru ezkontzea espero nuen. Agurtzean, Maria Ivanovnak musu eman zidan guztien aurrean. Zaldi gainera igo nintzen. Savelitx nirekin elkartu zen berriro, eta errejimendua abian jarri zen.

Herriko etxea berriro utzi nuelarik, luzaz egon nintzen urrundik atzera begira. Susmo goibel batek larritzen ninduen. Norbaitek xuxurlatzen zidan nire ezbeharrek artean ez zutela

azkena jo. Bihotzak beste ekaitz bat barrundatzen zuen.

Ez naiz orain hasiko gure bidaiaren nondik norakoa eta Pugatxoven aurkako gerraren amaiera kontatzen. Pugatxovek suntsitutako herriak zeharkatzen genituen, eta, nahitaez, bandiduek utzi zieten apurra kendu behar izaten genien herritar dohakabeei.

Jendeak ez zekien nori obeditu. Agintea etena zen leku guztietan. Lurjabeak basoan ezkutatzen ziren. Bandidu-sailek sarraski itzelak egiten zituzten nonahi. Pugatxov Astrakhane-rantz zihoan ihesi, eta beraren atzetik bidalitako hainbat destakamendutako buruek nahierara zigortzen zituzten hala errudunak nola erruga-beak... Benetan ikaragarria zen gerrak gupidarik gabe astindutako lurralde hartako egoera. Jainkoak begira gaitzala Errusiako matxinada baten lekuko izatetik, hain dira zentzugabeak eta ankerrak! Gure herrialdean iraultza ezinezkoak egin nahirik dabilzanak, edo gazteak dira eta ez dute gure herria ezagutzen, edo bihotz gogorreko jendeak dira, zeinentzat inoren buruak hutsa eta euren lepoak hutsaren hurrena balio baituen.

Pugatxov ihesi zihoan, Iv. Iv. Mikhelsonek jazarrita. Laster jakin genuen erabat suntsitu zuela. Azkenean, iruzurtia preso hartu zutelako albistea jaso zuen Griniovek bere jeneralarengandik, eta, horrekin batera, gelditzeko agindua. Azkenean, etxera itzul nintekeen! Pozarren nengoen. Baina, aldi berean, sentimendu bitxi batek iluntzen zidan alaitasuna.